



## Zahartze tasa

Herrietako datuak → 15

## ETXALAR → 14

XX. Gasna Feria eguna ekainaren 3an

## DONEZTEBE → 20

Errekaren Eguna ekainaren 9an

## BERTIZARANA → 26

Bertizarana Eguna ekainaren 2an Narbarten

## BAZTAN → 39

Almandozko bestak ekainaren 6tik 10era



## Mobilizazioak IKASTETXE PUBLIKOETAN

Irakaskuntza Publikoan aplikatu nahi dituzten murrizketen kontrako mobilizazioetan dabiltza egunotan Nafarroa osoko ikastetxe publikoetan. Maiatzaren 22, 29 eta 31n eginen dituzten grebez gain, goizero 10 minutuz pankarta baten inguruan biltzen dira ikastetxeetako atarietan irakasle, ikasle eta gurasoak eta informazioa zabaltzeko bilerak egin dituzte Guraso Elkarte eta Eskola Kontseiluekin. → 29

ARGAZKIA: ONDIKOL



## GIZARTEA → 33

Areso, Goizueta eta Leitzako eskolen arteko topaketa ekainaren 2an

## OSASUNA → 23

Osasun kontseilaria Donezteben zegoela eta, murrizketen kontrako protesta egin dute Baztan, Bertizarana eta Malerrekako hainbat hautetsik



## SASKIBALOIA → 48

Denboraldi bikaina Berako Toki Ona Bortziriak saskibaloia taldeko senior, kadete eta infantileko taldeentzat



## UEMA Eguna | ekainaren 9an Goizuetan

«Euskaraz bizi eta ari, herri euskaldunak aitzindari»

1991n 14 udalekin hasi eta orain Euskal Herriko 60 biltzen dira UEMAn, Udal Euskaldunen Mankomunitatean. Horien artean daude Arantza, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta eta Leiza. Aurten Igantzi sartuko da eta Baztan eta Lesaka sartzeko asmotan dabiltza. [ERREPORTAJEA](#) → 4-5



## Berako Abesbatzak 25 urte

Fatima GONZALEZ | Zuzendaria → 3



# BERA AGENDA EKAINA

Ekitaldien gaineko informazio gehiago:  
012 telefonozan [www.berakoudala.net](http://www.berakoudala.net)

1

artziroa

## XXV. BAZTAN-BIDASOAKO BERTSOPAPER LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

18:00 - Kultur Etxean  
Antolatzaileak: Bertzietako Bertso Eskola eta  
Beroko Kultur Batzerdea - Laguntzaileak: Bertzietako Euskara Mankomunitatea.

7

ortzeguna

## IGERILEKUAREN IREKIERA

Asteleheneetik igandera 11:00tik 20:00tara  
**Abonamendua egiteko:**  
ekainaren 7etik 6ra arte (Kiraldegian).  
Abonamendua egitera joan aitzinetik karta  
Haberroako Kutxa sartzu behar da eta  
epiztogiaria eraman.  
Ikastaroetarako izen emateak:  
ekainaren 4tik 22ra arte.

5

osteguna

## UDAKO KONTZERTUA

17:30 - Kultur Etxean  
Antolatzaileak: Indara Fegogoa  
Musika Eskola  
Laguntzaileak: Beroko Kultur Batzerdea

10

igandea

## GILTZARRI HAUR ABESBATZA

18:00 - Kultur Etxean

15-17

ostaropala  
igandera

## ALTZATEKO BESTAK

11:00 - Dantzak - Agerratik Herriko etxeba plazara, Irats taldearen eskutik - Ildeketatik Eztegarara Musika Eskolako txistulariak Itzantzi Legiara, Musika Eskolako musikariek  
11:30 - Altzatek Herriko Etxeko plazara, Erraldoien konpartza gaitere talde barriekin iganduta (Bera-Lesaka) | 12:30 - Herriko Etxeko plaza: kolejeen parte hartzen duten taldeek lan bat eskainiko dute eta erraldoiek dantzatuko dute goitonen musikaz lagunduta | 12:45 - Oñazio auzerakuz, Gure Txokoako dantzariak eta Julen Zelaieta eta Pabai Castillo bertalarzak | **Ondetik:** Beroko Abesbatzak bi kanta eskainiko dute, gero abesbatzako kide aitezkin batera bertze bi kanta abestuko dira Belduetan Musika Batzerrekin batera amonon da | **Azkenik:** Beroko Abesbatza, txistulariak eta musika bandarekin batera | **Oharra:** eguraldi txarra eginez gero: Altzateko frontoian.



EXAINAK  
2

## ZEZEN MEKANIKOA + LURDJOTAK

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

EXAINAK  
9

## BONGO BOTRAKO

00:00 - 10€ Aurretik 12€ Bertan  
Salmenta puntuak: Antxitorea eta Txokoto (Elizondo) - El Internito (Iruña) - Atxaspi (Lesaka) - Lorentxo (Olabe)

EXAINAK  
16

## TIRRI & TERY

DENBORALDIAREN BUKAERA // FIN DE TEMPORADA

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

LOVE  
THIS  
SHIT

Lur



garagardotegia

Ostual, jarraitzaile eta jostalariak bezalaitan irekia  
BIBLIOTHECA TEL. 010000000

25 urte bete ditu Berako Abesbatzak eta hori ospatzeko egun handia antolatu dute igande honetarako, ekainaren 3rako. Aitzinetik ere, koralaren mende laurdena

gogoratzeko kontzertua eta argazki erakusketa egin dituzte. Abesbatzaren berri barre-netik ezagutzeko Fatima Gonzalez Burgeterekin izan gara. Hasiera hasieratik

abesbatzan kantari hasi zen, 14 urterekin eta 2000-2001 ikasturteetik honat zuzendaria da, Begoña Rudi eta Josu Goiaren leku-koa hartuz.

Fatima GONZALEZ BURGUETE | Berako Abesbatzako zuzendaria

# «Familia handi bat gara eta primeran pasatzen dugu elkarrekin»

Aitor AROTZENA | BERA

**Egun handia ekainaren 3a izanen duzue, baina kontzertua eta erakusketa egin dituzue dagoeneko. Zer moduz joan ziren?**

Maiatzaren 5ean egin genuen kontzertua eta egia errateko hagitz ongi atera zen, denok primeran pasa genuen gure jendearen artean, beraien harrera primerakoa izan zen. Erakusketak ere ongi joan zen, guretzat hagitz hunkigarria izan da, gauza eta pertsona aunitzez gogoratu ginen prestatzerakoan eta ikusterakoan.

**CDa ere argitaratu duzue 13 kantarekin... Nola egin duzue aukeraketa?**

CDan agertzen diren 13 kanta aukeratzeko zenbait bilera eta eztabaida izan ditugu, argi genuen kanta alaiak, euskaldunak... nahi genituela, eta Berako Banda eta txistulariak gurekin egotea nahi genuela, beraz, hortik hasi ginen aukeratzeko, eta horrela sortu zen gaur egun salgai dugun CDa. Beste kantetan pentsatu genuen ere, bertan pianoaren laguntza erabiliz, baina kendu genituen presuposioz kanpo gelditzen ginelako. 1000 ale egin dira, abesbatzako partaide guztiak gaude saltzen eta Berako zenbait puntu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Fátima Gonzalezek dozena bat urte daramazki Berako Abesbatza zuzentzen.

tan ere salgai daude, orain arte ongi doa salmenta..

**Nolako erantzuna espero duzue igandeko egun handian?**

Ekainaren 3an egingo dugun kontzertuan beratar guztiak musika entzutea nahi dugu, horretarako goizean talde desberdinak izanen dira herrian barna gero Herriko Etxeko plazan elkartzeko, bertan lehenengo koralistek, jubilatuek, Berako Bandak, Txistulariek, bertsolariak, dantzariak... parte hartuko dute gurekin batera eguna ospatzeko. Denetara 85 pertsona pasatu

## MUSIKA ETA BERA

«Abesbatzaren egoera ongi ikusten dut, hori bai jende berria sartzeko irrikitan gaude, beraz erran ateak zabalik ditugula denontzat, animatu eta etorri. Egia erran Beran musika mota desberdinetako talde ugari daudela, horrek erran nahi du musika modu desberdinean lantzen dela, hori hagitz garrantzitsua da gure herriarentzat. Gu harro gaude zati txiki bat izateagatik».

gara abesbatzatik. Erantzun positiboa izatea espero dugu.

**25 urteotan momentu txarrak eta onak izan direla aipatu zenuen kontzertu ondotik...**

Momentu desberdinak daude abesbatzaren barranean, txarrak batez ere konpromisoen aurrean sortzen diren tentsioengatik, jende aunitz gaude eta bakoitza gure izaerarekin, beraz, urduri jartzen gara eta gatazka txikiak izaten ditugu, baina gauza horien gainetik onena da familia handi bat garela, eta primeran pasatzen dugula elkarrekin, hor

daude elkarrekin darrazkigun 25 urteak.

**Zer aldatu da urte hauetan abesbatzaren barranean?**

25 urtetan aldaketa aunitz eman dira, zuzendaritza lanean hiru pertsona izan gara eta bakoitzak zuzentzeko gure modua izan dugu, abeslariak zuzendari bakoitzari egokitu behar izan dira. Bertzetik, urte batzutan jende aldaketa nabaria izan zen, horrek lanean eragin handia zeukan. Adibidez kanta bat prestatzen hasten ginen eta bat-batean jende berria sartzen zen, primeran, baina berriz hasieratik hasi beharra zegoen. Edo norbait joaten zen eta gelditzen zirenek aurrera egin behar zuten aldaketa horrekin. Beste aldetik, orain dela urte batzuk junta bat sortu genuen, horrekin abesbatzaren funtzionamendua aldatu zen, lanak banatu egiten dira. Kantuen inguruan beti erreperitorio zabalak izan dugu, musika desberdinak ukituz.

**Etorkizunera begira, zer?**

Aurtengo ikasturtea hagitz mugitua eta lanpetua izan dugu gure 25 urteurrena dela eta, gure ustez balorazioa egitea komeni zaigu eta hortik aurrera pentsatuko dugu zein norabide jarraitu.



OSPAKIZUNAK → UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN EGUNA

# Aurtengo UEMA Eguna Goizuetan eginen da ekainaren 9an

UEMA Eguna eginen den eskualdeko hirugarren herria izanen da

**Euskaraz bizi eta ari, herri euskaldunak aitzindari** lelopean eginen da UEMA Eguna Goizuetan. Dantzak, musika, umeentzako

jolasak, herri bazkaria, herriko etxeak eta kontuak ezagutzeko aukera... Egun osoko egitaraua antolatu dute goizuetarrek.

## G. PIKABEA

1998an Arantzak hartu zuen lekukoa eta 2009an Berak. Aurten, berriz, eskualdeko beste herri bati tokatu zaio eta Goizuetan eginen da Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Eguna ekainaren 9an. Mankomunitatearen eta euskararen aldeko aldarrikapen egun honen aitzakian, egun osoko egitaraua prestatu dute.

Aurreko Udalak ere saiakerak egin zituen UEMA Eguna Goizuetan egin zedin eta aurten bai, aurten Goizuetan eginen da. Alaitz Eskudero Goizuetako zinegotziak adierazi digunez, «arrunt pozik gaude egun hau Goizuetan ospatuko delako. Fernando Goia aurreko euskara zinegotziak ahalegin haundia egin zuen egun hau Goizuetan egiteko, eta behingoz lortu dugunean berak ezin izan du Udalean egon. Hala ere, lantaldean parte hartzeko aukera izan du, eta oso eskertuak gaude bere lanagatik».

Otsail hasieran egin zen ofizial UEMA Eguna Goizuetan eginen dela eta berehala hasi ziren herritarrek lanean, hamabost bat laguneko lantaldea osatuta. «Erronka haundia» dela aitortu digu Eskudero, baina «erronka haundia bezain polita da Goizueta bezalako herri ttiki batentzat».



UEMA EGUNA

«Goizueta zerbait bada, herri euskalduna da eta Euskal Herri guztiari erakutsi behar diogu euskaraz aritzeaz gain, euskaraz bizi ere egin daitekeela»

**Alaitz ESKUDERO**  
Goizuetako zinegotzia

Pozik dago herritarren aldetik «interes haundia» ikusi baitu.

*Euskaraz bizi eta ari, herri euskaldunak aitzindari.* Hori izan da aukeratuak leloa. Eta zergatik? Zinegotziak eman dizkigu xehetasunak: «euskaraz bizi eta aritzea da UEMAko herrien helburua, eta etorkizunean ere euskara biziko bada Goizueta eta UEMAko beste herriak aitzindariak izanen dira. Lelo honen ekimen honen izaera aitzindaria bildu nahi izan genuen».

Goizuetan euskararen egoera nola ikusten duen ere galdetu diogu eta «ona» dela erantzun digu:

«hemen euskaraz bizi gara, beraz, Goizueta euskararen arnaguneetako bat dela esan daiteke. Hala ere, gaztelera oso presente daukagu eta ez dugu tentsioa galdu behar. Oraindik lan asko dago egiteko euskararen normalizazio bidean».

Ekainaren 9an eginen den UEMA Egunean ofizialki lgantzi ere Mankomunitateko kide izanen da. Eta horrela 7 udal izanen dira eskualdean UEMAren barne. Zinegotziaren irudiko, «euskararen etorkizuna ziurtatuko badugu, ezinbestekoa da herri euskaldun guztiak

elkartzea, bizirik mantentzea, eta euskararen arnagune sendo bihurtzea. Ahalegin horretan ari da UEMA. Beraz, Mankomunitatean sartzera animatuko nitzuke gainerako herriak. Zenbat eta herri gehiago, orduan eta indar haundiagoa izanen dugu». Goizuetari UEMAk egin dion ekarpen nagusia, berriz, zera azaldu digu: «UEMAk, batez ere, udaleko administrazio arloan euskaraz funtzionatzeko laguntza haundia ematen digu. 1993an UEMA sartu ginenetik euskararen presentzia asko haunditu da Udalean».

Atzerako kontaketa hasia da, beraz. Gutxi gelditzen da egun haundira eta honezkeroko, azken

ukituak ematen ariko dira Goizuetan. Alaitz Eskudero, bere aldetik, herritarrei UEMA Egunean kalera ateratzeko deia egin die: «Goizueta zerbait bada, herri euskalduna da eta Euskal Herri guztiari erakutsi behar diogu euskaraz aritzeaz gain, euskaraz bizi ere egin daitekeela. UEMA Eguna egun aproposa da horretarako». Eta goizuetar ez direnei ere egin die gonbidapena: «ospakizunez gain, aldarrikapenerako eguna izanen da eta ederki pasako dugu. Goizueta herri ttikia da, baina halakoetan haundi bihurtzen da. Egun polita antolatu dugu, eta seguru gaude egun indartsua izanen dela».



EUSKARA → UEMA-REN BARNE

# Eskualdeko bertze udalerriekin batera UEMAn sartzea erabaki du Igantzik

Eskualdeko zazpigarren herria da

G. PIKABEA

Arantza, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta eta Leitza Udalak dira oraingo UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean daudenak. Guztiek UEMAn sartzeko baldintza, hau da, biztanleen %70 euskalduna izatea, betetzen dute eta aldi berean, euskararen alde lan egiteko konpromisoa bere egina dute, baita UEMAn helburu nagusiak ere: udalerrri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia euskaraz izan dadin bideak urratzea; udalerrri euskaldun guztiek bat eginik euskara nagusi izanen den lurgunea osatzea eta udalerrri euskaldunen garapen sozioekonomiko eta kulturala bultzatzea.

UEMA ofizialki 1991n sortu zen, baina 80ko hamarkadan eman zituen lehen urratsak, Euskal Herrian Euskaraz taldeak bultzatuta. 1991n hamalau udalekin hasi zen lanean, eta geroztik haundituz joan da 60tik goiti izateraino. Arantza 1995etik da UEMAn kide; Aresok 2008an erabaki zuen sartzea eta Berak eta Etxalarek urtebete berandago, 2009an. Goizueta eta Leitza izan ziren eskualdeko lehenbiziko udalerrriak UEMAn sartzen, 1993an. Eta ekainaren 9ko UEMA Egunean, ofizialki Igantzi ere kide izanen da. Lesakak eta Baztanek ere UEMAn sartzeko aukera mahai gainean dute, nahiz eta oraindik ez duten behin betiko erabakirik hartu.



ARANTZA

«Euskararen normalizazioa lortzeko hagitz baliagarria da UEMA eta udaletxean euskaraz funtzionatzeko laguntzen du. Euskararen inguruan, atzerapausuak ez emateko ere ona da»

Jaime ITURRIA



ARESO

«UEMA euskararen normalizazioan aurrera egiteko oinarritzko tresna bat da. Areso UEMAn sartu zenetik aldaketa nabaritu da eta euskararen gaineko kontzientziazioan eragin du»

Ur ALGUERO



BERA

«Berako Udalak herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuak izateko lan egiten du, eta UEMAn egoiteak administrazioaren euskalduntzean aitzindariak izatea ahalbidetzen du»

Marisol TABERNA



ETXALAR

«Administrazioa euskalduntzeko prozesuan, UEMA tresna baliagarria da. Baina aldika Euskara Mankomunitatea eta UEMA uztartu behar direla ikusten dugu, denak bide berean ibiltzeko»


Miguel Mari IRIGOIEN



GOIZUETA

«Zoritxarrez, euskara zapaldua dago eta gure lurralde osoan euskara lehenbiziko hizkuntza izatea nahi badugu, UEMA eta Euskara Mankomunitatea bezalako tresnak beharrezkoak dira»

Pablo MIRANDA



LEITZA

«UEMA egitura garrantzitsua da, gehienbat euskararen normalizazioa bultzatzeko eta hortik, herri honen izatea onartu eta nahi duena izaten uzteko eskubidearen alde lan egiteko balio duelako»

Oier EIZMENDI

LOURDES IBARLUZEA, IGANTZIKO ALKATEA

## «Euskararen normalizazioa gure herrian errealitatea bihurtzea nahi dugu»

«Talde bezala, gure helburu nagusietako bat euskara bultzatzea, babestea eta erabiltea delako». Horregatik erabaki zuen Igantziko Udalak UEMAn sartzea. Joan den ekainean kargua hartu eta hilabete pare batera hasi ziren horretarako lanean. Tramitazioarekin, berriz, orain dela lau bat hilabete hasi ziren: «bilerak eginez, osoko bilkuran onartuz, jendeari informazioa helaraziz eta jendearen aitzinean erabakia paratuz», azaldu digute Lourdes Ibarluzea alkateak eta udal zinegotziek. Euren irudiko, «Igantzin orohar jendeak euskaraz badaki eta hitz egiten du. Hala ere, gaztelania gustatuko litzaigukeena baino gehiago entzuten da kalean». UEMAn sartuta, «orain arte gehiena euska-


raz egiten genuen, eta hemendik aitzinera dena euskaraz eginen dugu», diote Ibarluzeak eta zinegotziek. Gaineratu digutenez, «euskararen normalizazioa gure herrian errealitatea bihurtzea nahi dugu. Horretarako euskararen erabilpena bultzatuko dugu eta helburu hori lortzearen laguntzak bideratuko ditugu». Euskararen normalizaziorako «UEMAk laguntza haundia emanen digula» uste dute, «eta segitu beharreko bidea zein den zehaztuko digula. Noski, ezin dugu ahaztu gure ideia berdinak dituzten udalekin sortuko diren harreman eta lankidetzak».

Baina euskararen normalizazioa lortzeko Udalak eta udal ordezkariak laguntza behar dutela ere adierazi dute: «ezinbertzekoa da



Lourdes Ibarluzea.

herriaren partehartzea eta jendeak euskararak gure laguntza behar duela ulertzea bizirik jarraitu ahal izateko: Igantzi dela euskararen babes eremua».



**Nire txanda**  
Zuriñe ZUBILLAGA

## Azken Dantza

Zaila izaten da geure barne mundutik ateratzea maiz. Neure buruarekin eztabaidatzen, hausnarketak egiten, amesten... ematen dut egunaren zati handia. Baina bat-batean beste pentsamolde batzuekin egiten dut topo. Beste sentimendu eta amets batzuekin. Hori du komunikazioak. Elkar ulertu ahal izateko maila berean jarri behar. Grafonolan orratza pista batean kokatzen duzunean bezala, pista berean kokatu behar duzu bestearekin eta kantu bera dantzatu. Kantua entzun, interpretatu eta gozatzea lortzen ez bada ere, pausu batzuk eman. Erritmoa jarraitu. Komunikazioaren dantza alegia. Entzun, prozesatu eta bidali. Arauak eza-gutu eta errespetatu. Etxerako bidean monologoaren festara joateko aukera izan dut bakarrizketan. Autotik jaitsi, eskailera igo, etxeko atea ireki eta burua jaso dut. Akabo festa! Gaurkoan ezin izan dut parekoarekin dantzatu. Nekaturik dauzkat hankak eta mindurik oinak. Kantuak min egiten dit belarrietan.

«Hori du komunikazioak. Elkar ulertu ahal izateko maila berean jarri behar»

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Sosik gabeko txapeldunak

Ez Chelsea, ez Bayern. Ez Barça, ez Athletic, ezta BO ere. Sosik ikusi gabe, igo edo jautsi, beraien taldeekin harro Aurrera, Baztan, Beti Gazte, Doneztebe, Gure Txokoa, BKT, Erreka, Urtxintxak, BRT, Izarra, Toki Ona Bortziriak, SPUC, Atekabeltz edo Umore Onaren izenean zelai eta kantxetan denboraldi osoan lehiatu diren neska eta mutilak dira gure egiazko txapeldunak.

## Nabarmentzekoak




**Basilio SAROBE**  
Dohaintza Euskaltzaindiari

Eliza Katolikoaren liturgia euskaratzeko hasitapenarekin lotutako liburua eta dokumentu dohaintza garrantzitsua egin dio Sunbillako erretoarek Euskaltzaindiaren Azkue liburutegiari.



**Joxe ETXEBERRIA III**  
Errioxako txapeldun

Lehen aldiz jokatu den frontoi laburreko Errioxako erremonete txapelketa irabazi du Etxeberria IV.aren batera. Adarragako finalean 40-37 irabazi zieten Oñatz eta Julen San Migueli.



**Jandari SAID**  
Irabazle Urdazubin

Berez marokoarra den korrikalari frantziarrak irabazi zuen maiatzaren 19an Urdazubin Kontrabandisten Lasterketa. Walter Becerrak eta Fernando Etxegaraik osatu zuten podiuma.

Atzera begira → 2002.06.06 / TTIPI-TTAPA 327. zbk



### Ehoziri lanetaz Leitzako Linuputzu taldearekin

Duela hamar urte egin zen Leitzan *Ehoziri Lan Zaleen Topaketa*, herriko Linuputzu elkarteak antolatuta. Arantxa Grajirena taldekide eta irakasleak aipatu ziguenez, 32 lagun ari ziren ikastaroan. «Ahaide edo etxekoei oparitzeko gauza polita da ehoziri lana» aipatu zigun. Hori bai, «ezin duzu enkajea edo puntilla saltzeaz bizi, hasteko ez dakizulako zein preziotan saldu. Hain da lan zehatza!». Leitzako taldearen izenari zegokionez, «hemen Leitzan baserri batzuetan linua putzuetan garbitzen omen zuten, lurrean etxe aurrean zeuden linuputzu horiek. Izen aproposa iruditu zitzaigun taldearentzat».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitzu, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

### 2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....38€	Europa	.....56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....32€
Ipar Euskal Herria	.....56€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitzu	.....16€



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria





## Kolaborazioak

### Pobreak aberatsen alde

Pello APEZETXEA

**N**orberak bere burua maite du. Eta nola ez? Gure berezkotasunak eramaten gaitu horrela jokatzera. Berezkotasun horri esker zaintzen dugu geure burua, horrek bulkatzen gaitu denen gainetik gure alde sentitzera eta egitera. Eta jokaera hori normalizat jotzen ahal dugula uste dut, jende normalari dagokion jokaera dela. Elkar maitatzea erakusten duten erlijioek ere, ontzat hartzen dute normalean bere buruari lehentasuna ematea.

Honek ez du erran nahi beti horrela egiten dugunik. Adibidez, aunitzetan idazki honen izenburuarena da egiazkoa, pobreak aberatsen alde erabakitzen duela. Aberatsak eskuinekoari ematen dio bere botoa, eta aski zentzuzko iduri du horrela jokatzera; izan ere, eskuinekoa, gehiena behintzat, aberatsa da edo aberats izatea bilatzen du, eta aberatsen probetxua zaintzen du. Pobreaken alde, ordea, inork egitekotan, pobreak jokatu behar luke, aberatsa ez denak, alegia. Honek ikusten ahal baitu beharrean edo eskasian dagoenaren egoera, honek ulertzen ahal du ondasunak eta bizitzeko aukerak berdinak edo antzekoak behar dutela izan jende guztientzat, mundua denena eta denentzat dela, bizitzea mundutar guztien eskubidetzat jo behar dela eta ez batzuen soilik. Baina ez du iduri horrelakoa dela aunitzetan pobreaken ikuspegia.

Zergatik gertatzen da hori? Zergatik egiten du pobreak aberatsen alde, eta, azken batean bere buruaren kontra? Ez du arrazoizko iduri bere buruaren kontra jokatu nahi izatea, bere buruaren kalterako. Zer bada? Uste ote du aberatsengana hurbilduta beretzat ere mesede gehiago eskuratzen ahalko duela? Pobreengandik, alegia, ez duela deus irabazten ahal? Behar bada. Pobreak pobre izatea utzi nahi baitu, eta hori ez da okerra. Baina aberatsak ez du nahi ondasunak eta diruak denen artean banatzea, horrek aunitz duena gutiago izatera eramanez bailuke. Gogoratu dugun pobreaken jarraera, orduan, aberatsen alde egitea, alegia, ez du iduri egokia denik. Egokia, bere mailako edo antzekoekin elkartzea dela dirudi.

Dena den, ohartzen naiz gai hau ez dela erraza, egoerak desberdin ikusteaz gain, beldurrak ere eragiten ahal du, aberats eta indartsuarengana hurbiltzea.

**«Pobreak pobre izatea utzi nahi baitu, eta hori ez da okerra. Baina aberatsak ez du nahi ondasunak eta diruak denen artean banatzea, horrek aunitz duena gutiago izatera eramanez bailuke»**

### Zein da euskaldunen identitatea?

Jexux BULDAIN

**N**ik, bertakoari asko begiratzen diodan hoietakoa naiz eta maite ere bai. Hori horrela izanik, Leitzari eta Euskal Herriari asko begiratu izan diot nerabegarotik eta, ondorioz, erabaki batzuk hartu ere bai. Administratibo ikasketak bukatu nituenean 19 urterekin, lanean hasi nintzen Leitzako fabrian. Diru pixka bat egin, eta soldaduska egin nuen Santa Cruz de Tenerifen. Handik etorri eta orduan hasi zen nere bigarren etapa.

Euskal Herria, herri mugatua ikusten nuen. Tradizio handiko herri bat, hizkuntz indioeuropar bikain batetaz baliatua, baina herriak berak dituen ondareei etekin ateratzeko gaitasunak landu gabe. Hori horrela ikusita, nere buruari galdetzen nion: 'ni euskalduna naiz, hogeita bat urte ditut eta ikasten jarraitu nahi dut Euskal Herrian; Euskal Herriko gauzetaz baina ez nuen ezer ikusten'. Orduan bi 'tranferentzi-mental egitea erabaki nuen': 1. Nire etxean dirurik ez zegoen eta neronek atera behar nuen dirua eta ipar-ameriketako teknika-estrategia-teoria-gizon aberatsen bibliografiak etabar ikasten hasi nintzen, nire kabuz. 2. Euskal Herrian aurkitu ez nuena asetzeko, arlo-emozionala garatzen jarraitzeko, oriente bezala ezagutzen den tokira salto egin nuen; Japonia - Txina. Han bai, aurkitu nuen nahi nuena. Filosofia ezberdinak eta pila bat. Karate ikasten hasi nintzen eta bide batez, arte martzialen inguruan dagoen teoria ia guztiak ikasi nituen. Gogoarekin nengoenez, budismoa eta taoismoa ere ikasi nituen.

Orain urteak pasa direla, Euskal Herria, herri menperatu gisa ikusten dut eta menperatua zaudenean askatasuna izatea ia ezinezkoa da. Herri batek identitate propioa behar du eta identitate horren barruan, ohitura batzuk bereganatu behar dira, 'gureak bezala' identitate horri zentzua emateko, hain zuzen ere. (...)

Beti pentsatu izan dut: gure ondareari etekina ateratzeko eta gure herria bizirik mantetzeko zerbait egin behar dugula. Gure aurrekoak, borroka asko eginez, herri bat utzi digute eta orain gure esku dago, zer egin berarekin. Baina, zer egin? Magisteritza ikasi dudala baliatuz, zuzen izango zen Vigotsky-ren printzipioa erabiltzea. Hau da: 'garapen hurbileko zona sortzea'. Vigotskyk dio: bere kabuz oinez ibili ezin den haur bat eskutik hartzen baduzu, oinez ibiltzen dela. Garapen hurbileko zona bat ematen da. Teoria hau erabiliz, Euskal Herriari identitate sakona ematen badiogu, garapen hurbileko zona emango da, aurrerapausu bat emango dugulako. Baina nola bizi egin? Behaketa sakon batekin hasi behar da: erreparatu nola bizi izan diren gure aurrekoak, nola bizi garen gu eta ikusi zer mantentzen dugun. Mantentzen duguna, gure identitatearen barruan sartu behar dugu, gurea delako! Galdu duguna eta merezi badu, berreskuratu eta zerbait berria behar badugu, sortu! Euskaldunak pixka bat magikoak gara! Gauza berriak eraikitzeko gaitasuna dugu eta horri etekina ateratzen jarraitu behar dugu eta gure identitatea ere izan behar du! Gainera, gauza berriak sortzen duen herri edo gizaki bat, menderaezina da! Adibide asko ditugu: bertsolariak, Andoni Egaña BEGen 14.000 mila pertsonaren aurrean bertso berriak eraikitzen dituenean, une hori menderaezina da! Bestalde, mendizaleak ere bagara. Gogoratu behar dugu, urteetan, gure aurrekoak menditik bizi izan direla itsasotik bezala eta hori barneratutua daukagu. Bukatzeko, nire pilotari-botillero esperientzia baliatuz, pilotazaleak ere bagara. Hau izango zen bidea....

Bukatzeko: guk gure herria baloratzen badugu, munduak ere baloratuko gaitu. Gu aske sentitzen bagara, askeak izango gara!

## Irakurleak mintzo

### Baztango Ezker Abertzaleak Arranbelaren kontrako salaketa gaitzesten du

Isaak REKALDE eta Karlos BERISTAIN (Baztango Ezker Abertzalearen izenean)

*Diario de Noticias* egunkariko Baztango kazetariak jakinarazi duenez Baztango Ezker Abertzalearen Arranbela blogari irain eta kalteengatik salaketa paratu dio. Arranbela *Diario de Noticias*eko Aroztegiaren inguruan argitaratutako berri baten faltsutasunak nabarmentzen ziren eta, bidenabar, kazetari horrek Aroztegiako aferan izandako ildo informatiboa kritikatzeko. Guzti horren aitzinean Baztango Ezker Abertzaleak honakoak erran nahi ditu:

*Arranbela.blogspot.com* bloga Baztango Ezker Abertzalearen sareko informazio gunea da. Ezker abertzalearen ekimen eta gogoeten berri eman bidenabar Baztango kontratu desberdinen agerakaria ere bada eta, izaera herrikoa duten berriei, hitzorduei eta hausnarketekie tokia berezia egiten die.

*Arranbela.blogspot.com* gunea Baztango Ezker Abertzaleak kolektiboki markaturiko irizpideekin egiten da eta blogaren ildoak eta bertan argitaratzen diren berriei erabaki kolektibo horri erantzuten diote. Horregatik salaketaren kausa izan

den berria guztiz beregain hartzen du.

*Diario de Noticias*eko kazetariaren salaketa blogaren kontrako eraso zuzen moduan ulertzen du gu eta adierazpen askatasunaren kontrako ekintza guztiz gaitzesgarri eta larria.

*Diario de Noticias*eko aipatu kazetariak nahi duenaren inguruan eta nahi duen gisan idazteko eskubidea du, baina eskubide hori bera gainerakoei ukatzen die. Urteetan hainbat gairen inguruan: Erdiz, Aroztegia, herrietako alkateak, mutil-dantzak... bere jokabide maltzurra jasaten ibili diren herritar, talde eta eragileek ixilik egoitea bertzerik ez dute. Adierazteko eskubidea irudiz berari bakarrik dago gokiola.

Bistan denez idazteko eta adierazteko eskubidea denena da eta bereziki langileen, herritarren eta inguruaren kontrako eraso larrien garai hauetan, suntsiketa orokor hori jokatu nahi dute herritarrena, taldeena eta eragileena.

Baztango Ezker Abertzaleak Arranbelaren kontrako salaketa eta jazarpena gogor gaitzesten du. Ez gara ixilduko! Zenbaitzuren liburuak Magnak babesten badiu ere, Arranbela libreki ari da, langileen eta herritarren zerbitzurat dago eta horri erantzuten dio.

Baztango Ezker Abertzaleak salaketa honen bilakaeraren arabera momentuan momentuko erantzuna emanez jarraituko du.

Adierazpen askatasuna!



### Bota bertsoa

Xabi MAIA (Baztango bertso eskola) • Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

## Nafarroako Bertso Eskolen Besta Elizondon

Nafarroako Bertso Eskolen Bestaren hitza da BOTA ta elkarrekin giro onean egin nahi genuke topa ikasturtea akitu dela jakin gabe azken nota bertso txar aunitz bota ondoren balekorik, ozta-ozta ongi pasatzia, sarea indartuz da urteroko erronka pentsatu bezala bota mailak ez baitu inporta bihar hazia loratzekotan erein beharra dago ta erreinu za(h)rran errotu dadin bertsoaren errebolta.

Ekainak 2an, konpetentzia daukagu *The Boss* berbera kontraprograma da Elizondon eguerdi parte aldera bisitarietara egin ondotik merezitako harrera triki poteo berezi batez izanen du hasiera bertso elebre, txou modukoa 'Komunetik Komunera' eta gero bazkaltzera postre luzeaz gainera bertso besta bat aitzaki hartuz plan hoberik ba ote da? aukera izanda, ez etortzean ongi damutuko zera.

**inprenta lanak egiten ditugu**  
idelatik hasi eta etxean izan arte

<p>1.000 ale → 85€ Eskatzen: 1.000, 200 € ... BEZ barne</p>	<p>8.000 ale → 160€ Eskatzen: 1.000, 200 € ... BEZ barne</p>
<p>1.000 A4 → 86€ Eskatzen: 1.000, 200 € ... BEZ barne</p>	<p>1.000 ale → 107€ Eskatzen: 1.000, 200 € ... BEZ barne</p>

Eskatu informazioa:  
**948 63 54 58**  
kulturarai@ttipi.net

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Lehen gauzak azkarago egin nahi izaten nituen eta orain gehiago pentsatzen dut. Alderdi guztietan heldu naiz. Neskalgunarekin bizi naiz Errezilen eta lasaiago nago. Lehen, herrian bizi nintzenean, lagunekin gehiagotan ateratzen nintzen besta egitera. Orain, etorkizuna bertze modu batera ikusten dut (...) Gauzak bertze modu batera ikusteko adina badut [25 urte]».

**Julen SAN MIGEL**  
Doneztebeko erremontista  
D. VASCO, 2012.05.17

«Berako Udalean tradizioz bada ados jartzeko ohitura. Nahiko guttitan izan dugu aurrez aurreko tirabirarik. Gure kasuan, aurrekontuak onartzerakoan oposizioko taldeek ez zituzten babestu. Baina, gainontzeko esparruetan adostasunez jokatzeko modu bat, herriaren alde delako (...) Udala ezagutu nuenetik beti nahiko egoera ekonomiko justuan egon izan da».

**Marisol TABERNA**  
Berako alkatea  
HITZA, 2012.05.18

**11 galdera labur**

**Txirrindulari izateaz aparte, nor dugu Beñat Txoperena?**

Momentu honetan ikasle eta txirrindulari bat. Igantzin hagitx gustora egoten naiz, baita lagunekin ere, eta ez dut gauza gehiagotarako denbora aunitzik.

**Pilotatik mendi bizikletara eta mendibizikletatik errepideko txirrindularitzara. Zeinekin gelditzen zara?**

Errepidekoarekin. Pilotan aspertu edo egin nintzen, eta hasieran mendiko bizikletarekin hasi nintzen. Errepidean probatu eta gauzak hobeki joan zirenez, bertan gelditu naiz.

**Txirrindulari on bat izateko sekretua zein da?**

Konstantea izatea. Egunero zaindu eta entrenatzea da kontua.

**Aunitz zaintzen duzu zure burua?**

Saiatzen naiz. Txirrindularitza nahiko exigentea da, hortaz, elikadura eta deskantsua ezinbertzekoak dira.

**Bidasoako Itzulian zer moduz?**

Nahiko ongi. Bigarren eguneko ihesaldi luzeak sailkapen nagusitik kanpo utzi ninduen, baina ez naiz damutzen. Saiatu behar da eta ausarta izan. Pelotoiak harrapatzen bazaitu, zorte txarra. Laugarren egunean, maila nahiko onean egon nintzen, eta kontent bukatu dut.

**Bertze afiziorik baduzu?**

Ez zait deus ere etortzen burura...

**Bizikletan ala ikasten, zeinetan hobekien?**

Momentuz ikasten. Denbora dextente kentzen dit baina beno, ematen du aurten aprobaturako dudala dena.

**Zer du Igantziko bizikletan ibiltzeko hainbertzeko afizioa izateko?**

Ez dakit. Ni attarengatik hasi nintzen. Afizio haundia dago eta hori kutsa daitekeela uste dut.

**Igantziko txokorik politena?**

San Juan Xar.

**Besta on baterako toki bat?**

Galdera zaila. Toki bat errateko Lesaka, baina Igantziko San Migelak sakratuak dira, batez ere bakilen eguna.

**Etorkizunean zer?**

Txirrindularitzan profesionaletan tokia bilatzen saiatuko naiz.

Txirrindularitzako apustua ez bada ongi ateratzen, ingeniari-tza mekanikoa ikasi dudanez, horrekin lotutako zerbaitetan ikusten dut nire burua.



**Beñat TXOPERENA → Igantziko txirrindularia**

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Altzate, 17 BERA

**F. LANCHAS**  
Akupeladorea eta hermitzaria  
Parket eta parket flotatzailerak  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 755 - M: 607 406 791

**XIRRI**  
MOTEL 1 900  
Phone 948 631 088

**KOXKONTA** Jatetxea  
  
2012an ezkontzen diren bikoteendako Promozioa  
T. 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657  
Oñango auzoa, 1 • LESAKA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa  
  
• Kirol Fisioterapia  
• Osteopatia  
• Masaiak  
• Trafiko istripuetan aholkularitza  
• Istripu eta osasun aseguruak  
• METODO BERRIA  
Umeentzako arnas fisioterapia  
Itzea 1, berlea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Calon Pas, 6 - itzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRRAN

**zalain**  
RESTAURANTE  
Zalain auzoa 3/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
W. www.zalain.com

# BERA

KULTURA → MUSIKA ESKOLAKO HELDUEN KOROA

## 'Bera kantari' ekimena paratu du martxan helduen abesbatzak

Estreinako  
ibilbidea joan  
den asteburuan  
egitekoa zuten

### TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako helduen abesbatzak *Bera kantari* ekimena paratu du abian. Lehenbizikoz, maiatzaren 26an ateratzekoak ziren karrakara, betiko kankak abestera.

Lehenbiziko agerraldi honen ondotik, emanaldi gehiago egitea da asmoa. Oraindik maiztasuna erabaki ez duten arren, zehazten joanen dira zenbatero aterako diren kantatzera. Ibilbidea ere aldatzen joanen dira, aldi bakoitzean hiru ostatu aukeratzuz.

Helduen koroak kantatzea eta euren gortak aditzera animatu nahi ditu herritarrek. Egitasmo honekin urte osoan lantzen dutena herritarrei zabaltzea da helburua, eta bidenabar, herria dinamizatzea, betiko kankak berreskuratu eta zabaldu bitartean.

### San Migel zubiko lagunak

Heldu den urtean 200 urte beteko dira San Migel zubiko bataila gertatu zenetik, eta garai hartan, eskualdean bertze ekintza militar batzuk ere izan ziren, herritarrei ondorio larriak eraginez. Gertakari haiek gogoratzeko sortu da San Migel Zubiko Lagunak taldea.

Bataila hura 1813ko irailaren 1ean izan zen. Ingelesen armadako eliteteo erregimentu batek, Daniel Cadoux kapitaina buru zuela, hagitzez soldadu gehiago zituen tropa frantsesei egin zien aurre. Frantsesak ihesi heldu ziren Frantzia alde-ara, San Martzialen garai-tuak izan ondotik, eta zuzia zuten Bidasoa gurutatzeko toki bakarra.

Eskualdean izandako eraginari begira, garrantzitsuagoa izan zen tropen egonaldi luzea, gerra ekintzak azaroa arte luzatu baitziren. Wellingtonen tropa aliatuek (soldadu ingeles, portugese eta espainiarrek) bertako elikagai ia guztiak erreki-satu zituzten. Ondorioz, gose eta disenteriarekin, Bortzirietan ohi baino 550 lagun gehiago hil ziren.

San Migel Zubiko Lagunak Taldeak uste du gertakari haiek «nahitaez» ekarri behar direla gogorra, gerrek zeharka populazio zibilarren gainean nolako eragina duten erakusteko. Dagoeneko, boluntario batzuk hasiak dira zubia konpontzen eta 2013an ekitaldi batzuk egin nahi dituzte. Udalaren eta inguruko bertze erakunde batzuen laguntza badute, baina edozeinek boluntario gisa parte hartzen ahal duela adierazi dute, izan herritar edo ez.

Informazio gehiagorako: [sanmiguelzubikolagunak.blogspot.com](mailto:sanmiguelzubikolagunak.blogspot.com) eta [sanmiguelzubikolagunak@gmail.com](mailto:sanmiguelzubikolagunak@gmail.com).



UTZITAKO ARGAZKIA

### Euskal preso eta iheslarien alde plazara

Herri kirolak, poteo girotua, dantzariak, Amaia Zubiria kantuan, bertsolariak, Herri-rako bi kidek irakurritako idatzia, eta bukatzeko, txistorra, gasna, sagardo eta ardoa dastatzeko aukera. Hainbat eta hainbat herritar izan ziren horietan parte hartu zutenak maiatzaren 19an, Herrira mugimenduak deitutako Goazen Plazara ekimenaren barne eta euskal presoek eskubideen defentsan.

### Berako Oihua

Bestetako programa-rekin banatuko den Berako Oihua aldizkarirako lanak idazteko epea ekainaren 15ean bukatuko da. Internetez ([kultura@berakoudala.net](mailto:kultura@berakoudala.net) edo [kultura.bera@gmail.com](mailto:kultura.bera@gmail.com)) bidal daiteke, edo bertze-la, Kultur Etxera eraman.

Aldizkarian jorratzen ahal diren gaiak Berako herriarekin lotura izan behar dute.

### Abesbatzaren eguna

Abesbatzaren 25. urteurrenako besta haundia igandean, ekainak 3, egingen da. 11:00etatik aitzinera, musika taldeak karraketan ibiliko dira eta udal-etxe-ko plazan elkartuko dira 12:15 alde-

ra, talde bakoitzak pieza bat eskaintzeko.

12:45ean ekitaldi nagusia hasiko da. Bi bertsolari ongi-etorria eman ondotik, Abesbatza-koek *Agurra* kantatuko dute Gure Txokoako dantzariak dantzatu bitartean. Hori bukatuta, Abesbatzak segituko du, eta koroko kide ohiek eta jubilatuen abesbatzako-ek ere kantatuko dute.

### Artisautza azoka Ibardinen

Ibardingo merkatari, ostalari eta zerbitzuek artisautza feria antolatu dute lehenbiziko aldiz larunbat eta igande hone-tarako, ekainak 2 eta 3. Bi egunez, 10:00etatik 18:00etara hainbat arti-

sautza produktu eskainiko dira: zilargintza, lar-rugintza, egurgintza, ehungintza... Batzuk Atalaia Bentan eta bertzeak Benta Berrin egonen dira, eta haize haundiko eguna bada, sarrerako aparkalekuan.

### Ikasturte bukaera

Ikasturte bukaera prestatzen ari dira Ricardo Baroja eskolan. Ekainaren 21ean, jaialdi bat antolatu dute, eta 6. mailako ikasleei agurra eman bidenabar, dantza saioa egingen dute. Hori baino lehen, Guraso Elkarteak ekainaren 9an, Irunberri-rra joateko txangoa antolatu du. Han emanen dute eguna eta itzulita-koan afaria egingen dute.

## Lesaka-Bera

# AUTOESKOLA

Eztegara, 12 • BERA      Iturrunzubiko plaza, 8 • LESAKA

948 630 652      948 637 870

ESK AINTZA BEREZIAK

- Gidabaimen guztiak  
 - Gidabaimenaren tuzkantz  
 - iterratzeko aukera  
 - Orian bota BERAn erri



UDALA → BOE MAHAI GAINEAN

# Babes Ofizialeko Etxebizitzak zertan diren galdetu izana harriduraz hartu du alkateak

Alkateak Ezker Abertzalearen oharrari erantzun dio

## TTIPI-TTAPA

«Harriduraz hartu dugu azkeneko TTIPI-TTAPAN Ezker Abertzaleko Udalarari Babes Ofizialeko Etxebizitzak zertan diren galdetu izana. Harriturik edukiagatik, eta hariturik formagatik». Halaxe erantzun diote Ezker Abertzaleari Marisol Taberna alkateak sinatutako idatzi baten bidez. Alkateak dioenez, «batetik, udalbatza talde guztiek osatzen dugulako, eta Hirigintza Batzordean zein Gobernu Batzordean ordezkaritza dugulako hiru taldek: Bildu, Aralar eta EAJK. Bi batzorde horietan lan-tzen ari gara hirigintza arloan jorratu beharreko al-daketak». Batean zein bertzean azken urtean ez dela «liskarrik eta ezta-baida gordinik» izan gaineratu du Tabernak, «eta kontsentsuzko bidea nagusitu dela bileretan». Hala, «denek proposamenak egiteko aukera izanda ere, harrigarria egiten zaigu, orain arte agertu ez diren kezkek komunikabideen bidez egitea».

Agerra eta Kaxerna inguruak hartzen dituen S12 eremuaren aldaketa orain dela urtebete inguru eten zenean, «merkataritzaren inguruko azterke-

ta egin arte aldaketarik ez egitea erabaki zela» oroitarazi du oharrean. Prozesu hori urtarilean eta otsailean egin zen, eta alkateak azaldu duenez, «herritar orok izan du aukera bertan parte hartzeko, eta 34 herritarrek eman dute iritzia, tartean dendariak, bezeroak eta hautetsiak aritu gara, baita Bilduko bi zinegotzi ere». Azken hauen inguruan erran du, «azkenaldian aditu dugu haien ahotik parte hartzeko prozesu honek ez duela balio, eta ausartu dira erratera herritarrek nahi dutena ez dela islatu prozesu horretan». Kritika horiei «Beran hainbertze jende inplikatu duen partehartze prozesurik ez dugula ezagutu» erranez erantzun dio alkateak. Bere hitzetan, jardunaldi horietan «argi gelditu da bertako dendak bultzatzea eta dinamizatzea delan lan du beharreko estrategia, eta aberastasuna bertan sortzea».

Horrez gain, salatu du, «merkataritza azpiegitura handiak bazterteaz planteatzen denean atara duela Ezker Abertzaleak etxebizitzaren ezta-baida komunikabideetara». Suhiltzaileen inguruko S2 eremuaz, berriz, aipatu du, «lurjabe batek auzitara eraman duela Udala, eta hau argitu bitartean, ezin dugu aitzinera egin». Bertalalde, S12 eremua-



ARGAZKIA: SAN JOSE ZAHAR ETXEA

## Zahar Etxekoak Loiolako basilikan

Maiatzaren 13an San Jose zahar etxetik arratsalde alternatibo bat pasatzeko asmoz, Loiolako San Inazio basilikan egin zuten irteera, eta ondotik, Gipuzkoako kostaldeaz gozatu zuten. Lau boluntariok eta bertze zortzi lagunek parte hartu zuten ateraldian eta horretarako, Aspaceren bi furgoneta erabili zituzten. Zahar Etxetik adierazi dutenez, «ezin zalantzan jarri primeran pasatu genuela».



ARGAZKIA: JESUSEN BIHOTZA IKASTETXEA

## Bide hezkuntza landu dute Jesusen Bihotza ikastetxeko ikasleek

Jesusen Bihotza ikastetxeko ikasleek trafikoan segurtasunez moldatzeko oinarrizko aholkuak ezagutzeko aukera izan dute. Oinezkoak direnean arrisku nagusiak zeintzuk diren eta seinaleak identifikatzen ikasi dute; bidaiariak direnean nola eta zergatik erabili behar dituzten nahiz segurtasun uhala nahiz bidai aulki bereziak. Bizikletan karriketan ibiltzen hasten direnean kaskoa erabiltzearen garrantzia, seinaleek eta arauak zer adierazten duten eta zergatik diren beharrezkoak ere ohartarazi zaie. Hau dena Foru Poliziaren bidez landu dute. Ekintza hauek osatuz, Sergio Herrero txirridulari profesional ohiaren hitzaldia ere entzun zuten.

rekin lanean dabiltzala borbortz urte badirela adierazi du. «Azkeneko urtean egin dugun lana, merkataritza eredua, eta ondorioz, zein herri eredu nahi dugun hausnartzea, ez zaigu iruditzen denbora alferrik galtzea denik».

Azken 13 urteetan BOErik egin ez izana ezin zaiola egungo Udalarari leporatu ere adierazi du alkateak, «urtebete eskas baitarama lanean, eta horretan Ezker Abertzaleak badu zer errana, bi agintalditan alkatetzan egon baita». Bukatzeko, jaki-

narazi du Hirigintza Batzordean konpromiso argia hartu dutela epe motzean S12 eremuaren ordenazioarekin bukatu eta betirako onartzeko».

## Kontseilariaren bisita

Lourdes Goikoetxea Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Kontseilariak Save-ra, Parklex, Martiko eta Ubidea enpresak bisitatu zituen maiatzaren 18an, azken urteotan 23 milioitiki gorainbertitu baitituzte

instalazio berrietan edo produktu berrien ikerketa eta garapenean. Eta horren atzinean, erabile-rala alderdikoia salatu du Udalak. Udalak ez zuen bisita horren berri, ez zitzaion ofizialki komunikatu ez gonbidatu ere, eta aldiz, UPNk duen zinegotzi bakarria bertan zegoela ikusi zuten komunikabideetan eta Gobernuaren webgunean. Jarrera hori deitoratu, eta «kargu publiko alderdiaren propaganda egiteko erabili izana» salatu du Tokiko Gobernu Batzordeak.

# LESAKA

ELKARTEAK → EGUN OSOKO EKITALDIAK

## Beti Gazte elkartearen eguna ospatuko da ekainaren 2an

Nafarroako txirrindularitza itzuliko etapa nagusiaren irteera ere egun horretan izanen da

**Aitor AROTZENA**

Beti Gazte elkartearen eguna ospatuko da ekainaren 2an eta larunbat osorako ekitaldiak antolatuta dituzte. Goizeko 10:30ean hasita, maila ttikienetako eta emakumeen futbol taldeen partidak jokatuko dira Mastegin. 12:30ean ping-pong txapelketaren finala jokatuko da. 14:30ean Nafarroako txirrindularitza itzuliaren etapa nagusia, Lesaka eta Aralarko San Migel santutegiaren artekoa, abiatuko da plazatik, hau ere Beti Gazte antolatua. Arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara, kadete, jubenil eta handien futbol taldeen arteko taldeak osatu eta futbol-7 ligaxka jokatuko da Mastegin. Arratsan afora izanen da Koxkonta jatetxean eta afalondoan, sariak ematen zaizkie taldeetako golegile nagusiei.

### San Fermin elkartearen Erriberara

Ekainaren 8an Zintronikora ateraldia antolatu du Lesakako San Fermin erretiratuen elkarteak. Izen ematea maiatzaren 21etik 31ra zabalik izanen da eta autobusa bete arte hartzen ahal dira txartelak, 30 euroren truke.

Ekainaren 8an, goizeko 07:30ean abiatuko da autobusa Plaza Zaharretik eta bidean gosalduta ondokik, Karella eta Zintroniko bixitatu dituzte eta gero Kadereitan bazkalduko dute. Herri hau ikusi ondokik, bueltatuko dira.

Erriberarako bidaiaz gain, ekain hasieran hainbat ekitaldi antolatu ditu erretiratuen elkarteak. Kartei dagokionez, mus txapelketa ekainaren 4an, seien txapelketa ekainaren 5ean eta despiste txapelketa ekainaren 6an jokatuko dira eta toka, igela eta bolo txapelketak ekainaren 7an, denak 18:00etan hasita egoitza. Txapelketak jokatu ondokik, luntxa eskainiko zaie parte hartzen duten bazkide guzietan.

Mendi taldeak, berriz, ekainaren 24an San



UTZITAKO ARGAZKIA

### Euriari aurre egin zion Goazen Plazara! ekimenak

Herrira mugimenduak Goazen Plazara! ekimen arrakastatsua burutu zuen maiatzaren 19an Euskal Herria osoko kasik 250 plazetan. 30.000 lagun inguruk hartu zuten parte euskal preso politikoen giza eskubideen alde Euskal Herriko plaza ezberdinetan burututako mobilizazio eta ekimen parte hartzaileetan. Herrian ere hainbat lagun bildu ziren plazan euriari aurre eginez. Aurrikusiak zeuden jokuak eta dantzaldiak ez ziren egin, baina *Presoak eta iheslariak herrira!* lelopean elkarretaratu eta argazkia atera zuten.

Juan Xarrera ateraldia antolatu du. Oinez joan direnak 09:00etan abiatuko dira egoitzatik eta ohiko lekuan hartuko dute hameketakoa. Autobusez, berriz, 11:00etan abiatuko dira, San Juan Xarreko mezara joateko eta Arantzako Burladan bazkalduko dute. Txartelak ekainaren 16a baino lehen hartu behar dira, 28 euroren truke.

### Musika Eskolan matrikulazioa

Udal Musika Eskolak 2012-13 ikasturterako matrikulazio epea ekainaren 4tik 15era zabalduko duela jakinarazi du. Matrikulazioak 012 telefonoaren bidez egin behar dira eta informazio gehiagorako, musika eskolako 618 264659 telefonora deitu behar da.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Igerilekuarekin bat kanpaina hasi da, hotel eta landetxetako turistegi begira

Lesakako igerilekuarekin bat turismo kanpainaren berri eman dute maiatzaren 18an. Kanpaina honekin, Bortzirietako hotel, landetxe eta aterpeekin elkarlana egin nahi du udal igerilekuak eta kanpainarekin bat egiten duten establezimenduetan ostatu hartzen dutenek, prezio bereziak izanen dituzte igerilekura sartzekoan udako egun guzietan eta negu denboraldiko asteburuetan. Xebe Txopereña zinegotziak, bat egin duen Bereau hoteleko Paki Ibarburuk eta Ana Pikabea igerilekuko ardurdunak eman zuten ekimenaren berri.







★ **HASIERA: 2012-07-02** ★

# ACORN LANGUAGES

En trinkoekin eta ingeles-udalekuetan hastekoak gara!

Helduentzako eta gazteentzako ikastaroak:  
2 ordu astelehenetik ortziralera  
Hizkuntzak: ingelesa eta frantsesa  
2 eta 4 asteko ikastaroak egiteko aukera

Eta **TTIKIEN TZAT**

## INGELES-UDALEKUAK

LONDRESEKO OLINPIAR  
JOKOAK LESAKARA  
ALEGATU DIRA



Ingelesa + Jarduerak

4 ordu egunean astelehenetik ortziralera

ingeleseko 2 eskola-ordu + 2 jarduera-ordu: futbola, igerilekua, antzerkia, ipuinak, ...

(Sanferminetan eskola itxita egonen da eta eskola horiek erreperatu egiten dira)



**acorn**  
Quality Language Learning

Koskontako bidea, 11, behea LESAKA  
948 637 135 [info@acornlanguages.com](mailto:info@acornlanguages.com)  
[www.acornlanguages.com](http://www.acornlanguages.com)

# ETXALAR

OSPAKIZUNAK → ALTXATA ELKARTEAREN ESKUTIK

## XX. Gasna Feria Eguna ospatuko da igande honetan

Hainbat ekitaldi izanen dira egun guzian

### TTIPI-TTAPA/Irune eta Itsaso

Igande honetan, ekainak 3, eginen da XX. gasna eta artisau feria. Goizean, 11:00 baino lehen aurkeztu beharko dituzte Bortzirriak, Baztan eta Malerrekako gasnagileek euren gasnak frontoira eta trukean, 12 euro hartuko dituzte. Etorriko diren 16 artisauek 10:00etarako produktuak ikusgai jarriko dituzte.

Azken urteetan bezala, Altxatak opilak salgai jarriko ditu. 12:30ean herriko haur eta gazte txoek trikiritxa eta perkusio emanaldia eskainiko dute plazan. 13:30 aldera epaimahaik erabakita izanen du zein diren gasnarik onenak eta sari banaketa eginen da. 14:00etan bazkaria izanen da frontoian (txartelak 20 eurotan salgai daude Herriko Ostatuan eta Elutsan).

Bertzalde, 11:00etatik 14:00etara Iriondoko garajea lanabes eta baserriko tresna zaharren erakusketa zabalik egonen da eta goiz osoan Kultur Etxeko goiko aretoan, herriko kisu labeen argazki emanaldia ikusgai izanen da. Ikasturte honetan Iharrian herritarrek egindako margolanen erakusketa ere egonen da. 18:00etan herriko dantzariak eskainiko duten saioak akabera emanen dio XX. Gasna Feria Egunari.

### Udal-aurrekontuen %18 inguru pinuen salmentatik dator

Azkenean uste baino diru gehiagotan saldu ditu Udalak Iarmendi, Iratzako eta Sagartzuko pinuak. Denetara 5.620 m<sup>3</sup> zeuden salgai, 'tronkilloa' barne, eta hasierako prezioa 109.622 eurokoa bazen ere, enkantean 131.761 eurotaraino altxatu zuten prezioa, BEZ gabe. Azkeneko pinu salmenta 2010eko abuztuan egin zen. Orduan Benta Gaina eta Ezkutu Gaineko pinadietatik 4.959 m<sup>3</sup> saldu zituzten 'tronkilloa' barne eta hasieran prezioa 92.677 eurotan jarri bazuten ere, azkenean, 65.565 eurotan saldu zituzten, hasieran pentsatu baino 27.112 euro merkeago. Duela bi urte pinu m<sup>3</sup>koa 13,22 eurotan saldu zen. Aurten, aldiz, 23,44 eurotan. Hala, udal aurrekontuen %18 inguru pinuen salmentatik dator, eta errekurtsio hori da herriak duen diru-sarrerarik handiena.

### Bertsolari filma

Larunbatean, ekainak 2, Euskara Batzordearen eskutik *Bertsolari* filma izanen da ikusgai Kultur Etxean, 20:00etan.

### Kooperatibako junta

Aitzineko TTIPI-TTAPA-n Usoa kooperatibako batzararen berri eman zenean, junta berria oraindik osatu gabea zegoen. Arantxa Zubieta, Jaione Eugi, Jose Angel Goienetxe, Pedro Berrueta eta Jose Luis Yanci



ARGAZKIA: IRATI LUJUA

### Goazen plazara ekitaldia

Maiatzaren 19an, Herrira mugimenduak deitutako Goazen plazara ekimenean 50 lagun inguruk parte hartu zuten. Pintxo jatea eta giro ezin hobea izan ziren, euskal presoen eskubideen alde.



ARGAZKIA: IÑAKI DANBORIENA

### Lurriztederrako bestak

Urtero bezala, aurten ere, Lurriztederrakoek auzoko besta eguna ospatu zuten maiatzaren lehenbiziko igandean. 60 lagun inguru bildu ziren Agerrebereko bordan bazkaltzera, eta ondotik, Gregorio akordeoilariak arratsaldea alaitu zuen.

atera eta Felipe Iparagirre, Kontxi Mikelesto-rena, Xanti Elizagoien eta Esteban Irisarri sartu dira.

### Botila ardo txapelketa

Larraburuak azken igandean botila ardoaren mus txapelketa an-

tolatu du. Zortzi bikote aritu dira eta maiatzaren 20an zuten azken partida. Parte hartzaile guztiek bina botila ardo hartu zituzten eta txapelkunak, Jesus Ansalas eta Jaime Sanzberrok, eta txapeldunordeek, Santiago Mitxeltorena eta Be-

nantxio Elizagoienek, orogarri bana.

### Udaleku irekiak

Udaleku irekiak uztailearen 2tik 27ra izanen dira. Apuntatzeko epea maiatzaren 31ra arte izanen da Euskara Mankomunitatean: 948 634 125.

**USOA**  
Nekazaritza kooperatiba

Bartan egindako perretsuak, bertze markak eta ekologikoak.  
Ongarriak - Bardin tresnak  
Inpektizidak - Edanak - Harak  
Botikak (jerezitatekin)

Etkez ebeko banaketa egiten da Kalefaktzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

**ERREKALDE**  
Plazaren kooperatiba

Plazaren kooperatiba

Tel. eta Faxa: 948 630 259 + EDA

**ERROTAZAR**

harategia

Berrak  
produktuak

Etegiak, 3 - BERA  
Tel/Faxa: 948 630 086



ESKUALDEA → GAINDEGIAREN ARABERA

# Eskualdeko udalerrien erdiek baino gehiagok %20tik gorako zahartze-tasa dute

Senperek du zahartze-tasarik baxuena eta Zugarramurdik eta Eratsunek, aldiz, handiena

## TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko udal-erri bakoitzean dagoen 65 urtetik gorakoen portzentajea neurtu du Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak eta horren ara-

bera, TTIPI-TTAPAK hartzen duen eremuan duden 27 udalerrietatik 15ek %20tik gorako zahartze-tasa dute. Portzentajeei erreparatuz gero, udalerrien %55,6k du %20tik gorako zahartze tasa. Zugarramurdi eta Eratsun dira 65 urtetik gorako biztanle gehien dituztenak, %27tik gorako portzentajearekin. Aldiz, Senpere da tasa baxuena duena, %14,08.

Aipatu, ondoko taulan ageri diren iparraldeko udalerrien datuak

2008koak direla eta Hegoaldekoak 2011-koak.

DATUA

**%27,49**

**ZAHARTZE-TASA** du Zugarramurdik, eskualdeko gainerako 26 udalerrien artean altuena. Eratsun da gibeletik heldu dena, %27,33rekin.

UDALERRIA	URTEA*	DATUA
ZUGARRAMURDI	2011	%27,49
ERATSUN	2011	%27,33
SALDIAS	2011	%25,00
EZKURRA	2011	%24,85
ARANTZA	2011	%24,84
GOIZUETA	2011	%24,64
OIZ	2011	%23,65
URROZ	2011	%23,16
IGANTZI	2011	%22,83
ZUBIETA	2011	%22,83
ARESO	2011	%22,50
BAZTAN	2011	%21,80
ARANO	2011	%21,77
SARA	2008	%20,81
SUNBILLA	2011	%20,66
URDAZUBI	2011	%19,59
LESAKA	2011	%18,91
ETXALAR	2011	%18,64
ITUREN	2011	%18,36
AZKAINE	2008	%18,23
ELGORRIAGA	2011	%18,10
LEITZA	2011	%16,83
BERTIZARANA	2011	%16,72
BERA	2011	%16,29
DONEZTEBE	2011	%15,25
DONAMARIA	2011	%14,91
SENPERE	2008	%14,08

**XX. GASNA eta ARTISAUEN FERIA**  
ETXALAR | ekainak 3 | 2012

**10:30**  
Artisauen etakusketa.

**12:15**  
Herriko trikitilariak.

**18:30**  
Gasna lehiaketako sari banaketa

**14:00**  
Herri bazkaria

**18:00**  
Herriko dantzarien saioa.

ALTXATA

HERRIKO

# ARANTZA

HEZKUNTZA → 2012/2013 IKASTURTEA

## Ikasturte bukaerako ateraldi eta kanpaldiak egiten ari dira eskolan

Ortziralean ttikienak Donostiara joanen dira

**Nerea ALTZURI**

Betiko tenorera ailegatu gara. Murrizketaz inguraturiko sasoi honetan, Nafarroako Gobernuak murrizketak iragarri ditu hezkuntzan ere. Gure haurren hezkuntzaren kalitatea arrisikuan paratuko du horrek eta mobilizazioak han eta hemen egiten ari dira.

Hortaz aparte, azken hilabeteotan, ateraldi, txango eta kanpaldiak egiten dira eskolan. Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoak Pasaiako Piraten Etxean bi egunez izan ziren. Ortziralean, berriz, 3 urtekoekin Donostiara txangoa dute.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak Hondarrabian kanpaldia izan dute aste honetan. Eta bigarren ziklokoek ekainaren 13tik 15era Zarautzen kanpaldia dute.

4., 5. eta 6. mailakoak nahiz DBHkoak berriki Altzuzan Oteiza museoa bisitatzen izan dira. Ekainaren 5ean DBHkoak izan ezik gainerakoak Iñigo Arista ekimenean izanen dira.

Azkenik, kurso akaberako irteera izanen da. Ekainaren 22an Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasle eta irakasleak joanen dira. Printzipioz, Etxeberrin dagoen Lacturale behi esnearen interpretazio zentroa bisitatzeko asmoa dute.

### Eliza garbitzeko saria

Urtero bezala, eliza garbitzeko sari gisa ateraldia eta merendua antolatuko dira. Apezak etxe etxe bidalitako gutunean, eliza hain garbi edukitzeko herritarrek egiten duten lana eskertu du eta bidenabar, bidaiaren eta merenduaren berri eman.

Aurten, Gipuzkoako kostaldean ibiliko dira. Ekainaren 13an, Zumaia, Getaria eta Zarautz bisitatu dituzte. Izena emateko epea ortzegunean bukatuko da eta bankuan 23 euroko ordainketa egin behar da. Autobusa eta gidaria parrokiak ordainduko ditu; eta bazkaria eta bisitak norberak.

Bidaiara joan ezin direnentzat berendua ekainaren 11n izanen da Zahar Txokon, 20:00etan. Familiako lagun bat joan daiteke eta 948 634030-ra deituz eman behar da izena ortzegunerako.



ARGAZKIA: ARANTZAKO ESKOLA

4 eta 5 urteko ikasleak Pasaiako Piraten Etxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Asteburu euritsuari aurre eginez

Herrirak antolaturiko Goazen plazara ekimenak milaka lagun bildu zituen Euskal Herriko herri guzietan maiatzaren 19an. Eguraldi bustia eta kaxkarra izanagatik ere, aterpea bilatu zuten eta herrian ere, iragarritako ekitaldi guztiak arrakastaz egin ziren. Bertzalde, biharamunean egindako seigarren mendi itzulia ere euritsua izan zen, baina 207 lagunek parte hartu zuten. Horrelako ekimen bat ilusioz prestatzen da. Eguraldiaren kontra, ordea, ezin deus ere egin. Hala ere, ibili zirenek antolakuntza zoriondu zuten, eta bidenabar, Ekaitza Elkarrekin, modu batean nola bertzean egun hau antolatzen lagundu dutenak eskertu nahi ditu. Animo eta hurrengoa 2014an izanen da!

**FRUTAK**  
FRUTAK  
**FRUTAK**  
FRUTAK

**BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152**  
**Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA**

**BERA**  
Zere ingurera klase guzietako txoketuz (xoxorra, zinoarra, ermirra, kakao...) eta arrotzi sagetaz garbitu ahal baduzu, daite! Termite eta Pipien tratamenduz!

**GOREKO** - Industria Garbituak Produktuak  
Tel: 948 635 587 • Zabalburua, 40 A • BERA

**PPSOE,**  
**Euskal**  
**Telebista**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

**Berrira eroski taldea**



HEZKUNTZA → EKIMEN BERRITZAILEA

## Sormen margoketa saioak antolatu dituzte eskolan herritar guztientzat

Larunbat honetan doako margoketa saioak eskainiko dira

### Joxean ORTEGA

Ikasturtea amaitzear den honetan, eskolatik proposamen interesgarria egin diete familiei eta orokorrean, herritar guztiei. Eskolako haurrek Felix Ligosekin sormen margoketa klaseak hartzen dituzte eta Marina Pintosekin yoga klaseak. Bada, bide horretatik doa herritar guztien partehartzea bilatu nahi duen ekimena.

Ortziral honetan, ekainak 1, 19:00etatik 20:30era Felixek egingako lanari buruzko azalpenak emanen dizkie gurasoei eskolan. Etaharamunean, ekainak 2, doako margoketa saioak eskainiko dizkie guraso, herritar

eta ikasleei. Eskolako neska-mutikoei klaseetan egin duten bezala margotu ahal izanen dute larunbatean bilduko diren herritarrek. Ordu-tegian aukera hauek izanen dira: 09:30etik 10:30era, 11:00etatik 12:00etara eta 12:30etik 13:30era. Honetan parte hartzeko eskolan izena eman behar da asteazken hau, maiatzak 30, baino lehen.

Egun berean, 17:00etatik 19:00etara, Baratzondon ikasleen lanekin egindako erakusketa izanen da ikusgai eta 18:00etan berendua eginen da, Guraso Elkartek antolatuta.

Bertzalde, Marina Pintosekin antzeko zerbitu egin nahi dute eskolakoek lagunek: gurasoentzat bi orduko yoga saioa eskainiko dute. Honetan parte hartzeko ere, aitzinetik eman beharko da izena.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### Goazen Plazara!

Herrira mugimenduak deituta, hainbat herritar atera ziren kalera maiatzaren 19an, presoek eskubideen aldeko Goazen Plazara ekimenarekin bat eginez.



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

### Evan Descalzo saritua

6.mailako Evan Descalzo Alcuazek, aurtengo Resurrección M<sup>a</sup> Azkue Literatur Sarietan 3. saria jaso du, *Mitxelen misterioa* lanarekin. Euskaltzaindiak banatzen ditu sariak, eta kasu honetan, maiatzaren 22an zuten Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

**BIDASOA**  
 BUDALAN - PERDUNAN  
 ESTREAN - AURERAZKORAKA  
 BERRITZEN - BERRITZEN  
 T/F: 850 971 442  
 BERA

**ZUBIONDO**  
 Jatetxea  
 Agardutegia Jatetxea  
 Alanta karrika  
 BERA NAFARROA

**HERNANDE TELEFONA**  
**HC**  
**ERAIKUNTZA LANAK**  
**OIROKORREAN**  
 Zeharbertsuan  
 sukak, komak...  
 Akatzenak  
 terrazak, garajeak...  
**HC** BERA (Nafarroa)  
 870 064 744  
 948 630 554  
 albertelefona@gmail.com

**LABE ZAR**  
 Tel: 948 631 076 - BERA

**Javier Manterola**  
 Tekniko instalazioak  
 Ilargintza - gasu  
 kalifikazioak  
 Tfnoa: 629449602 - BERA

**carroba**  
 goma-erregina  
 Of. de envergadura: 20.000  
 24.000 berriztatzen  
 1994ko azaraz  
 www.carroba.net

**LEGARRA**  
 egunkariak | aldizkariak | liburak | oparirik | bibakoa  
 Egunero irekia: 08:30-13:00  
 T/F: 948 63 70 30 - Albistur, 9 - LESAKA  
 lesaka@legarra.com

## GIZARTEA

HEZIKETA → AEB-ETATIK DATORREN 'BABY SIGN' METODOA

# Haurrak solasean hasi aitzinetik eurekin nola komunikatu zeinu bidez

Gurasoak umearekin komunikatzeko 120 zeinu bildu ditu AEBetatik datorren metodo honek

## TTIPI-TTAPA

Haurrek ez dute ahots aparatua garatua, eta hasierako hilabeteetan ez dira solasteko gai. Aldiz, besoak mugitzeko eta keinuak egiteko gai badira eta bide horretatik doa AEBetako *Baby Sign* metodoa, duela gutti Euskal Herrira ailegatu den haurren zeinu hizkuntza. Umeak solasten hasi aitzinetik gurasoak umearekin komunikatzeko aukera ematen du metodo honek.

Duela sei hilabete hasi ziren metodo hau lantzen Nafarroan, eta Mentxu Isturiz aizaroztarra da guraso taldeei ikastaroak ematen dizkiena. Berak azaldu dizkigu ingelesez *Baby Sign* eta gazteleraz *Cin-codeditos* deitua den metodo honen nondik norakoak. «umeak hitz egiteko ahalmena izan baino lehen, gurasoekin komunikatzeko bidea ematen du metodo honek. Umearen ahots aparatua guztiz osatua egon arte, 18-24 hilabete artean erabil dezaketzen zubia da. Naturalki umeek zeinuak egiten dituzte (apatx egin, agur erran...) eta metodo honekin haurrari bere nahiak azaltzeko erre-



ARGAZKIA: MENTXU ISTURIZ

Gurasoak umeekin komunikatzeko zeinuak ikasten.

minta gehiago ematen dizkiogu».

Ameriketako Estatu Batuetan jaio zen metodo hau. Gorren hizkuntza abiapuntutzat hartuta, umeentzako moldatutako zeinuak dira. 70. hamarkadan hasi ziren metodo hau erabiltzen eta Isturizek azaldu digunez, «ikerketak ere egin ziren. Metodoaren onura guztiak frogatu ondotik, segituan Europara zabaldu zen».

Erran digunez, «zeinuen hizkuntza 6. eta 9. hilabetean irakasten has daiteke. Lehenagotik ere bai, eta horrela helduak ere ohitura hartuko du, gehienetan hori izaten baita zailena. 24 eta 30. hilabetean beren lehenengo hitzak hasten dira eta umeak naturalki uzten dituzte zeinuak, hitzari bidea utzi». Bitartean, ordea, umearekin komunikatzeko 120 zeinu erakusten ditu metodo honek, haurren egunerokoa erabiltzen direnak, umeak jan nahi duela

### ALDE ONAK

«Metodo honek onura asko ditu, baina zure umeak zer nahi duen azaltzeko ematen duen lasaitasuna da onurarik onena»

### NOIZ HASI

«Zeinuen hizkuntza 6. eta 9. hilabetean irakasten has daiteke. Lehenagotik ere bai, eta horrela helduak ere ohitura hartuko du, gehienetan hori izaten baita zailena.»

### Mentxu ISTURIZ

Zeinu hizkuntzaren irakaslea

edo edan, gehiago edo bapo dagoela adierazteko zeinuak, hain zuzen.

### KOMUNIKAZIO ARAZOAK 'ARINTZEKO'

Umeei zeinu hizkuntzaren bidea emateak haurraren komunikazio arazoak «arintzen» dituelakoan dago Isturiz: «umeak 6 eta 9 hilabe-

ten, baina gehienetan edo etxetik kanpo zaila da umeak buruan duena jakitea».

Metodoaren onurak ikusita, praktikan paratzera animatzeko deia luzatu die Isturizek gurasoei: «umearekin harremana estutzen baita eta gure umeen trebetasunak eta garapena lantzen lagunduko dugu. Eta garrantzitsuenak, gure umeekin ongi pasatuko dugula».

### IKASTAROAK

Ikastaroa hartzeko prest dagoena Isturizekin jar daiteke harremanetan, 676 561705 telefonora deituz edo *cinco deditos.navarra@gmail.com* helbidera idatziz. Bloga ere badu: *signos bebesnavarra.blogspot.com*.

Ikastaroa 0 eta 25 hilabete arteko gurasoentzako bideratua dago, baita haurdun daudentzako ere. Informazioaz gain, 120 zeinuak irudiekin azaltzen diren liburuxka ere banatu ohi dute.





GIZARTEA → 2-7 URTEKO HAURRENDAKO

## Ortziral honetan akituko da udako ludotekan apuntatzeko epea

Natalia Arretxea izanen da ludotekako hezitzailea

### Maider PETRIRENA

Ludoteka martxan paratu ala ez jakiteko, Guraso Elkarteak eskolako ikasleen artean banatutako inkestak eta herriko ostatu nola dendetan jarritako zerrendak aztertu dituzte gurasoek zenbat hezitzaile hartu behar dituzten ikusteko. Izen-ematea ez da sobera arrakastatsua izan, eta oraingoaz, izena eman zuten lau hezitzaileetatik bakarra hartu dute: Natalia Arretxea izanen da aurten ludoteka zerbitzuan lan eginen duen hezitzailea.

Nataliak ohar txo bat jarri du Okinenea dendan, Maria Jesus harategian eta bi eskoletan gurasoak beraien seme-alabak ludotekan parte hartzeko apunta ditzaten animatuz, hagitzen ongi pasako dutelakoan. Apuntatzeko epea ortziral honetan, ekainak 1, akituko da eta zerrendan edo Nataliari berari deituta (647 143456) eman daiteke izena.

ten animatuz, hagitzen ongi pasako dutelakoan. Apuntatzeko epea ortziral honetan, ekainak 1, akituko da eta zerrendan edo Nataliari berari deituta (647 143456) eman daiteke izena.

### Ternida Eguna

Ailegatu da Ternida Eguna. Igande honetan, ekainak 3, ospatuko da Mendaur kaxkoko besta eta Ulibeltzak Mendi Taldeak harat joateko irteera antolatuta du.

### Apezak Euskaltzaindiari

Basilio Sarobe apezak liburu dohaintza garrantzitsua egin dio Euskaltzaindiari berriki. Ez da lehenbiziko aldia, lehenago ere XX. mende hasierako bi euskal libururen oparia egin baitzion Euskaltzaindiari, baina azken hilabeteetan, bi multzotan, garrantzi historiko handiagoa duten dokumentuak eman dizkio Euskaltzaindiari.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Sendotza

Maiatzaren 12an herriko hamabi gaztek Sendotza egin zuten eta ondotik, Ariztigailan kanpinean afaria. Argazkian ageri dira eguneko protagonistak: goiko lerroan ezkerretik hasita, Eneko Herrera, Ainara Antuña, Ana Petrirena, Lorea Martiarena, Naroa Gago, Bidane Madariaga eta Irati Agesta. Beheko lerroan ezkerretik eskuinera: Iker Espelosin, Unai Bereau, Julen Juankorena, Jon Aranbillet eta Liherr Lastiri.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Jaunartzea

Bortz gaztetxo hauek Jaunartzea egin zuten maiatzaren 13an. Ezkerretik eskuinera Larraitz Gomez Coelho, Koldo Herrera Urroz, Lorena Mariñelarena Altzuri, Ekaitz Bertiz Apezetxea eta Garazi Etxalar Zugarramurdi ageri dira.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Ikasturte bukaerako irteerak

Ikasturtea akitzean dagoen honetan, eskolako haurrek hainbat irteera egin dituzte. Maiatzaren 14an Haur Hezkuntzako 2. mailatik Lehen Hezkuntzako 4. mailara bi-tartekoak Hondarribiara joan ziren. Zorte handia izan zuten eguraldiarekin eta ederki aprobetxatu omen zuten hondartzara joateko. Portuan ere ibili ziren antxoaren arrantzaleak ikusteko. Bertzalde, maiatzaren 14tik 20ra 5. eta 6. mailako hamar ikasleek Eskola Ibiltariak deitzen den proiektuarekin bidaia polita egin dute Almeriara. Eta ikasle hauek aste hau Iruberrin pasako dute ingeleseko kanpaldi batean.

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zailtzaz **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euzkadi Herri 30€
- Europa 30€
- Baxeri, Underuki eta Maineria 32€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipe Euzkadi Herri 30€
- Galtza 10€

(0034) 948 63 54 58  
www.ttipi.net

# DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → ERREKA ELKARTEAREN BESTA

## 'Final Four' antolatu dute ekainaren 9an eginen den Errekaren Egunerako

Herri afarian apuntatzeko azken eguna ekainaren 6a da

### TTIPI-TTAPA

Gero eta guttiago gelditzen da Erreka Kirol Elkartearen egun haundirako. Ekainaren 9a, larunbata, egin dute hitzordua, baina bezperan ere izanen dira ekitaldiak.

### EKAINAK 8, ORTZIRALA

- 20:00etan *Maroko-Atlas* proiektzioa Leku Ederzineman, Josu Juanena eta Iñigo Mangado herritarren eskutik.
- 22:00etan Santa Luzia Plazan Mus Txapelketa eta aurtengo berrikuntza 1 Formularen simulatzaile ikusgarria.

### EKAINAK 9, LARUNBATA

- 09:30etik aitzinera kiroldegian: Errekako alebin mutilak eta neskek.
- 10:30ean infantil neskek: Erreka eta Baztango taldearen lehia.
- 11:30ean infantil mutilak.
- 12:00ean judo eskolako erakustaldia.
- 16:00etan Errekako kadeteen partida.
- 17:30ean *Final Four*-a. Lau talde izanen dira eta bi finalerdi jokatu dira. Ondotik 3. eta 4. posturako lehia eta finala. 15 minutuko partidak izanen dira. Lehenbiziko finalerdian 88ko kinta eta Errekako jokalaria ohia ariko dira. Biga-

rren finalerdian Errekako oraingo taldea eta Izarren taldearen txanda izanen da, azken hau, San Antonio, Anaitasuna eta Galizia aldetik etorritako jokalariekin osatua, bertze taldeetatik urtero etortzen diren jokalariekin batera.

- Partiden artean Errekako dantzarien saioa.
- 21:00etan herri afaria Santa Luzia Plazan. Apuntatzeko Titi Ostatura joan behar da ekainaren 6a baino lehen.
- Gauean gaupasa DJ-Luismirekin.

### Ikasleen kontzertua

Aurten ere, Lekaroz eta Doneztebeko institutuak ikasleak musika arloan ikasturtean landutakoa jendarean eskaintzeko elkartu egin dira. Maiatzaren 25ean Lekarozen eskaini zuten kontzertua eta asteazken honetan, hilak 30, Doneztebeko pilotalekuan egingen dute, 17:00etan.

### Arrantza jardunaldiak

Nafarroako Gobernuaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren Gevert lankidetzaren proiektuaren barne, Arrantza Jasangarriaren Jardunaldiak egingen dira larunbatean, ekainak 2. 10:00etan emanen zaie hasiera, arrantza tekniken ikastarorako izena emateko epeazabalduz. 10:30ean *Nafarroako Pirinioa, ametsetako arrantza* dokumentala aurkez-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Elkarretaratzeak murrizketen kontra

San Migel eskolan eta Mendaur instituan murrizketak direla eta, elkarretaratzeak egingen hasi dira. Egutegi egiteko asmoa dute, 08:45etik 09:00etara eta irakasle, guraso eta ikasleek parte har dezakete. Bertzalde, murrizketek honela eragingen dute eskolan. Hiru urtekoetan orain arte bezala 25 ikasle izanen dira taldeko, lau urtekoetan 26 ikasle taldeko (gaur egun 25) eta 5 urtekoetan 27 ikasle taldeko (gaur egun 25). Lehen Hezkuntzan 27 ikasle izanen dira taldeko (gaur egun 25). Hala, hurrengo ikasturtean bi gela guttiago izanen dira eta 26 ikasle osaturiko bi gela izanen dira. Gisa berean, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen lanorduetan 23tik 25era pasako dira eta «honela, zaintza orduak, batzordeetako orduak, ikasle eta gurasoen tutoretza orduak, irakasleen formakuntza orduak eta koordinaziorako orduak nabarmen murriztuko direla» salatu dute eskolakoek. Hauetako batzuk desager daitezkeela ere gaineratu dute eta hezkuntza «kalitatea guttutuko dela». Ordezkapenak hamar lanegun pasata beteko dira eta adierazi dutenez, «ondorioz, irakasle batek baja hartzen badu, bi geletako ikasleak elkartu beharko dira, zaintza ordu faltagatik». Irakasle guttiago izanen dira, irakasle batzuk langabezia utziz.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

### Denboraldi ona futbol taldeentzat

Futbol taldeek denboraldia akitu da dagoeneko. Mutiletan, jubenilak liga erregularran beren taldeko lehenengo postua lortu dute eta kadeteak bigarren izan dira. Bai jubenilak eta bai kadeteak ere beraien ligako igoera fasea jokatu dute. Jubenilak ezin izan zuten kategoriaz igotzea lortu. Kadeteak ere kanpoan gelditu ziren, azken minutuan bere ate barruan gola sartuta. Hala ere, pozik egoteko moduko denboraldia egin dute. Gainontzeko kategorietan ere lan bikaina egin dute.

tuko dute. 10:30etik 13:30era *Arrantza jasangarria Nafarroa Garaian* erakusketa ikusgai egingen da. Aldi berean, 10:30etik 12:15era arran-

tza eskola martxan egingo da, arrantzatze teknika erakutsiz. 10:30etik 12:00etara euliak egiteko moduen erakusketa egingen da.

12:15ean aipatutako dokumentala ikusgai izanen da berriz. 12:30ean *Lances que cogen truchas* hitzaldia eskainiko du Karlos Azpilikuetak.





## ARGALTZEKO TRATAMENDU IRAULTZAILEA DONEZTEBEKO AMAYA ESTETIKA ZENTROAN

**Amaya Estetika Zentroan** beti merkatuko produktu eta zerbitzurik hoberenak eskaintzeko saiakera egin dute eta orain argaltzeko tratamendu iraultzailea ekarri dute: ARGALTZEKO LASER LIPOLITIKOA (LLA). Probatu dutenek, lehendabiziko egunetik emaitza bikainak lortu dituzte.

### ESTETIKA... ETA OSASUNA

Argaltzeak ez du itxurarekin bakarrik zerikusia. **Gehiegizko pisuak eta gizentasunak kalteak eragin ditzake gure osasunean.** Zorionez, LLA tratamenduarekin, inolako esfortzurik gabe modu azkar eta eraginkorrean argaltzeko aukera daukagu. Saio bakoitzean emaitza azkarrak lortzen dira, segurtasun osoarekin. Teknika berri honekin, saio bakoitzean eta oinazetik gabe, zentimetro batzuk galduko dituzu.

Astean behin 10 minutuko sesioa egiten da eta beste edozein tratamendurekin lortu ez dituzun emaitzak lortuko dituzu. Zonalde espezifiko batean ere bolumena galdu daiteke sistema honekin.



### ARGALTZE PLAN BERRIA

Emaitzak hobetzeko, LLa bere tratamenduari argaltzeko plan berri bat gehitu dio. Plan honekin **denetarik jatea posible da** (baita txokolatea ere), horrela beste dietek sortzen duten frustrazioa ekidituz.



Plan hau Pascal Weigel irakasle suitzarrak garatu du. Honen arabera gehiegizko pisuak modu desberdinean eragiten dio pertsona bakoitzari eta horregatik beharrezkoa da plan pertsonalizatuak egitea. Sistema hau LLaarekin konbinatuz, emaitza

onak lortzen dira, bakoitzaren elikatzeko ohiturak berrikasiz betirako pisu ideala lortuko da.

Lehenengo pausua *bioimpedancia* (BIM) delako makinarekin egiten da. Bakoitzaren osasun eta ohituren azterketa baten bitartez, bezeroaren morfologia erakutsiko digu eta honi egokitutako soluzioa emanango digu. Azterketa honen gorputzeko ura, muskulu eta grasaren estimazio zuzena ematen du. Elikatzeko ohituren inguruko galderari emandako erantzunekin osatuko da beharrezko informazioa eta, horrela, bezeroaren kasu partikularrari egokitutako tratamendua lortzen da. Proba hau *Amaya estetika zentroan* doan eta konpromisorik gabe egingo dizute.

**LLaK sufrimendurik gabe eta jatea gustatzen zaigunari uko egin gabe argaltzeko modu berria ematen digu.**

Behin bakoitzaren ezaugarriak aztertuta, LLa eta argaltzeko plana konbinatuz, tratamendua hasiko da. Konbinazio honekin tratamenduen eraginkortasuna hobetzen da eta emaitzak azkarrago lortzen dira.

Gainera, pisu egokia betirako mantentzeko aukera erreala eskaintzen digu. **Eta zuk, erabaki duzu?**



**Amaya Picabea**  
CENTRO DE ESTETICO E IMAGEN

ILE-APAINDEGIAN

**KRISTAREN KONTRAKO**

**PREZIOAK**

Asteazkenak - HAURREN EGUNA

**2 x 1**



**ESTETIKA:** Aurregi eta gorputz tratamenduak - Procebrapila - Medikuntzako treserak.  
Medikuntzako estetikoak kontsultak - Makilapea - Manikura eta pedicura - Solasari lasterketa

**ILE-APAINDEGIA:** Ile-tratamenduak - Androgeluztako urazkara biltzak

**LORRIBIDEGIA:** Markak, neptuarenatako leumetatu eta leumetatu 1 OPARIAK: botxoak, zapak, bitzak, osagarriak.

Arenztia **DONEZTEBE** 948 450 163 [centroimagenamaya@hotmail.com](mailto:centroimagenamaya@hotmail.com)

# ELGORRIAGA

LEHIAKETAK → ZORTZI BIKOTE ARITU ZIREN MAIATZAREN 11N

## Agustin San Miguelek eta Bixente Arozenak irabazi dute mus txapelketa

Herriko ordezkari izan dira Zubietan, Malerrekako Egunean

### Mattin LARRALDE

Maiatzaren 11n jokatu zen mus txapelketa eta hor lehen sailkatutako bikotea, Elgorriagako ordezkaria izateko zen larunbateko Malerrekako Egunean. Zortzi bikotek parte hartu zuten, eta lau lehenbizikoek oparia izan zuten. Txapeldunak Agustin San Migel eta Bixente Arozena izan ziren eta bi urdaiazpikoren jabe egin ziren. Bigarrenak, Attono Marizkurrena eta Manolo Ganboa, gazta bana eta beronia ardo botil bana eraman zuten.

Hirugarren sailkatuak, Endika eta Mattin Larralde izan ziren hauek bina botil ardo beronia eskuratu zituzten, eta laugarren postua Edurne Etxeberria eta Gorka Ordaxentzat izan zen. Hauek bertze bi botil ardo Campanas izan zituzten. Beraz, herriko ordezkari Agustin eta Bixente izan ziren Zubietan.

### Jaunartzea

Maiatzaren 13an jaunartzeak izan ziren herrian. Mutiko batek egin zuen lehen jaunartzea: Ander Arozena Otxandorena. Argazkian ageri den bezala, aski pozik zegoen Ander, bere aita eta ama, arreba bixkiak, atautxi Miguel eta lagun batekin. Zorionak Anderri bereziki eta familia guztiari, egun on bat el-

karrekin pasatzeko motibo bat izan baitzen.

ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE Mus txapelketako finalista ageri dira ondoko argazkian eta lehen jaunartzea egin zuen Ander Arozena, familiarekin eta lagun batekin beheitian.



**ANTZAZELAK**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel: 948 631 117 • Fax: 948 631 587  
Irungo errep. 56RA  
www.antzazelak.com  
info@antzazelak.com

Antzinaideak, angeuak, oma antzinaok, leihoak, ateak, orkuak, pisareak, tximiniak, ezpazak, moldurak, zokaloak, harrizak, marmozak

**J. RAMOS**  
zolak akutzilato bari  
barnizatzen dituzte

Sakeletoa: 637 836 023 - LESAKA

**KIROLARAK ZELAK**

ttipi txapelketa

**%5<sub>oko</sub>**  
DESKONTUA

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merki langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratuzako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elkarretasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarriztasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Biltzaia, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713



OSASUNA → KONTSEILARIAREN BISITA PROBEXTUZ

## Osasun arloko murrizketen kontra protesta egin dute alkate eta zinegotziek

Errepidea mozten saiatu ziren batzuk maiatzaren 23an baina foruzainek eta guardia zibilek eragotzi zuten ekintza

### TTIPI-TTAPA

Inguruko zenbait alkate eta zinegotzik osasun arloko murrizketen kontra protesta egin zuten maiatzaren 23an, hain zuzen, Marta Vera Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak murrizketa horien berri emateko Doneztebera egindako bisitaren harira. Errepidea mozten saiatu ziren, baina guardia zibilek eta foruzainek eragotzi zuten ekintza.

Protesta ekintzan zeuden Garbiñe Elizegi Baztango alkatea, Antonio Erregerena Bertizaranako alkatea, Amets Inda Sunbillako alkatea, Mari Jose Bereau Iturengo alkatea eta bertze zinegotziak eta Baztango herri batzuetako alkateak ere bai, herritarrekin batera. Doneztebe sarreran, *Osasuna herritarron esubidea: Murrizketarik ez zioen pankartarekin atera ziren eta osasun kontseilariaren autoa herrira sartu zenean errepidea mozten saiatu ziren, baina foruzai-*

nek eta guardia zibilek eragotzi zuten. «Bakar bakarrik bi minutuz egon nahi genuen, gure aldarrikapena zein den eta ados ez gaudela ikus dezan», zioten udal hautetsiek. Garbiñe Elizegi Baztango alkateak aipatu zuenez, «ordezkapenak egiteko ez dago dirurik, baina bai hogeitaz lagunen kontra halako oldarraldi poliziala egiteko».

Gainera, gero Doneztebeko Herriko Etxean egin zen bileran ezin izan zuten udal ordezkari guztiek parte hartu eta bileratik kanpo gelditu ziren Ituren, Bertizarana, Irurita, Arraioz eta Arizkongo alkateak eta bertze zinegotziak. Hor-taz, Doneztebe, Baztan, Sunbilla eta Zubietako alkateekin bakarrik bildu ziren osasun departamentuko kontseilariak eta bertze ordezkariak, garatzen ari diren erien arretarako eredu berria azaltzeko.

Dena den, maiatzaren 31n bertze bilera batera etorriko omen da osasun kontseilariak eta hartan Bertizarana, Ituren, Etxalar, Bera, Lesaka, Igantzi, Arantza, Urdazubi, Zugarramurdi eta Malerrekako bertze herri batzuetako alkateak gonbidatuak omen daude. Alkateen irudiko, «ez dute nahi denak elkarrekin agertzea eskualdeko osasun arloan ondorio larriak ekar ditzakeen murrizketen kontra».



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Foruzainek eta guardia zibilek ez zuten utzi protesta errepidea moztuz gauzatzen.

## Logis katearekin bat egin dute eskualdeko hiru hotel eta jatetxek

### TTIPI-TTAPA

Gure inguruan ezezaguna baldin bada ere, Frantzia xarma berezia duten 2.600 jatetxe eta hotel sartuak daude Logis katean. Orain, Nafarroan hedatzen hasi da Frantziako kate hau eta eskualdeko hiru hotel eta jatetxe sartu dira: Berako Churrut-Lenkonea, Donamarioko Benta eta Lesakako Atxaspi.

Bertze sektore batzuetan egiten den gisara, Logis katearen baitan dauden jatetxeen kategoria eltzeekin neurtzen da eta hotelen kategoria, tximiniekin. Donamarioko Bentaren kasuan, jatetxea eta hotela eskaintzen ditu eta jatetxeak gehienez lor daitezkeen hiru eltzeak dituen bitartean, hotelak bi tximinia ditu. Lesakako Atxaspik ere bi tximinia ditu. Berako Churrut hotelaren eta Lenko-

nea jatetxearen kasuan, berrikiago sartu da eta kanpoko ikuskaritza baten txostenaren arabera erabakiko da zenbateko kategoria hartzen duen.

Lorea Luzuriaga Donamariako Bentako arduradunak aipatu digunez, «krisi garai honetan, eskaintza dibertsifikatzea eta merkatua irekitzea ongi datorkigu. Frantzia oso zabaldua dago Logis katea, partehartzea eskaini digute eta gisa honetara, bezero frantziarrak erakartzea espero dugu».

Logis katean sartzeko eskatzen diren ezaugarri dagokienez, «gauzak egiterako moduan filosofia bat» bilatzen dela aipatu digu Luzuriagak, «bezeroak zaindu, gure bizitzan eta eskualdean sartuz, gure produktuak ezagutzera emanez...».

udana salazones

948 631 551

Inportaziozko lehen kalitateko bakallu gaztua  
Bakallu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest

Aloraga est. - Barrota, 8 - 23-jardua - LESAKA - Tfnoa: 948 631 551 - Faxa: 948 631 562

## ITUREN

OSPAKIZUNAK → TRINITATE EGUNA

# Trinitate Eguna ospatuko da igandean Mendaurko kaxkoan

Ohiko bazkariak eginen dituzte iturendarrek eta aurtiztarrek

## Arkaitz MINDEGIA

Mendaurko kaxkoan dagoen Trinitate ermitak igande honetan izanen du bere eguna. Bisitari aunitz hartzen ditu urte osoan, baina Trinitate Eguna berezia izaten da. Goizean mezak izanen dira, batzuk gosalduta eta ermitari bueltak ematen ari diren bitartean.

Eguerdi aldean enbaltseetan iturendar eta aurtiztarrek bazkariak antolatuta dituzte, arratsalde guztia dantza eta algara pasatzeko asmoz. Ondotik, herrira jeitsiko dira, ohitura den bezala, betiko geldialdiak eginez. Eguna ederki akitzeko Iturengo plazan musika izanen da.

## Aizkora

Maiatzaren 20an jokatuta zen Urrozen Euskolabel aizkora txapelketako kanporaketa. 23 urte azpikoetan Ander Erasun



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Giro ederra sortzen da urtero Trinitate Egunean enbaltseetan.

aritu zen eta lehenbiziko postua lortu zuen, gainera. Lan guztiak akitzeko 08:16ko denbora behar izan zuen eta bigarrenari 12 segundo atera zizkion. Lehenengo postua lortuta, aizkora txapelketako finalera sailkatu da.

## Murrizketak hezkuntzan

Azkenaldian, hezkuntzan ez dugu berri onik. Murrizketak gora eta behera, ikasleen ratioa haunditu, irakasleei lanordu gehiago... Orduan eta kolpe haundiagoa hezkuntzari. Honen harira,

Pulunpako eskolako irakasleak, Malerreka, Bortzirak eta Baztango eskola ttiketako irakasleekin bilerak ari dira egiten protestak antolatzeko. Hainbat mobilizazio antolatu dituzte eta tartean, ortziraletan Malerrekako eskola ttiketako gurasoekin bilera egitekoa dute Sunbillan sei zuzendariak eta koordinatzaileak.

Bertzalde, Pulunpa eskolako irakasle, ikasle eta gurasoak astelehen, asteazken eta ortziraletan 08:50ean Iturengo plazan hamar minutuko elkarretaratzeak egiten

ari dira eta aste honetan greba eginen dute bertze eskolekin batera, guttieneko zerbitzuak eskainiz. Horrez gain, maiatzaren 25ean, eskolako gela herriko plazara ateratzeko zuten eta klasea plazan eman. Atxikimendua adierazteko sinadura bilketa ere jarriko dute martxan eta eskolan edo herriko komertzioetan sinatzen ahalko da.

Akitzeko, eskutitzak ere bidaliko dituzte Hezkuntza Sailera, Guraso Elkartearen izenean, irakasleen izenean... Aski baita murrizketekin.

## MALERREKA

Gizarte hezitzailea kontratatze deialdia egin du Mankomunitateak

## TTIPI-TTAPA

Gizarte hezitzaile bat lanaldi erdian kontratatze deialdia egin du Malerrekako Mankomunitateak eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Ekainaren 4ra arte izanen da aukera eta interesatuek Mankomunitatean egin beharko dute. Bertzalde, berriki etxer-etxeko zerbitzuko ordezkapenarako lan poltsa deialdia ere egin du eta maiatzaren 28an akitu zen apuntatzeko epea. Eta horrez gain, Donezteben dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzak errentan eman nahi ditu Mankomunitateak. 40 m<sup>2</sup> ingurukoak dira eta ortziral honetarako eman beharko da izena, ekainaren 1a baino lehen. Informazio gehiago nahi duenak Mankomunitatera dei dezake: 948 451746.


  
 %10eko DESKONTUA kopiatu digitalizazioan



**APARAN, S.A.**  
**BUKOLALA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ale arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagunak
- KIT mogleak esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080  
 Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 10EAN

# Bestaberri Egunean gazta lehiaketa antolatu du Udalak aurten ere

Udalak bazkaririk ez egitea erabaki du

egin ohi dute, baina aurten ez egitea erabaki du Udalak, azken aldian jai asko juntatu direlako.

Herritarrei eskainitako berendua, ordea, egingen da. Lehiaketako gaztak aprobeztatuz, arra-

tsaldean berendua izanen da eta ilunabar aldera, musika ere izanen da giroa alaitzeko.

## Urritzako fiesta

Urritzako fiestak ere badu data: ekainaren 16an izanen da. Dagoneko eguna prestatzeko bilerak egiten hasiak dira baina xehetasun gehiago hurrengo aldizkarian emanen dugu.

## Kinto bazkaria

1955ean jaiotakoek kinto bazkaria egin zuten maiatzaren 19an. 15 lagun elkartu ziren eta gustura egon ziren.

## Heriotza

Berriki Donezteben bizi baina sortzez zubietarra zen Bautista Erasun hil da. Herriarekin lotura haundia zuen eta leerro hauen bidez doluminak eman nahi dizkiogu familiari, bereziki Bittori eta Joakin anai-arrebei eta Joxemari eta Estibalitz ilobei. Goian bego.

## Fermin ETXEKOLONEA

Azken urteetan bezala, aurten ere Bestaberri Egunean gazta lehiaketa egitea erabaki du Udalak, eta halaxe egingen da. Ekainaren 10ean izanen da.

Joan den urtean, zortzi izan ziren aurkeztutako gaztak eta horien artean, Elizagaineko Lurdes Elizalderena aukeratu zuen epaimahaiak. Ea hirugarren edizio honetan zenbat gazta aurkezten diren. Udal ordezkariak arduratuko dira gaztak biltzeaz.

Bestaberri egunean, herriaren kontura udal ordezkariak bazkaria



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Jaunartzea

Argazkian ageri diren bost neska gaztetxo hauek Jaunartzea egin zuten maiatzaren 20an. Ezkerretik eskuinera, Naiara Anso, Garazi Santesteban, Bittori Elizalde, Nahia Etxeberria eta Ane Etxeberria ageri dira. Mezan, gainera, Donezteboko abesbatzaren laguntza izan zuten.

# ihes egiteko egokiak

### viana enologikoa

H. Hueso Las Cañas \*\*\*  
Egonaldia eta Gosaria

---

Ardoaregi bat  
bigintzen sartuz  
dago

2 egun  
55€

### lizarra kulturala

H. Tximista \*\*\*\*  
Egonaldia eta Gosaria

---

Lizarrako alde zaharretan biatze  
giltatua sartuz dago

2 egun  
60€

### ihes aldia ultzamara golfean aritzera

H. Mirador de Ulsams \*\*\*\*  
Egonaldia eta Gosaria

---

Green Fee 1 sartuz

2 egun  
65€

Ahora Viajes Iberia es **vibo**

902 108 108 | [viboviajes.com](http://viboviajes.com)

## NARBARTE

OSPAKIZUNAK → HIRU HERRIEN TOPAKETA

# Larunbat honetan egingen da Narbarten Bertizarana Eguna

Aurten herri krosik ez egitea erabaki du antolakuntzak

### Martin BERTIZ

Ailegatu zaigu. Hamaikagarren Bertizarana Eguna gainean daukagu, larunbat honetan, ekainak 2, egingen baita. 2000. urtean eman zitzaion hasiera, bailarako herrietako gazteak elkartu eta lehenbiziko Bertizarana Eguna aitzinera atera zuten. Egun ederra, giro atsegina eta besta polita izaten da. Hamaika urte hauetan bailarako egunaren egitarauak aldatketak izan ditu, adierazgarriena, beharba-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere BKZren eskutik zuhaitz parkean ibiltzeko aukera izanen da.

da, hiru ediziotan krosa izan zela da. Aurten Narbarteri tokatu zaio anfitrioi izatea.

Hauxe izanen da egitaraua:

### GOIZEAN

- 09:00etatik aitzinera, gosaria plazan.
- BKZren eskutik zuhaitz parkean ibiltzeko aukera izanen da. Ho-

rretarako izena eman behar da.

- Leurtzarekin Segway-etan ibiltzeko aukera izanen da.
- Paintballen aritzeko

aukera ere izanen da BKZrekin. Bortz laguneko taldeak izan beharko dute eta pertsonako 10 euro ordainduta.

- Artisauak plazan.

### EGUERDIAN

- Herriko aizkolariak lehia ariko dira plazan.
- Bazkaria.
- Ondotik, Julio Soto eta Iñaki Aleman bertsolariak.

### ARRATSALDEAN

- Musika Santxotena-  
ren eskutik.

### GAUEAN

- Afaria.
- Gero, Agerralde akordeolariarekin dantzaldia goizeko ordu tikiarte.

## LEGASA

GIZARTEA → NAFARROA BIZIRIK-EN ESKUTIK

# Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren inguruan hitzaldia antolatu dute

Gimnasioan izanen da

izanen da ekainaren 7an gimnasioan. Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren harira, Nafarroa Bizirik taldearen solasaldia izanen da eta Patxi Abasolo izanen da hizlaria. 19:30ean hasiko da.

### TTIPI-TTAPA

500 urte, deuseztatu ezin izan duten memoria izenburupean hitzaldia



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Bertizarana Eguna

Larunbat honetan, ekainak 2, Bertizarana Eguna ospatuko dugu. Aurtengoan Narbarte herriari tokatu zaio txanda. Bazkarira apuntatzeko azken eguna maiatzaren 27a izan zen eta dendan eta elkarteetan egin zitezkeen. Aipatu, helduen menuak 25 euro balio dituela eta haurrenak 15 euro. Egitarauaren xehetasunak Narbarte berrietan irakur ditzakezue.



## BEINTZA-LABAIEN

UDALA → HIRIGINTZA

# Udal Hirigintza Plana idazten hasi dira Herriko Etxean

Nafarroako Gobernuak eta Udalak lurralde antolaketarako gai nagusiak zehaztu dituzte

### TTIPI-TTAPA

Udalak eta Nafarroako Gobernuak Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak herriko Udal Hirigintza Plana idazteko lehenbiziko urratsa eman dute, lurraldearen antolaketarako gai nagusiak bi era-kundeen artean adostu eta zehaztu ondotik.

Marie Gomez Sanchez, Etxebizitza eta Lurralde antolaketarako zuzendari nagusiak eta Patxi Otxandorena alkateak maiatzaren 10ean Herriko Etxean sinatutako agirian zehazten dira gai nagusi horiek.

Dokumentu horren arabera, NA-4040 errepideak lotzen dituen bi herrigunek osatzen dute Beintza-Labaien. Ingurumen arloari dagokionez, natur eremu direla aitortutako tokiak lurraldearen antolaketarako osagai garrantzitsuak dira (Belate eta Leurtzako urtegia), baita erabilera publikoko

mendiak (Elluldea, Urraldealdea, Oalegialdea, Larrezabal eta Ameztia Asura) eta Ameztia ibaiaren eta Xakarriturri, Larraitzerreka-Ello eta Zubiñetako erreka-Olatzuko erreken ekosistemak ere.

Hirigintza Planak herriko ondarea zaharberritzearen alde ere egiten du, gaur egungo beharretara egokituz, baina arkitektura eta hemengo ezaugarriak errespetatuz.

Lurzoru ez urbanizagarrien kasuan, aipatu, hainbat lur eremu bereiziko direla babestuak izan daitezten.

AURREKONTUA

251.209

EUROko  
aurrekontua izanen du  
aurten Udalak.

2012ko  
aurrekontua

251.209 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2012rako. Maiatzaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu zen behin betiko onarpena bazuela adieraziz, jendaurreko



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Nafarroako Gobernuak Marie Gomez eta Patxi Otxandorena alkatea maiatzaren 10ean hitzarmena sinatzerakoan.



ARGAZKIAK: BEINTZA-LABAIENGO ESKOLA

### Beintza-Labaien, Saldias, Ituren, Narbarte eta Sunbillako ikasleak Hondarribian

Beintza-Labaien eta Saldiasko ikasleak urtero joaten dira Hondarribira bi egun pasatzera, baina aurten eskola gehiago animatu dira eta elkarrekin ibili dira kanpaldian. Guztira 81 ikasle eta 10 irakasle joan ziren maiatzaren 14 eta 15ean. Astelehen goizean, bakoitzak bere herrian autobusa hartu, eta Hondarribiko Juan Sebastian Elkano aterpetxera abiatu ziren. Aterpetxean maletak utzi eta egun horretan, hainbat ekintza egiteko aukera izan zuten, adibidez, hondartzan ibili, izozkia jan, lagun berriak egin... Gauean lo ere ederki egin zutelaren esan digute eskolakoek. Hurrengo egunean, hondartzan ibili ziren eta 15:15ean etxera bueltatu ziren.

epean ez baitzuen inork alegaziorik aurkeztu.

Aurrekontu horretatik 10.231,05 euro inber-

tsioetara bideratuko dira.

**BEINTZAKO OSTATUA**  
7.948 23 01 14  
ORBELA

**ttipi-ttapa** aldizkaria, etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:  
**www.ttipi.net** (0034) 948 63 54 58

## BAZTAN-BIDASOALDEA

EUSKARA → SOLASLAGUNEN TOPAKETA

# Santurtzin eginen den Mintza Eguna joateko autobusa antolatu dute dohainik

Autobusa ez betetzekotan, taxiz joatea aurreikusi dute

### TTIPI-TTAPA

Joan den urtean Elizondon egin zuten bezala, aurten Euskal Herrian mintzapraktikan ari diren berbalagunak, mintzalagunak, solaslagunak eta gainerakoak Santurtzin elkartuko dira larunbat honetan, ekainak 2. Aipatzekoa da, 3.600 lagunetik goiti direla Euskal Herriko 65 herri eta hiritan Solaslaguna ekimenean parte hartzen dutenak eta horietako batzuk eskualdean biltzen dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

luz Elizondon egin zen Mintza Eguna eta Euskal Herri osoko jende aunitz bildu zen.

Larunbatean, 11:00etan elkartuko dira Santurtziko portuan eta egun osoko egitaraua prestatu dute *Mingai-nak dantzan* lelopean.

Eskualdetik Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziritako Solaslagunendako eta eskualdun guztiendako harat joateko autobusa an-

tolatu dute debalde. 08:00etan abiatuko da Elizondoko autobus geltokitik eta Doneztebe-ko autobus geltokian eta Berako Euskalduna ja-

DATUA

# 3.600

LAGUNETIK GOITI dira Euskal Herrian Solaslaguna ekimenean parte hartzen dutenak.

tetxearen parean geldialdiak eginen ditu. Santurtzitik 20:00etan eginen du buelta. Hala ere, autobuserako jendea apuntatuko ez balitz, taxiz joatea aurreikusia dute.

Bazkarirako txartelak ere salgai egon dira eskualdean, baina maiatzaren 23a akitu zen erosteko epea.

## ESKUALDEA

GIZARTEA → ATXIKIMENDUA

# Babes zibileko sistemarekin akordioa berritu dute suhiltzaile boluntarioen parkeek

### TTIPI-TTAPA

Suhiltzaile boluntarioen parkeek Nafarroako babes zibileko sistemarekin duten atxikimendua berritzeko hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 14an. Sinadura ekitaldian, Roberto Jimenez

Nafarroako Gobernuako presidenteordea eta Presidentzia, Toki Administrazio eta Barne kontseilariarekin batera, Mari Sol Taberna Berako alkatea, Pablo Miranda Goizuetako alkatea, Peio Etxabide Lesakako alka-



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Presidenteordea eta suhiltzaile boluntarioen parkeak dituzten herrietako udal ordezkariak.

tea, Aitor Etxarri Leitza-ko zinegotzia eta Agoitz, Izaba eta Luzaideko alkateak izan ziren.

Gobernuak aurten 120.000 euro bideratu ditu suhiltzaile parke hauek finantzatzeko. Zehazki, Agoitz, Bera, Lei-

tza eta Lesakako udalek 16.500na euro jaso dituzte, Luzaidekoak 17.000 euro, Izabakoak 18.000 euro eta Goizuetakoak 18.500 euro, gastu arruntetik eta material inbertsio ttikiei aurre egiteko. Parke hauek profesiona-

len parkeak dauden herrietatik urruti daude eta horrek larrialdi baten aitzinean erantzuteko denbora luzatuko luke. Iaz, zazpi parkeotan 124 suhiltzaile boluntario aritu ziren eta 485 interbenziotan parte hartu zuten.



HEZKUNTZA → MURRIZKETEN KONTRA

# Ikastetxe publikoetako irakasleak grebara deituak daude ortzegunerako

Sindikatuak deitutako hirugarren greba eguna da

## TTIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuak Hezkuntzan egin nahi dituen murrizketak Nafarroan indarrean paratuko direla iragarria du Nafarroako Gobernuak eta neurri horien kontra mobilizazioak egiten ari dira Nafarroako ikastetxe publikoetako langileak.

Sindikatu gehien-goak hiru greba egun deitu dituzte eta horietan lehenbizikoa maiatzaren 22an egin zuten. Sindikatuen arabera, %75ek baino gehiagok bat egin zuten lehenbiziko greba egunarekin, aldiz, Nafarroako Gobernuak erranzuezez, %48,8koa izan



ARGAZKIA: XABI BALLARENA

Baztango herrietako eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoak pankartarekin joan ziren Iruñeara maiatzaren 22an.

zen. Ikasle eta gurasoek ere babes handia eman zioten irakasleen lanuzteari. Manifestazio jendetsuena Iruñean egin zuten, 12.000 lagunetik goitik parte hartu baitzuten sindikatuen arabera. Eskualdeko ikastetxeetako irakasle, guraso eta ikasleak ere Iruñean izan ziren. Eskualdean, LAB-en arabera, Doneztebe-

ko eskolan grebaren jarraipena %80koa izan zen eta institutuan %85ekoa; Saldiasen %50ekoa eta Bera, Lesaka eta Orozoko eskoletan %100ekoa; Leitzako institutuan %93koa izan zen eta Berakoan %52koa.

ELAren arabera, eskola hauetan egin zen greba Baztanen. Arraiozen hiru irakasletik bik egin

zuten; Elizondoko Lanbide Eskolan 27tik zazpik; San Francisco Jabier eskolan 31tik seik, Erratzun lautik batek; Iruritan 11tik seik, Lekarozko institutuan 64tik 29k, Zigan bitik batek eta Zugarramurdi zazpitik batek.

## PROTESTA GEHIAGO

Maiatzaren 22ko greba egunarekin batera,

29koa eta ortzegun honetakoa, 31, dira hezkuntzako sindikatuek deitutako bertze bi greba egunak. Gisa berean, hilabete honen 24, 25 eta 28an Hezkuntza Sailaren aitzinean elkarretaratzeak egin dituzte, eta eskualdean, ikastetxez ikastetxe protestak egiten ari dira egunero ez bada asteko egun gehienetan.

**GRUPO TANATORIO TALDEA**  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
**948581959 | 948637404**

LEHENDERRI | BERA (SAN ANGE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETEJUI  
DORRIZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

# ARANO

ERLIJIOA → URTEROKO HITZORDUA

## Datorren urtera arte agurtu dute herritarrek San Migel

Goizuetara eta Aranora bi asteburutan etorri da

### Kontxi KLABER

Maiatzaren 20an etorri zen San Migel Aranora. Urtero Goizueta-ekin batera bisitatu izan du herria, baina aurten bi asteburu ezberdinetan etorri da bi herrietara.

Eguerdian, 12:30 inguruan heldu ziren kotoxez, eta herriko sarrean egin zioten harrera euriarekin izutu ez ziren hainbat herritarrek, apaizak eta udaletxeko or-



UTZITAKO ARGAZKIA

San Migelek herriko gurutzeari muxu eman ondoren, elizarako bidea egin zuten bildutakoek.

dezkarri berriek. San Migelek herriko gurutzeari

muxu emanez hasi zen elizarako bidea, garai

batean bezala kanpai joaldiak lagunduta.

### ALDAKETA

Lehen arratsaldetan egiten zen lurren bedeinkazioa, baina aurten elizara sartu aurretik egin da. Hala, ohiko den arratsaldeko agurrik ez zen izan.

Lehen arratsaldetan egiten zen lurren bedeinkazioa, elizara sartu aurretik egin zen eta meza bukatutakoan datorren urtera arte agurtu zuten San Migel herritarrek. Arratsaldean, horrela, ez zen agurrik izan ohikoa den bezala.

## GOIZUETA

GIZARTEA → ATXIKIMENDUA

## Mendi bizikleta zeharkaldia antolatu dute Iskibi kanpinean iganderako

34 eta 25 kilometroko ibilbideak aukeran

### TTIPI-TTAPA

Hirugarren aldiz, mendi bizikleta zeharkaldia antolatu du Iskibi kanpinak. Igandehonetan, ekainak 3, iza-

nen da. Txirrindulariek ibilbide izanen dituzte aukeran, 34 kilometrokoa eta 25ekoa.

Izen-ematea egunean berean egiten ahal izanen da, 09:00etatik 10:00etara hamasei euro ordainduta. Lehengoetik apuntatu nahi izatekotan, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean egin behar da eta ha-



ARGAZKIA: MIREN TERESE UITZI

### Plazara presoeren eskubideen alde

Euskal Herriko beste hainbat herri bezala, Goizuetak ere Herrira mugimenduak deitutako Goazen plazara ekimenarekin bat egin zuen eta euskal presoeren eskubideen alde kalera atera ziren.

mabi euro ordaindu. Ostiral honetan izanen da horretarako azken eguna. Prezio horren bar-

ne, aseguruia ere sartuko da eta proba bukatu ondoren durtzak, luntxa eta oparien zozketak eskai-

niko dira. Kaskoa derrigorrezkoa izanen da. Ibilbidea 10:00etan abiatuko da kanpinetik.



GIZARTEA → MURRIZKETAK HEZKUNTZAN

## Hezkuntzan egin nahi diren murrizketen kontra protestak egiten ari dira eskolan

Grebarekin bat egin dute eta elkarretaratzeak egiten ari dira

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza alorrean ezarri nahi dituen murrizken aurrean desadostasuna erakusteko, mobilizazioak egiten ari dira Andres NARBARTE Xaltoa eskolan.

Sindikatuaren gehien-gehien maiatzaren 22, 29 eta 31rako, ostegun honetarako, deitutako grebarekin bat egin dute eskolako irakasleek, eta horrez gain, asteazkenero, 13:00etan, 15 minutuko elkarretaratzeak egiten ari dira. Eskolako partaide nahiz herritar guztiak gonbidatuak daude mobilizazio hauetan parte hartera.

### UEMA Eguna

Aurten lehenengo aldiz, gure herriak hartuko du Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen festa haundia. 1993az geroztik UEMAko kide da Udala, eta 19 urte beranduago festaren lekukoa hartuko du. *Euskaraz bizi eta ari, herri euskaldunak aitzindari* izan da aukeratuako leloa eta horrekin egun osoko egitaraua prestatu dute. 10:00etatik aurrera hasiko da festa.

UEMA Egunari buruzko xehetasun gehiago aldizkariko 4. eta 5. orrialdean irakurri ahal izanen dituzue. Halere, aipatu, herri bazkaria 18 eurotan izanen dela helduentzat eta 14 urte arteko haurrentzat 12 eurotan. Txartelak Amaia okindegian daude saltgai.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

### Baserritarrek elkarrekin San Isidro Egnean

Urteroko ohiturari eutsiz, maiatzaren 15ean, San Isidro Egunez, baserritarrek afaria egin zuten elkarrekin. 23 lagun inguru bildu ziren Izkina tabernan afaltzeko.



ARGAZKIA: IBAN ESKUDERO

### Gutxigatik baina Umore Onak ez du bigarren mailara igotzea lortu

Maiatzaren 12an jokatu zuten Umore-Onakoek play-offetako finalerdia Tolosan. Nahiz eta kanpoan jokatu, etxean bezala sentitu ziren, 50 lagun inguru joan baitziren herritarrek animatzera. Partida hasi aurretik, opari txiki bat eman nahi izan zioten taldekide baten amona eta Umore-Onaren zale amorratua den Doloresi. Partida oso gogorra izan zen, eta penaltietara ailegatzearekin ere egon ziren. Azkenean, ordea, 5-6 galdu zuten. Galdu bai, baina tristura ez zen hainbesterainokoa izan, denboraldi hasieran jarritako helburua lortu baitzuten play-offetarako sailkatuta. Partida amaieran eskerrak eman nahi izan zizkieten zaleei emandako laguntza eta animoengatik.



ARGAZKIA: PILI APEZETXEA

### 70 lagun errekek garbitzen

Udalak deitutako deialdiari erantzunez, 70 lagun aritu ziren erreka garbitzen maiatzaren 19an, suhiltzaile boluntarioen laguntzarekin. Izandako erantzuna ikusita, Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie parte hartu zuten guztiak.

ZUBIMUXU ATERPEA

HERRIKO PLAZA, 10 • 31754 • GOIZUETA  
T. 687 288 680 • 948 514 322  
zubimuxuaterpea@hotmail.com

# LEITZA

GIZARTEA → EUSKAL HERRIKO III. BILTZARRA

## Historia Biltzarraren mintegi bat eginen da Leitzan

*Gaizkileen muga gaia aztertuko dute herriko saioan*

**JM BARRIOLA**

Euskal Herriko III. Historia Biltzarra eginen da irailaren 7, 8 eta 9an. Iruñean eta hiru herritan antolatzen ari dira: Arrasaten, Azoitzen eta Leitzan. Leitzako gaia *gaizkileen muga* izanen da, hau da, muga honetan izan ziren liskarrak aztertuko dituzte, zergatiak, gertaerak eta abar. Biltzarra Nabarralde kultur erakundeak antolatua da Leitza eta inguruko udalen laguntzarekin.

Biltzar osoan parte hartu nahi duenak Nabarralden eman behar du izena eta Leitzako saiorako ALKE kultur taldeko e-postara zuzendu behar da ([alke@leitzakultura.net](mailto:alke@leitzakultura.net)) edo kultur taldeko kideengana joan. Ostiral honetan, ekainak 1, zabalduko da izena emateko epea eta sarreak agortu arte edo bestela, irailaren 3ra arte egonen da salgai. Biltzar osorako prezioa 60 eurokoa da eta Leitzako saiorako 20 euro.

### Pilota txapelketa

Plazako XX. Binakako Pilota Txapelketako ligaxkaren lehenengo jardunaldia maiatzaren 20an jokatzeko azen, baina eguraldi txarra zela eta, bertan behera utzi zuten aurrerago jokatzeko.

ko. Lehenengo partidan, I. Urkiola-A. Olano eta M. Olano-A. M. Loiarteren kontra ariko dira; bigarren partidan, J. Zeballos-M. Iriarte eta M. Sagastibeltza-I. Gil; hirugarrenean, A. Urkiola-D. Alvarez eta I. Alduntzin-J. Sagastibeltza; laugarrenean, I. Aldaia-U. Olano eta O. Alduntzin-I. Zubillaga; bosgarrenean, A. Gartzia-MM. Larraia eta J. Zubillaga-M. Barberia; eta seigarrenean, Z. Beloki-R. Brazete eta K. Vera-I. Alduntzin.

### TXAPELKETA HERRIKOIA

Maiatzaren 17an jokatu zen pilota txapelketa herrikoia eta hauek izan ziren emaitzak: Egoitz Sanchez eta Julen Zabaletak 6-18 galdu zuten Oier Altzelai eta Haritz Kanposen kontra. Xabat Illaregi eta Alai Arozenak 12-18 galdu zuten Asier Barriola eta Braian Maldonadorekin; Eñaut Goikoetxea eta Omar Ugartemendiak 8-18 galdu zuten Mikel Martinez eta Mikel Zabaletaren kontra eta Luken Kasares eta Aitor Ortizek 16-18 egin zuten Anartz Ramallo eta Egoitz Balezte-naren kontra.

### HERRIARTEKOA

Aurrera Pilota Eskola-koak Nafarroako Herriarte-ko Txapelketa ere jokatzeko ari dira. Alebinetan Hegoi Txoperena eta Oier Goikoetxea ari dira, infantiletan Mikel Eraso eta Ander Eskudero, jubeniletan Anartz Olano



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

### Karobiak berreskuratzen

Karobien aztarna ugari daude Leitzan. Aspaldian utzi zioten gure baserriarrek kare modu horretan egiteari, azkenekoak Juanabordakoa eta Gazpilotxikikoak izan ziren, Joxe Sagastibeltzaren eskutik duela 15 bat urte. Guztira 60 bat izanen ziren herrian, baserriarrek auzolanean egiten zuten lan hori, bi edo hiru etxetakoak bilduz. Geroztik batzuk zainduagoak dauden arren, gehienak desagertzeko zorian daude. Burdina Taldeak, Udalarekin batera, batzuk garbitzeko eta berreskuratze lanak eginen ditu. Urtotxikiko karobia garbitu zuten, lehenik Burdinakoak eta bai DBHko ikasleek ere auzolanean. Orain paretak finkatzen ahaleginduko dira. Beste batzuetan horrelako lanak egiteko asmoa ere badago.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

### Herrira

Maiatzaren 19ko eguerdian, 260 lagun inguru juntatu ziren plazan Herrira mugimenduak deituta, euskal atxilotu eta iheslariei elkartasuna adierazteko. Guztion artean zenbat diren gogoratuz argazkiak atera zituzten, etxean behar direla eskatuz.

eta Xabi Jaunarena eta seniorretan Ibai Bengoetxea eta Axier Gartzia.

Dagoeneko liga faseko bi lehia jokatu dituzte, Iruña eta Burlataren aurka. Asteburu honetan, Berako taldearen aurka ariko dira etxetik kanpo, ekaineko bigarren asteburuan etxean Donezteberen kontra, hurrengo asteburuan Lizarran eta ekaineko azken saioa etxean eginen dute Uharteren kontra.

### Txondorra biztuko dute Ixkibarren

Kultur Aroaren baitan, aurreko txondorra biztuko dute ekaineko lehen egunetan. Horretarako taldetxo bat bildu da, eta Ixkibarreko zelaian prestatzen ari dira txondor plaza eta egurra. Orain, txondorra osatu, biztuko eta egurrikatza bihurtzeko prozesua ikasi nahi dute. Inoiz lan horretan aritu gabeak dira eta hurrengo urteetan txondor

pesta finkatzea da hauen asmoa.

### IV. Sagardo Eguna

Ekainaren 9an ospatuko da Sagardo Eguna eta 18 sagardogileen edariak dastatzeko aukera izanen du jendeak. Urtetik urtera gorantz doan pesta da eta aurtengoan 800-1.000 edalontzi banatzea aurreikusiko dute antolatzaileek.



HEZKUNTZA → UDAGIROAN

## Goiz-arratsaldez ekitaldiak izanen dira larunbatean eginen den eskolen topaketan

Arratsaldean flash mob-a eginen dute neska-mutikoek

**Juana Mari SAIZAR**

Leitza, Areso eta Goizuetako eskolen arteko topaketa larunbat honetan, ekainak 2, eginen da. Urtero herri desberdinean antolatzen da lau herrietako festa hau eta aurten gure herrian tokatu da. Egitarau hauxe prestatu dute.

- 11:00etan ginkana izanen da Lehen Hezkuntzakoentzat eta taillerak Haur Hezkuntza

eta Lehen Hezkuntzakoentzat.

- 12:30ean jolas kolektiboa (futbol itsua).
- 13:30ean bazkaria eginen da.
- 15:30ean ikasleek trikitixa saioa eskainiko dute.
- 16:00etan *flash mob*-aren txanda izanen da.
- 17:30ean merendua eginen dute.
- 18:00etan festari bukaera emanen diote eta bakoitzak bere etxerako bidea hartuko du.

Oso proposamen polita da, eta orain go-go bakarrik ekarri behar dute partehartzaileek.



ARGAZKIA: EDEN ALGERO

### Presoen eskubideen alde plazara

Herrira plataformak deitutako Goazen Plazara ekimenarekin bat eginez, presoen eskubideak errespetatzeko eskariarekin, hainbat lagun elkartu ziren maiatzaren 19an plazan.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

### Mikel aingeruaren bisita

Maiatzaren 20an egin zuen Mikel aingeruak bisita. Eguraldiak ez zuen lagundu baina herriak bedeinkapena hartu zuen eta elizan bildu zen jendeak ere bai. Argazkian, aingeruz jantzitako neskatxak eta beste hainbat ume ikus daitezke, goiangeruaren inguruan.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Santa Kruzeko ermitara bidea

Santa Kruzeko ermitari bisita egin zaio aurten. Badira urte batzuk ezinezkoa izan dela, baina aurten, nahiz eta igandea ez izan, batzuk bildu ziren eta gurutze bidea eginez, ermitan meza entzun zuten. Gero, noski, modakutxoa egin zuten ohiturarekin jarraituz.

**ttipi-ttapa**  
inprenta lanak egiten ditugu  
ideiatik hasi eta etxean izan arte.

  
Biste txartelak / egutegiak  
1.000 ale → 85€  
formatu 6-4, 200 g, 102 formatu.

  
Batzarrei / ermitari  
1.000 A4 → 86€  
formatu 6-4, 200 g, 102 formatu.

948 63 54 58  
kulturkari@ttipi.net



ttipi txartelarekin **beti irabazten da!**

deskontuak + zozketak + aldizkariak musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoz

**566. ALEKO IRABAZLEAK**

- \* ONDDO TA PUNTO KAMISETA  
Kristina Altuzarte Amgoi | IRURITA
- \* ELKAR 2 LIBURU  
Bim Neguko Liburu + Ohana Irisei  
Andoni Lasaga Apeztagia | BERA
- \* MARTIKO LOTEA  
Maite Ilumalde Etxebarria | ELIZONDO
- \* AQUARIUM 2 SARRERA  
Jose Antonio Sainz Irigoin | BERA
- \* TTIPi SASKIA  
Pis Altuzai Barrio | LESAKA

zozketak



**AQUARIUM 2 SARRERA**  
Donostia Aquarium-a  
[www.aquariums.com](http://www.aquariums.com)




**BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA  
2009 DVD + ORNITORINKUS CD**  
Lanku argitaletxea  
[www.lanku.com](http://www.lanku.com)

deskontuak

**ZALAIN MOTOR**  
Ford  
BERA | %5 irabazteko

**edurne arropadenda**  
BERA  
%5, 30€tik gorako gastuan

**KATEA-BIKE**  
BERA | %8 irabazteko



**KAMISETA BAT**  
Orinart denda  
[www.orinart.com](http://www.orinart.com)



**EREIN 3 LIBURU**  
Erein Argitaletxea  
[www.erein.com](http://www.erein.com)

**Urdi Lesaka**  
LESAKA | Partekatze 1: %10 irabazteko 2 pertsona; 1 go partekatzean sartuta 2 pertsona; 2 partekatzean sartuta 3 pertsona; 3 partekatzean sartuta 4 pertsona; 4 partekatzean sartuta 5 pertsona

**MAIMUR**  
LETTA  
%10 irabazteko

**Donostia Zirkulua**  
DONOSTIA  
%5 zaku eta kalari partekatze



**LESAKAKO UDAL IGERILEKUA  
2 SARRERA**  
Lesakako Udal Igerilekua  
[www.lesaka.net](http://www.lesaka.net)



**PUNPALAPLAN CD + DVD**  
Urtintza eskola  
[www.urtintza.org](http://www.urtintza.org)

ttipi-ttapa

Andutzeta 12, 31760 ETXALAR  
Tel. 948 635 458 Fax 948 635 457  
info@ttipi.net | www.ttipi.net



DIRULAGUNTZA → NAFARROAKO GOBERNUAREN ESKUTIK

# Ezintasuna dutenak bainuetxeetara joateko dirulaguntzak izanen dira

Ekainaren 7an bukatuko da eskaintzak aurkezteko epea

## TTIPI-TTAPA

Bainuetxe Programan parte hartu nahi duten ezinduei dirulaguntzak emanen dizkie Nafarroako Gobernuak. Horretarako deialdia egin du eta 300 plaza eskainiko ditu Fitero eta Elgorriagako bainuetxeetan, 150 plaza ezinduentzako eta berzte 150 plaza hauen laguntzailentzako.

Guztira 120.000 euro bideratuko ditu Gobernuak programa honetara eta dirulaguntzaren barne, alojamentua eta egonaldia man-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Uztailetik aitzinera hainbat plaza eskainiko dira Elgorriagako bainuetxean.

tenu osoarekin eskainiko dira. Hamabi egun eta hamaika gaueko txandak izanen dira, uztaillean hasi eta urrirar bitarte.

Dirulaguntza hau eskatzeko %65eko ezintasuna edo haundiagoa

eduki beharko du eta 12 eta 59 urte artean izan. Laguntzaile bat izan beharko dute ondoan, 18 urtetik goitiko eta menpekotasunik ez duena. Gisa berean, guttienez bi urteko antzinatasunarekin Nafarroan errol-

datua izatea ere ezinbertzekoa izanen da eta zergak ordaintzea ere bai.

## TXANDAK

Uztailaren 16tik 27ra Elgorriagako Bainuetxean egoteko plazak iza-

nen dira, uztailaren 27tik abuztuaren 7ra Fiteron, uztailaren 30etik abuztuaren 10era Elgorriagan, abuztuaren 13tik 25era Elgorriagan, abuztuaren 27tik irailaren 7ra Elgorriagan, abuztuaren 29tik irailaren 9ra Fiteron, irailaren 10etik 22ra Elgorriagan, irailaren 24tik urriaren 5era Elgorriagan eta urriaren 15etik 26ra Elgorriagan.

Eskaerak egiteko epea ekainaren 7an bukatuko da. Eskaera orriak edo deialdiaren informazio gehiago nahi izatera Nafarroako Menpekotasunaren Agentzian daude eskura, Iruñean, edo Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan ere bai. Telefonoz ere egin daiteke kontsulta: 902 165170.



# ELGORRIAGA

BALNEARIO - BAINUETXE

Errotaldea s/g. 31744 Elgorriaga (Nafarroa) | T. 948 45 60 45 | [www.balnearioelgorriaga.com](http://www.balnearioelgorriaga.com)



sanvirila

hotela eta masajista



Egin zaituz Elgorriagako Bainuetxeko **BAZKIDE** eta eskaintzen ditugun abantaila ugarietaz baliatu

**12€/eguna** ertaxazo ibilbidea igerileku termallean | **3€/eguna** gimnasioa eta ur gezako igerilekua | **15€**ko deskomua masajestah

Katamutu idazkariaren eta alojamentuaren ditugun deskomua

Informazio gehiagorako telefono honetara deitu **948.45.60.45** edo idatzi nabide honetara [reservas@balnearioelgorriaga.com](mailto:reservas@balnearioelgorriaga.com)



aldizkari eberrak bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:

**(0034) 948 63 54 58** - [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

- Hago Euzkadi Herra 20€
- Estaca 30€
- Bostan, Maspuzketa, Matorra 20€
- Arretia eta, Auzola 12€
- Ipar Euzkadi Herra 50€
- Leta 10€



# BAZTAN

GIZARTEA → ASKAPENA ETA ERRATZUKO KULTUR ELKARTEAREN ESKUTIK

## Aste Internazionalista antolatu dute ekainaren 3tik 7ra

Erratzun eta Elizondon ekitaldiak izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Askapenak eta Erratzuko Kultur Elkarteak nazioarteko gaiei tartea eskainiko dien Aste Internazionalista antolatu dute ekainaren 3tik 9ra. Hiru saio izanen dira: alde batetik, igande honetan, ekainak 3, *Mendebaldeko Sahara: gaur egungo egoera lurralde okupatueta* izanen da hizpide Askapenako brigadistekin. Gainera, gonbidatu berezia ere izanen da: Hassana Aalia lurralde okupatueta aktibista sahararra, hain zuzen. Solasaldi hau 19:00etan hasiko da Erratzuko elkartearen.

**ASTE INTERNAZIONALISTA**  
Igandean Erratzun, Mendebaldeko Saharaz ariko dira eta Hassana Aalia aktibista sahararra gonbidatu dute. Ekainaren 5ean Palestina izanen dute hizpide Elizondon.

Ekainaren 5ean, asteartearen, *Palestina: normaltasuna herri artean* solasaldia eskainiko dute Xabi Torres eta Amaia Saldiasek. 19:00etatik aitzinera izanen da Erratzuko elkartearen.

Eta ekainaren 7an, azkenik, Elizondoko Arizkunenean 19:00etan, *Internazionalismoa Euskal Herrian* izanen dute hizpide Askapenaren eskutik.

### Herriraren mozioa

Herrira mugimenduak aur-



keztutako mozioaren puntu hauek onartu zituen Udalak maiatzaren 3ko ez-ohiko osoko bilkuran: alde batetik, espainiar estatuan ezartzen den 197/2006 doktrina bertan behera uzteko eta zigorra bete duten presoak askatzeko eskatu du Udalak, *de facto* aplikatzen den bizi osorako zigorra bertan behera uz-

tea». Gisa berean, frantziar estatuan ezartzen den bizi osorako zigorra bertan behera uzteko ere eskatu du, «baldintzapeko askatasunei bide emanez».

Zigorraren biherenak edo hirulaurdenak be- teak dituzten presoak kaleratzeko ere exijitu du eta gaixotasun larriak dituztenak askatu eta ber-

zelako gaixotasunak dituztenak egoki zaintzeko ere bai. Bi estatuen espetxe-politika egokitzea ere nahi du Udalak eta Joxemiel Gaztelu (Algeciras, Cadiz) eta Iñaki Erro (Almeria) preso elizondarrak dauden karzeteletako zuzendariei eta Zigor-erakundeei erabaki hauen berri emanen dien gutuna bidaliko die.



ARGAZKIA: XABI BALLARENA

### BKTko kadeteak Palentzian

Nafarroa mailako Final Four-a irabazi ondotik, Palentzia aldean ibili dira BKTko kadete neskak Espainiako Txapelketa jokatzeko. Hiru egunez, hiru partida jokatuz zituzten maiatzaren 11tik 13ra: lehendabizikoa Madrilgo Villaverderen kontra eta galdu egin zuten, bigarrena Palentziaren kontra eta hau ere galdu egin zuten eta hirugarrena andaluziarren kontra irabazi egin zuten. Denboraldi bikaina osatu dute, kopako finalera ere ailegatu baitira.

### Ba al zenekien...

Euskal Artzainak Ameriketara elkarrekin, Ameriketara ibili diren baztandarrak biltzen dituen panelak egin nahi dituela? Horretarako dirulaguntza eskatu dio Udalari eta Gobernu Baztordeak 450 euro ematea erabaki du.

**nafarpress**  
liburu eta kulturaren

liburuak

**% 10eko**  
**DESKONTUA**  
liburu eta kulturaren

liburu eta kulturaren, testu liburuak eta bideoak izan ezaz.

**ANZABAL INMOBILIARIA**



- Zuzen Anzabal Autos, etxebizitza, lurrak eta beste enpresak
- LAN-aitzibideak: Baserri eta Baserri Sozialak
- Abokadutzak: Inbentario, Errenta Deklarazioak, OZEA...
- Inbentarioak: Etxerri, bostza, puz, etab... inbentario eta abarrikak
- Enpresa

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 16AN

## Nafarroako konkistaren harira kontzertuak antolatu dituzte Amaiurren

Lau taldek  
joko dute

### TTIPI-TTAPA

Gaztelak Nafarroa konkistatu zuela 500 urte beteko dira aurten eta hori dela eta hainbat ekitaldi egiten ari dira han eta hemen. Amaiurren uztaierako ari dira ikuskitzun nagusia prestatzen, baina aitzinetik ere egi-

ten ari dira jarduerak.

Ekainaren 16an, adibidez, Punk Oi & Rock 'n' Roll gaua antolatu dute Herriko Ostatuan. 22:00etatik aitzinera, Orreaga 778, Erru Gabe, Kaleko Urdangak eta Big Time Sound System taldeek joko dute. Sarrera hiru euro kobratuko dute eta bildutako dirua 1512-2012 Nafarroa Bizirik plataformarentzat izanen da



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

### Baztango historia eta ondare arkitektonikoaren inguruko jarduerak egingen ditu Dorrea Elkartek

Dorrea elkartearen aurkezpena egin zuten maiatzaren 18an Irurritako Jauregian. Lehenik doako bisita gidatua egin zen jauregi dotorean eta gero elkartearen aurkezpena. Dorrea elkartean Baztango historia eta ondare arkitektonikoa eta etxegintza tradizionalaren informazioa jaso, ikertu, hausnartu eta irakatsi nahi dira, baita ondare arkitektonikoarekin lotura daukaten jarduerak egin eta ondare historikoarekin eta kultura orokorrarekin zerikusia dutenak ere, zonaldeko entitate publiko eta pribatuekin batera, erakusketak, kontzertuak eta ekitaldi kultural orokorrak bultzatu nahi duen elkarte da. Dorrea Elkarteko Pello Iriartek eman zuen elkartearen berri, baina informazio gehiago nahi duenak bloga ere badu elkarteak: <http://dorrea.blogspot.com.es>.

**REPSOL** **baztanoil**  
T. 948 452 309 | M. 677 310 009  
[www.baztanoil.com](http://www.baztanoil.com)

Sufrenik gabeko\* Repsol Agrodiesel **e** berria

**Lurraren adifu  
Handiek gomendatutakoa.**

Makinen bizitza luzatzen du.    Mantentze-kostuak minimizatzen ditu.    Ingurumenarentzat hobea, sufrenik gabeko\* bere formula berriari esker.

**REPSOL**

**Diesel e**    **Diesel e**    **Energy e**    **Hauk gomendatutako errezaiak sakarra**    **Kubota**    **Diesel e**

# BAZTAN

UDALA → AUZITEGIAREN ERABAKIA

## Batzorde informatiboan inguruan Auzitegiak agindutakoa beteko duela erran du Udalak

UPNren bi eskaeratik bakarra onartu du

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Administrazio Auzitegiak, Udalak 2011ko urriaren 27an Batzorde Informatibo Iraunkorren berrantolaketen harira, Osoko Bilkuran hartutako akordioaren aurka UPNk sartutako gorako errekurtsoaren aitzinean epaia eman du. UPNk bi eskaera egiten zituen eta bat ukatu eta bertzea onartu du Auzitegiak. Ados ez egon arren, hurrengo osoko bilkuran sententzia onartu eta auzitegiak agindutakoa beteko duela jakinarazi du Udal Gobernuak.

Biztanleen kopurua dela eta, Udala legez behartuta dago Tokiko Go-

bernu Batzordea (astero egiten da), Ogasun Batzordea (hamabostero egiten da) eta Batzorde Informatibo Iraunkorra (Osoko Bilkura bakoitzaren aitzinetik egiten da) eratzera. Hasieratik talde politiko guztiak gonbidatu dira guztietan parte hartzera, baina UPNk uko egin zion Tokiko Gobernu Batzordean parte hartzeari.

Agintaldi hasieran Batzorde Informatibo desberdinak zeuden, gai bakoitzeko bat, aitzineko agintaldiko eskema segitu zelako. Bilerak bakoitzeko ordainsaria 100 eurokoa izatea erabaki zen, bakoitzak jasotzen ahaliko zuen maximoa 600 euro izanik. Praktikan, batzorde informatibo hauek, batzutan 5 eta 10 minutu iraun arren, aldiro kopuru berdina ordaindu behar zitzaizkien. Hau dela eta,



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

### Nafarroako Euskararen Mediatekak eta Xaloa Elkarteak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

Nafarroako Euskararen Mediatekak eta Xaloa Kultur Elkarteak bertze hitzarmen bat sinatu dute eta horren bidez, Nafarroako Gobernuak 8.000 euroren truke Xaloaren 80 orduko materiala erosi du, euskaraz eta gehienbat, Baztango dialektoan dagoen materiala, hain zuzen. Hitzarmena maiatzaren 15ean sinatu zuten Maximino Gomez Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak eta Joseba Igarabide Xaloako ordezkariak. Aipatu, 2010ean bertze lankidetzaren hitzarmen bat adostu zutela. Orduan, Euskararen Mediatekak 10.000 euro eman zizkion Xaloari eta honek trukean 100 orduko ikus-entzunezko materiala.

urriaren 27an hartutako erabakian, Udal Gobernuak Ogasun Batzordea eta Tokiko Gobernu Batzordeak garrantzi handiagoak zirela eta denbora gehiago eskatzen zutela eta, hauek bakarrik ordaintzea erabaki zuten. Aldi berean, Batzorde Informatibo Orokor bakarra egitea erabaki zen gai guztiak aldi berean tratatzeko, Euskara izan ezik, Ordenantzak Batzorde berezi bat edukitzea eskatzen duela.

UPNk akordio honen aitzinean gorako helegitea jarri zuen eta helegite honetan bi eskaera egin zituen. Batetik, Batzorde Informatibo Iraunkor Orokor bat egin beharrean gai bakoitzeko bat egitea, horrela gai bakoitzeko ordainsaria

kobratuko lukete. Bertze aldetik, Batzorde guztiak berdin ordaintzea eskatu zuen, diskriminazioa leporatuz.

Nafarroako Administrazio Auzitegiaren sententziak ukatu egin du lehenbiziko eskaera eta bigarrena onartu du. Alde batetik, Udalarri arrazoia eman dio erranez posible dela Batzorde Orokor bat egitea eta gai guztiak bilera berean tratatzea. Bigarren eskaeran auzitegiak onartu du garrantziaren arabera aukera dagoela batzorde batzuk ordaintzeko eta bertzeak ez, baina beren ustez, guztiek garrantzi berdina dutela. Beraz, batzorde bat egin beharko dira. Gisa berean, sententziak argi utzi du erabaki honek

ez duela suposatzen alderdi politikoen arteko diskriminaziorik.

Udal Gobernuak jakinarazi duenez, «nahiz eta ados ez egon Auzitegiak batzordeen garrantziaren inguruan egindako interpretazioarekin», hurrengo osoko bilkuran sententzia onartu eta auzitegiak agindutakoa beteko du.

### Metaziriren ale berria

Kalean da Metaziri aldizkariaren ale berria. Betiko tokietan eskura daiteke, eta aldi honetan landu dituzten gaiak ondokoak dira: auzolana, mugikortasuna, Garbiñe Elizegi alkateari egindako elkarrizketa, baratzeak, Aroztegiako proiektua, enargiarekin zer egin...

ANEXIONEA  
Real Estate

Agintaldiaren lehen urteak

Biztanle Inate 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
bista@anexionea.com • www.anexionea.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua

Santiago, 39 20 | ELIZONDO  
T 948 581 444 M. 630 254 811

MENDI ostatua

Santiago 25  
948 580 512  
ELIZONDO



BESTABERRI BESTAK → EKAINAREN 6TIK 10ERA

# Herritarren artean pilota, herri kirola eta sokatirako lehiak Almandozko bestetan

Bestetako larunbatean mariatxiak ere izanen dira

## TTIPI-TTAPA

Berroeta eta Irurita-ko beste lekukoa hartuz, Almandozko Bestaberi bestak ere laster ailegatuko dira. Bortz eguneko bestak antolatu dituzte ekainaren 6tik 10era.

## ASTEAZKENA, EKAINAK 6 MEZPERA

- 12:00etan txupinazoa.
- 21:00etan Baztan-Zopak ANJEL MARIk alaituta.

## ORTZEGUNA, EKAINAK 7 BESTABERRI EGUNA

- 08:00etan Aurora Bixenteren konpainian.
- 12:00etan Meza Nagusia.
- 13:00etan luntxa.
- 16:30ean herriko gazteen arteko pilota partidak.
- 19:00etan puzgarriak.
- 20:30ean patata tortilla lehiaketa.

## ORTZIRALA, EKAINAK 8 HAUREN EGUNA

- 11:00etan haurrendako jokoak.
- 16:30ean puzgarriak.
- 17:00etan mus eta partxis txapelketa.
- 18:00etan txokolatada.

- 21:00etan herri afaria.
- 00:00etan dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.
- 05:30ean zinger jatea.

## LARUNBATA, EKAINAK 9

- 11:00etan mus txapelketako finalurrekoak eta finala.
- 13:00etan museko sarien banaketa.
- 14:00etan zikiro jatea.
- 17:00etan mariatxiak: Distrito Federalak.

## IGANDEA, EKAINAK 10

- 12:00etan Meza Nagusia eta Jaunartzea. Uxo Agerrek eginen du aurten Jaunartzea.
- 16:30ean herri kirolak herritarren artean.
- 18:30ean sokatira: aital semeen kontra.
- 21:30ean Gaixoa ni.

## Jaunartzeak

Jaunartzeak egiteko egunak ere ailegatu dira. Igande honetan, ekainak 3, Zozaiako Olatz eta Iraitz Iturraldek eginen dute; ekainaren 10ean Uxo Agerre almandoztarrak; ekainaren 17an Naiara Barretxe aniztarrak eta uztailaren 1ean Berroetako Jon Maritorenak.

## Elizondoko bestak

Santiago bestak antolatzeke prestaketekin burubelarri dabil Elizondoko Besta Batzordea. Egunak zehaztu dituzte,



ARGAZKIA: ONDIKOL

## Amaiurko nekazarien besta

Maiatzaren 15a San Isidro eguna edo nekazarien patroia eguna dela aprobetxatuz, aurten ere ospakizun eguna izan zuten argazkiko amaiurtarrek. Goizean meza izan zuten eta ondotik, Mendialde jatetxean bazkaldu zuten. Elizondon ere Santa Engrazi ermitan meza entzuteko aukera izaten da egun horretan.



ARGAZKIA: ONDIKOL

## Irurita bestak euripean

Eguraldi ona hasieran eta txarra bukaeran. Horixe pasatu da aurtengo Irurita Salbatore bestetan, asteburuan gogotik egin baitzuen euria. Baina horrek ez zuen besta giroa alde batera utzi.

uztailaren 24tik 29ra izanen dira eta egitaraua-

ren zehetasun gehienak ere itxia dituzte. Aitzinera-

go emanen dugu horren berri.



**SOULE**  
hileta artea  
Tfnoa. 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN

## BAZTAN

GIZARTEA → NABAI 2011KO ZINEGOTZIA

# Agintaldia akitu arte zinegotzi lanean segituko duela erran du Maite Iturrek

Babes Taldekoei erantzun die Maite Iturre zinegotziak

## TTIPI-TTAPA

«Zinegotzi kargua erantzukizun eta koherentzia politiko printzipioetan oinarrituta hartu nuen. Aitzineko zinegotziak zituen ardurak hartu nituen, Tokiko Gobernu Batzordean partehartzearena barne. Udal talde guztiek parte har dezakete organo honetan; ondorioz, egiten ez duenak horretan lanik ez egitea erabaki duelako da, bertzerik gabe». Halaxe adierazi zuen Maite Iturre NaBai 2011ko zinegotziak maiatzaren 15ean eskainitako prentsaurrekoan. Asun Fernandez de Garaialde parlamentaria izan zuen ondoan. Aipatu zuenez, «NaBai 2011k agintaldi hasieratik normaltasunez parte hartu izan du Tokiko Gobernu Batzordean».

Karguari eusteko asmoa duela berretsi zuen: «udal bizitzaren garape-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Asun Fernandez de Garaialde parlamentariak babesa eman zion Maite Iturreri agerraldian.

na hobetzeko etengabe-ko saiakeran oinarritu beharko litzateke, iragane-ko akatsak onartuz eta konpontzen saiatuz. Asmo horrekin hartu nuen kargua eta karguari eutsiko diot agintaldiaren amaiera arte, edonorren gogoz kontra bada ere».

Turismo eta merkataritza arloko zinegotzia da Iturre, eta ardura «sektoreak duen garrantzia aintzat hartuz, eta alor honetan lan egiteko aukera ikusita» hartu zuela erran zuen. «Helburua bailaren alde lan egitea da, asko egiteke dagoen

**BABES TALDEARI MEZUA**  
«Laburduraren gibelean ezkutatu gabe, idazkiaren egileei aurpegia eman zezaten deia luzatu nien. Ez dute egin eta modu berean segitzen dute»

## Maite ITURRE zinegotzia

sektore batean, botere, lehia eta ika-mika pertsonaletan sartu gabe». Kargua Bilduk eta Ezkerrak sinatutako gobernu akordioan sartu behar izan gabe hartu zuela ere azaldu zuen: «zinegotzi ba-

tek gobernuaren parte izan gabe kargua hartzea ez da inolaz ere salbuespeneko afera Nafarroan». Gaineratu zuenez, «hemen gaude eta zinegotzigo hau hartu dugu, Baztani ezkerreko ikuspuntu eta konponbideak emateko. Ez gaude UPNren jarraikeriarik egiteko ezta interes partikularren zerbitzura jokatzeke ere». Baztandar guztiei eta «doike, azken udal hauteskundeetan hauteskunde zerrenda osatu zuten pertsona guztiei atea irekita» utziko diela ere erran zuen.

Bere zinegotzi lanetik desmarkatuz idatzia kaleratu zuen NaBai 2011 elkarteari ere zuzendu zitzaion: «idazkiaren egileei deia luzatu nien aurpegia eman zezaten, babes taldearen laburduraren gibelean ezkutatu gabe. Ez dute egin, eta areago, modu berean segitzen dute». Gisa berean, «anonimotasunaz baliatzen direnei, NaBai 2011ko ordezkarieta usurpatu nahi dutenei ere, lankidetzan aritzeko eta Baztan hobetzeko konponbideak ekartzeko deia» ere egin zien.

Zigako hilerriaz eta Almandozko sailhesbidez aritu ziren babes taldekoak, eta horri buruz, «duela zenbait hilabete, 2012ko aurrekontuen onarpenaren harira, gaia Osoko Bilkuran eztabaidatu eta argitu zela» orotarazi zuen. «Gaia berriz atera badute, Udal Gobernua kritikatzeko eta bereziki, ni udal ordezkari gisa deslegitimatzen saiatzeko izan da». Akitzeko, Baztan hobetzeko eta lan egiteko konpromisoa berretsi zuen.

TTIPI ♥ TTAPA

ATSEBINEZ BOMIBATZEN ZBITUTZESU, 30JIZIKO 7-50TIK OFERTSINDIKO 15-50TIK  
[TXARRIKO TTIPI-TTAPAKO JAIJORRI-]

30AN-DONENK, DISKINITU ETA URRUPETUKO DIZKIZUKSU ITZJIO DSX| ONDIN-  
[SKBTU BUIKONTUB 948 65 54 58 - KULTURKARI@TTIPI.NET]

Anduerzeta, 12  
ETXALAR  
www.ttipi.net  
www.kulturkari.com



GIZARTEA → MURRIZKETAK

## Hezkuntzan egin nahi diren murrizketen aurka protestan ari dira ikastetxeetan

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan iragarri dituen murrizketen aitzinean, protestak egiten ari dira Baztango eskolan, adibidez, asteak daramatzate egunero hamar minutuko protestak egiten. Gainera, maiatzaren 25ean bi orduz klaseak Elizondoko plazan ematekoak zizuten protesta moduan.

Herrietako eskola ttikietan ere kexu dira murrizketekin eta greba deialdiekin bat egin dute. Maiatzaren 22an, adibidez, Iruñeko manifestazioan izan ziren.

Lekaroz eta Elizondoko institutuetan ere protestak egiten ari dira. Lekarozen irakasleek itxialdia egin zuten maiatzaren 24ko gauean. Elizondoko Lanbide Eskolatik jakinarazi dutenez, berri, 24 irakasleko planti-

llatik lau irakasle galduko dituzte. Gisa berean, salatu dutenez, funtzionamendu gastuetarako %31,5eko murrizketa izan dute aurtan, eta garbiketa gastuetara bideratutako dirua %20 murriztu da, berogailuaren gasolioaren prezioa %30 eta hornikuntza gastu orokorrak (argia, telefonoa...) igo diren bitartean. Hezkuntzatik hartu beharreko dirua bizpahiru hilabetez gibelatu denez, aurtengo neguan hotza pasatu dutela diote eta beldur dira hurrengoan gehiago pasatuko ote duten. Eskola guztian ez dela eguneroko garbiketarik egiten ere jakinarazi dute. Obra eta ekipamenduko gastuak Hezkuntza Sailak ez omen ditu bere gain hartzen, eta hortaz, eskolak ikastaroak emanez lortzen duen diruarekin ordaintzen dituela ere erran du-



ARGAZKIA: AMAIURKO ESKOLA

### Amaiurko lagunak leizeetara bisitan

Duela gutti, Amaiurko eskolako haur guztiak, irakasleek eta guraso batzuek Sara eta Zugarramurdiko leizeetara txangoa egin dute. Ana Mari Marinek Egungo Ttuntunen egindako oparia dela eta autobusa ordaindu zien.



ARGAZKIA: MAKI URTASUN

### Elizondoko abesbatzaren kontzertuak

Emanaldiz emanaldi segitzen du Elizondoko Abesbatzak, ttikiak zein helduenak. Maiatzaren 12an, Agoitzen izan ziren abesbatza ttikiko kideak Agoizko San Migel koro ttikiaren 25. urteurrenaren harira, eta ordukoa da argazkia. Helduek, berriz, Zigako elizan kontzertua eskaintzekoa zuten maiatzaren 26an. Eta igande honetan, ekainak 3, Elizondoko abesbatza ttikiak Amaiurren kantatuko du. 19:30ean izanen da kontzertua eta ikasturte honetako lana erakutsiko diote jendeari, Kristina eta Maki Urtasunen gidaritzapean. Aipatzekoa da joan den abenduaz geroztik, hainbat emanaldi eskaini dituztela abesbatza ttikiko neska-mutikoei: Iruritan, Urruñan, Lesakan, Agoitzen... Ekainean Amaiurren egiten dute eta uztaillaren 17n Elizondon, eta horrela, hilabete batzuetarako atsedena hartuko dute.

teeskolatik. Bertze langileak (atezainak, administrazioa) ez dituztela orde-

katzen ere kritikatu dute eta irakasleek 15 egun baino lehen ez dutela or-

dezkorik izanen ere bai. Guztiak kalitatean eragiten duela gaineratu dute.

**ARIZKUN**  
**BAZTAN**

**URBANIZATUTAKO LUR EREMUEN**  
**SALMENTA**  
500m<sup>2</sup>-tik hasita

**66.000 €-tik hasita**

**Protagonista Lindutx Baztan, S.L.**  
Plaza Baztan Berri, 6.- behea  
31700 Elizondo  
Tel. 948 580 344  
info@lindutx.com  
www.lindutx.com

**Hargibel Eraikuntzak, S.L.**

# BAZTAN

GIZARTEA → URTXINTXA AISIALDI ESKOLAREKIN

## Artea karrikara aterako dute Baztango artistek ekainaren 17an

Inguruko margolariak Elizondoko karriketan elkartuko dira goiz-arratsaldez

### TTIPI-TTAPA

Artea karrikara ateratzeko asmoz, egun berezia antolatu dute Baztango artista profesional eta afizionatuak Urtxintxa aisialdiko heziketaren eskolarekin elkarlanean.

Ekainaren 17an, 11:00etatik 20:00etara Baztan eta inguruetoako margolari boluntarioak Elizondoko karriketan elkartuko dira, beraien elkartuko dira, beraien Elizondoko karriketan egonen dira artistak, eta eguraldi txarrarekin Jaime Urrutiako estalpeetan.

Ekimena haur, gazte, heldu edo adinekoei zuzendua dago. Haurrek begiraleekin parte hartu beharko dute eta gainerakoek artistekin zuzenean egoteko aukera izanen dute.

Norbait interesatua egonez gero, *ananda65@hotmail.com* era idatzi edo 696 282890 ala 948 581481era dei dezake. Parte hartu nahi duenak aitzinetik abi-

satzea nahi dute antolatzaileek.

### Doluaren inguruko tailerra

*Dolua: boluntarioarentzako laguntza jarribideak* izenburupean lantegi bat antolatu du Bidelagun elkarteak asetzak honetarako, maiatzak 30. Ordu bateko tailerra izanen da eta Mirentxu Goienetxe eta Ainhoa Arburuak eskainiko dute Bidelagunen egoitzan, 17:00etan.

### Bilduren apirileko berripapera

Hilabetero bezala, apirileko berripaper elektronikoa kaleratu du Bilduk. Aldi honetan, Giltxaurdi kirol instalazioen kudeaketaz eta Aroztegiako proiektuaz ari da.

Giltxaurdiko kudeaketaz dio, Giltxaurdi S.L. enpresa publikoa sortzeko erabakia maiatzaren 3an egindako osoko bilkuran hartu zuela Udalak, Bilduren eta Ezkerraren aldeko botoekin, NaBai2011ren abstentzioarekin eta UPNren aurkako botoekin. Oraingo, enpresa berriaren administrazio kontseiluan Bilduren bi ordezkari eta Ezkerraren, UPNren eta NaBai2011ren bana daude. Halere, berripaperean agerienez, «Bilduren borondatea administrazio kontseiluan erabiltzaileen eta langileen ordezkariak ere



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

### Kintoko aprobetxamenduagatik urteko kanona hartu du Udalak

Kintoko bazkalekuen aprobetxamenduaren truke urtero ordaintzen den kanona hartu zuten maiatzaren 10ean Baztango eta Erroko alkateek Lourdes Goikoe-txea, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilariaren eskutik. Joan den urteko aprobetxamenduari dagozkien 72.022 euro hartu zituzten. Ekitaldian, kontseilariarekin batera, Garbiñe Elizegi alkatea eta Enrique Garralda Erroko alkatea eta Kintoko Mendi Mankomunitateko presidentea izan ziren, Landa Garapen arloko zuzendari nagusia den Juan Pablo Rebolérenkin batera. 1856an Baionan sinatutako Mugen Nazioarteko Hitzarmenetik honat ordaintzen da kanona, Baigorriko abeltzainek beraien azpiendak Kintoko bazkalekuek sartzeko eskubidearen truke.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

### Herrietako eskolak Landa Eremuko Eskolen Jardunaldian

Berandu xamar bada ere, ezin aipatu gabe utzi Baztango Herrietako Eskolek, Nafarroako Landa Eremuko Eskolen II. Jardunaldietan parte hartu zutela hilabete hasieran Auritzen. Gan den urteko arrakastari segida emanez, ehun partaidetik goiti izan ziren. Hasierako aurkezpenaren ondotik, tailerrak antolatu ziren, eskoletan egiten diren lanak eta proiektuak aurkezteko. Aurtengo berrikuntza gurasoendako zuzendutako tailerrak izan dira.

egon ahal izatea litzaiteke».

Enpresa publiko berriari oraingo langileak subrogatuko dituela dio Bilduk eta kudeatzaileak kontratatuko lehiaketa publikoa egiten dela. Kudeaketa publikoa udan ondotik hasiko da eta bitartean oraingo enpresak segituko du.

Aroztegiako proiektuaren inguruan, Udalak eskatutako txosten juridikoaren berri eman ondoren, proiektu urbanistikoa geldiarazteko plan partzialaren behin betiko onarpenaren berriketa egitea onartu duela Udalak oroitarazi du Bilduk. Orain espediente Nafarroako Kontsei-

lurat eramanen da eta honek loteslea den irizpide emanen du.

Egin zaitez

**ttipi-ttapa**ren

harpidedun

(0034) 948 63 54 58



KULTURA → MUSIKA ETA DANTZA EMANALDIA

## Lezeetara ailegatu da Donostiako Olatu Talka

Lesakako Musika Banda eta Leitzako abesbatza eta dantzariak aritu dira

### Koro eta Margari

Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua izendatu dutela eta, Donostiako Udalak antolatutako Olatu talka Zugarramurdiko lezeetaraino ailegatu zen maiatzaren 12ko ilunabarrean: Leitzako Jeiki abesbatza eta Aurrera taldeko dantzariak, eta Lesakako Musika Bandaren batez aritu ziren izugarri ikuskizun eder eta hunkigarri bat eskainiz.

Ikusmin handia sortu zuen ekitaldi hunek,

DATUA

# 500

LAGUN

inguru hurbildu ziren maiatzaren 12an lezera, Olatu Talka ekimenaren barne antolatu zen ikuskizunaz gozatzeraz.

eta denetara 500 bat lagun hurbildu ziren. Mezezi izan zuen, eta txalo haundiak jo zituzten bildutakoek.

Lerro hauen bidez, mila esker aunitz eman nahi dizkiegu lesakari eta leitzarrei, halako ikuskizun pulita gure herrirat ekartzeagatik. Erran, aste hondar hartan, 150 jardueratik goiti antolatu zirela Euskal Herrian barna.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### San Migel herrian

Aspaldiko usadio xaharrari segituz, aurten ere Euskal Herriko saildu maitatuena den Aralarko San Migel aingerua etorri zitzaigun herrirat maiatzaren 12an. Eta maitatuena diogu, ez bakarrik gure lurren zaintzailea delakoz, baizik eta Aralarko bere txokotik aterata, urtero herriz-herriz ibiltzen baita bere bedeinkazioak eskaintzen. Gure herrian usadio pitta bat aldatu da, orain ez baitaio herriko sarreran ematen ongi-etorria, plazan baizik. Eta Bixkarreko kaskorat egiten zen prozesioa ere galdu da, baina hala ere, nekazarien artean debozio eta ilusioa handia pizten du Aralarko aingeruak.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA**

estredoak · fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

# URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA BESTAK

## Euriak ere ez ditu galdu nahi izan aurtengo Salbatore bestak

Plazako karpari esker ekitaldiak idorrean egin ahal izan dira

terketa egitera ere 63 lagun atera ziren, eta tartean, bi herritar, Clemente Suhas eta Miren Bengotxea.

Haur, gazte zein helduek izan dute bortz egunetan ongi pasatzeko aukera.

### TTIPI-TTAPA

Euria gogotik egin du aurtengo Salbatore bestetan eta tenperatura frexkoa izan da, baina eguraldia ez da besta giroa zapuzteko motiboa izan, izan ere, bati baino gehiago entzun baitiogu «bestak arras ongi» joan direla, «hotta eta euriarekin, baina gustora».

Plazako karpak hainbat ekitaldiri eman dio idorra eta giro ederrean joan dira ekitaldi guztiak. Kontrabandisten las-

### BESTETAKO ZOZKETA

Bestetako zozketaren zenbaki sarituak ere jakinarazi dituzte. Lehendabiziko saria 5.625 zenbakiari tokatu zaio eta boletoa Jokin Etxartek saldua da; bigarren saritua 5.025 zenbakia da eta Jon Ollok saldutakoa eta hirugarren zenbaki saritua 6.302 da eta Karretero ostatuan saldutakoa da.



ARGAZKIAK: ANE HUARTEK UTZITAKOAK

Eguraldiak ez ditu aurtengo bestak zapuztu eta ederrak izan dira.



ARGAZKIA: NOEL EIHERAGARAI

### Kontrabandisten lasterketa

Bestetan hutsik egiten ez duen ekitaldietako bat kontrabandisten lasterketa izaten da eta eguraldiak batera lagundu ez badu ere, aurtengoa ere egin da. 75 lagunek emana zuten lasterketan parte hartzeko izena, baina azkenean 63 atera ziren. Frantzian bizi den Jandari Said marokarra izan zen helmugaratzen lehendabizikoa, 01:04:38ko denbora eginez, baina Walter Bezerra venezuelarra ez zuen urruti izan (01:05:01). Gainera, Bezerrak bidegurutze batean okerreko bidea hartu zuen eta denbora galdu zuen. Hirugarren postuan, berriz, Fernando Etxegarai beratarra sailkatu zen (01:09:57). Eta herritarrei dagokienean, bi izan ziren ibilbidea egitera ausartu zirenak eta helmugara ailegatzen lehendabizikoa Clemente Suhas izan zen (01:38:39) eta bigarrena Miren Bengotxea (01:44:57).

**MONTXO** ОСТАТВА  
ТРАБКО-ДЕНДА

Dira turistikoa | Ospetirikoa | Piritikoa | Arokoak erabiltzeko  
Egunero eskia 09:00etatik 02:30era - Dantza-eremua 2 km. inguruko  
ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039

**Sutelela-Zaldaitz**  
instalazioak

IGOGAILUEN INSTALAZIOA  
AROTEGI METALIKOA  
TOLDOAK

Santiago, 71  
31700 ELIZONDO  
T. 948 580 166  
F. 948 452 557  
M. 619 424 999 - 649 699 820



HEZKUNTZA → HERRI URRATSEN BALORAZIOA

## Herri Urratsen irabaziekin Kanboko ikastegia haundituko dute

Jende andana bildu du 29. Herri Urrats bestak

**Franck DOLOSOR**

Babel dorrearen itxura hartu zuen berriz ere aintzirak maiatzaren 13an. Izan ere, 29. Herri Urratsen, frantsesa eta gaztelaniaz gain, kolore guztietako euskarak entzun ziren euskaltzaleek lurralde guztietatik etorri baitziren. Eguna behar bezala ospatzeko, urte osoan bezala mila-ka antolatzaile-laguntzailanean aritu ziren xinaurriak bezala. Hauen artean ziren, bertzeak ber-

tze, Serge Zudaire Zuzu zuraidarra eta Jean Louis Bessonart senper-tarra. Bieieskerrak eman zizkieten 25 urtez Herri Urratsko elkarteko kide eta buru izan baita eta hastapenetik aparkalekuez arduratu baita, bertzeak bertze. Aipagarria da, duela zombait urte Bibix Jean Louisen andereak egindako lana eskertu zutela Herri Urratsko antolatzaileek.

Herritarren ondoan, kolore ainitzeko hautetsiak agertu ziren ikastolen alde, hauen artean, Frédérique Espagnac senatari sozialista, Lurdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikarako sailburuordea,



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Euskaltzale aunitz bildu ziren Herri Urratsen.

Lohizune Txarola Gipuzkoako Batzar Nagusieta-ko presidentea, Max Brisson UMPko kidea, Txaro Goikolea EAJ-PNBko arduraduna, eta Tasio Erkizia Ezker Abertzaleko kidea, bertzeak bertze. Ekitaldi ofizialean, Frantxoa Maitia Akitaniako presidenteorde sozialistak azpimarratu zuen aro berria sortu dela gure mintzairarentzat Iparraldean François Hollanden Frantziako Errepublikako presidente berriak hizkuntza gutxituen euro-

karta berretsiko duela hitz eman baitu. Bertzalde, baxoa, unibertsitate-terat sartzeko azterketa frantsesez izango da beti Seaskako ikasleentzat, baina historia geografiaz gain, aurren, lehen aldikoz, matematika ariketa ere euskaraz egiten ahaliko dute.

Herri Urrats besta zoragarria izan da aurren ere baina zoritxarrez gertakari hits batek ilundu du. Izan ere, Angeluko 23 urteko gazte bat larriki zauritu zen urerat jauzi

egin eta kolpetxarra hartu ondoan. Baionako ospitalerat eraman zuten helikopteroz eta bertan ebakuntza egin zioten baina iduriz paralizatua egon daiteke. Bere hurbilekoek diote goizegi dela zerbait errateko.

Orain, heldu den urtean ospatuko den 30. Herri Urrats prestatzen ari dira. Euskaltzaleek lekukoa eman diete Bizkaiko lagunei Ibilaldia ekainaren 3an ospatuko baita Trapagaranen, Bilbo ondoan.

## Naia Lacroixek gose greba utzi du hitza eman diotelako ez dela gehiago bakarrik izanen

**TTIPI-TTAPA**

Naia Lacroix euskal presoak utzi egin dio gose grebari, Frantziako espetxe arduradunek bakartze egoeratik aterako dutela erran diotelako. Maiatzaren 14an hasi zuen baraua, Bordeleko kartzelan, eta orain Dijongora eramanen dute laster. Hau da, isolamendutik ateratzearen truke Euskal Herritik oraindik ere gehiago urrunduko dute presoak. Haren egoera salatzeko preso batzuek eta herritarrek mobilizazioak egin dituzte. Erraterako, hamarka lagunek parte hartu zuten maiatzaren 22an Lacroixen egoera salatzeko Herrira mugimenduak antolatu agerraldian. Bertze hainbat hautetsirekin batera, Christine Bessonart auzapeza izan zen.

Euskal Herritik 850 kilometrotara dagoen espetxe horretan ez dela orain arte euskal presorik izan oroitarazi zuten agerraldian. Beraz, Lacroix bertara eraman eta gero, beste euskal preso bat mugitu beharko dute Dijon-era, Senpereko presoari emandako hitza bete nahi badute. Janine Beyrie Etxerat elkarteko ordezkariak ez zuen ezkutatu espetxe agintariek kasu honetan hartu duten erabakiak zapore gazi-goza uzten duela. «Beste bi familia ehunka kilometro egitera behartuak direla» nabarmendu zuen. Isolamendua eta uruntasuna baliatzen dituen politika horrekin



Hainbat lagunek parte hartu zuten maiatzaren 22an egindako agerraldian.

bukatzeko ezinbertzekotzat jo zuen auzapezak bezala, «beste tokiko hautetsiek engaiamendu har dezatela bidegabakeria honenkin bukatzeko». Emilie Martin Herrira mugimendukoak, berriz, «presoak Euskal Herrian lehenbailehen batzea eta dispersio politika onertezinarekin ez segitzea» galdegin zion frantses estatuari.

Bessonart auzapezak Euskal Herriak bizi duen «itxaropen garaian» horrelako jokabideak ulergaitzak egiten zaizkiola aitortu zuen. Naia gazteari dagokion errugabetasun-presuntzioa aldarrikatuz, «baretze aldera» keinuen beharrean gaudela uste du Euskal Herriko Hautetsien Biltzarreko buru ere den Bessonartek.

# SARA

GIZARTEA → URRIAN IZANEN DA

## Landare trukaketa antolatu du Turismo Bulegoak animalien bestaren barrenean

Baratzean lanean hasten ahal da jendea urrirako trukatzeko prest izateko

### Joana GUERENDIAIN

Heldu den urriaren 6an, animalien besta izanen da Saran eta honen kariatara, landare trukaketa bat antolatu izanen da. Beraz, nahi badituzue zuen loreak trukatu bertze baratzeazain batzuekin,

hasi lurreztatzen.

Ekintza hori Turismo Bulegoak antolatu du Janine Harismendy, Pantxo Azarete eta Jeanette Bretonen laguntzarekin.

Xehetasun gehiagorentzat Turismo Bulegora zuzendu telefonoz deituta edo e-postaz: [otsi.sare@wanadoo.fr](mailto:otsi.sare@wanadoo.fr).

### Mus eta Poker lehia

Larunbat honetan, ekainak 2, Sarako Urxtintxak mus eta poker lehiaketa antolatu du. 14:00etatik goiti hasi-



ARGAZKIA: JOANA GUERENDIAIN

### Eskubaloia

18 urte azpikoe eskubaloian sasoin ederra egin dute Maia Jauregui eta Fanny Lastrak eramanik. *Honneur* mailan aritu dira, 10 matxa jokatu dituzte eta 5 galdu eta 5 irabazi dituzte. Final erdietara iritsi dira Iristarren kontra eta garai-lertera atera dira, 24-18 joate matxan eta 17-28 itzultze matxan. Finalerako kalifikatu dira Lescarren kontra aritu dira Lescarren maiatzaren 26an. Aupa neska!

ko da eta kiroldegian eginen da. Ostatu bat izanen da eta ondotik afaria (lasagna eta gisakoak).

Izen-emaitea 10 euro pertsonako poken aritzeko eta musarentzat 10 euro taldeka. Xehetasun gehiagorentzat deitu

François Cholet: 06.11.83.44.26

### Bisitak

Ekainaren 6etik irailaren 25era, asteartero bi bisita gidatu proposatuak izanen dira, bat eliz-dorrearena eta bertzea Sarako herriarena.

Eliz-dorrea bisitatzeko hitzordua 14:30etan izanen da eta hiru euro balio ditu. Herria bisitatzeko hitzordua, berriz, 10:00etan da plazan, eta helduentzat lau euro balio ditu eta 10 urte baino guttiagokontzat urririk izanen da.




**ttipi-ttapa**

**inprenta lanak egiten ditugu**  
ideiatik hasi eta etxean izan arte

1.000 ale → 85€	8.000 ale → 160€
1.000 ale → 84€	1.000 ale → 107€

948 83 54 58  
turkuk@ttipi-ttapa.net







## EZKONTZAK

**Esteban Huizi Bazterrika** eta **Ana Isabel Urroz Saldias**, Leitza eta Urrozkoa, maiatzaren 12an Urrozen.  
**Iñaki Zubieta Ameztoi** eta **Laura Elizagoien Ariztegi**, Etxalarkoak, maiatzaren 5ean Etxalarren.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## SORTZEAK

**Ugaitz Otxandorena Zubillaga**, Donamariakoa, apirilaren 3an.  
**Ane Agirre Telletxea**, Narbartekoa maiatzaren 15ean.  
**Markel Aizpurua Larrea**, Lesakakoa, maiatzaren 11n.  
**Eneritz Etxepare Sein**, Lesakakoa, maiatzaren 14an.  
**Izaro Saldias Makazaga**, Goizuetakoa, maiatzaren 14an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Carmen Eskiroz Eraso**, Aresokoa, maiatzaren 14an, 81 urte.  
**Santiago Etxeberria Agerre**, Arraiozkoa, maiatzaren 9an, 75 urte.  
**Francisco Galarregi Garbalena**, Gartzaingoa, maiatzaren 13an, 91 urte.  
**Manuel Bazterrika Elizalde**, Iturenegoa, maiatzaren 13an, 84 urte.  
**Amalia Arretxea Carrion**, Doneztebekoa, maiatzaren 14an, 101 urte.  
**Antonia Irigoien Otxandorena**, Donamariakoa, maiatzaren 17an, 56 urte.  
**Francisco Maria Goienetxe Bidart**, Elbetekoa, maiatzaren 18an, 85 urte.  
**Tomas Mutuberria Maitikorena**, Iturenegoa, maiatzaren 18an, 86 urte.  
**Bautista Erasun Telletxea**, Doneztebekoa, maiatzaren 18an, 64 urte.  
**Maria Luisa Fernandez Mihura**, Elizondokoa, maiatzaren 21ean, 89 urte.  
**Fernando Iburguren Esnaola**, Leitzaakoa, maiatzaren 22an, 59 urte.  
**Justina Etxenike Korteia**, Iruritikoa, maiatzaren 23an, 69 urte.  
**Paul Barrenetxe**, Sarakoa, apirilaren 28an, 89 urte.  
**Etienne Etxegarai**, Sarakoa, maiatzaren 11n, 65 urte.  
**Michel Zubieta**, Sarakoa, maiatzaren 19an, 87 urte.



**Antonio BARRENETXE IANTZI**  
Berroetan, 2011ko maiatzaren 31n  
**Oskar BARRENETXE JAIMERENA**  
Amaiurren, 2011ko ekainaren 14an

*Ez da zuen laguntasunaz disfrutatu ez duenik, zuen leialtasuna ezagutu ez duenik, zuen bizitzeko gogoa eta portasuna ikusi ez duenik...  
Joan zarete, baina badakigu beti gure ondoan egongo zarete, gure bestetan, bileretan...  
beti izango dugu toki bat zuentzat.*

### ZUEN FAMILIA

Eskerrik asko gure ondoan egon zareten guztiei.



**Manuel BAZTERRIKA ELIZALDE**  
Ituren, 1927/06/12-2012/05/13, 84 urte zituela

*Zubialdeko baserrian umoretsu zinen bizi bederatziz seme-alaba emaztearekin hazi larogeita lau urtetan haundituz diguzu irautsi ongi jarraituko duzu hori baituzu merezi*  
*Bazterrika lokarria nolabait egin da hautsi bilobak eta gañekuk seme-alabak amatxi nahiz triste gelditu garen ez gaitzazu inoiz utzi gure bihotzetan beti segiko duzu atautxi.*

### ZURE FAMILIA

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une hauetan lagundu diguzuen guztiei.

*Rekordatorioak egiten ditugu*

ttipi-ttapa

Bidaiatza, 12  
ETXALARRA | 948 635 458

SASKIBALOIA → DENBORALDI BUKAERA

## Lehen maila autonomikoko ligan irabazle Toki Ona Bortziriak taldea

Kadete neskek ere ligako txapelkun izan dira

### TTIPI-TTAPA

Norbere etxean irabaztea ez da beti erraza izaten baina horixe lortu du Berako saskibaloitalden nagusiak. Toki Ona Bortziriak saskibaloitalden nagusiak antolatzen zuten Nafarroako lehen mailako lau finala maiatzaren 20 eta 21eko asteburuan Beran eta liga irabaztea lortu zuten. Larunbatarekin finaldiak jokatu ziren eta

igandeko final estuan 70-67 irabazi zion Nafarroako Unibertsitatea taldeari. Berako taldea gibeletik ibili zen zatirik haundienean eta hirugarren laurdenean bazirudien Iruñera joan zela liga. Azken laurdenean, ordea, markagailuari buelta eman eta irabaztea lortu zuen Toki Ona Bortziriak taldeak. Hirugarren posturako lehian, Berriozar nagusitu zitzaion San Adriani.

Baina ez da Toki Ona Bortziriak taldearen denboraldiko garaipen bakarra. Izan ere, kadeteen mailako neskek ere



ARGAZKIAK: JESUS ALACID

Toki Ona Bortziriak taldeko nagusiak goian eta Toki Ona Bortziriak taldeko jokalariek eta jarraitzaileak behean.

liga irabaztea lortu dute eta kadeteen kategorian

ko mutilak eta infantilen mailako neskek

bigarren sailkatu dira ligan.

TRIATLOIA → MADRILEN EGIN DA TXAPELKETA

## Bixente Igartzabal eta Alejo Sarobe lesakarrak ongi moldatu dira Ecotrimad Triatloian


la mila partehartzaileen artean 56. izan da Igartzabal

### TTIPI-TTAPA

Ez da triatloi probetan parte hartzen duten lehenbiziko aldiz Lesa-

kako Beti Gazteko Bixente Igartzabal eta Alejo Saroberentzat baina parte hartu duten azkenean ere fin moldatzen direla erakutsi dute.

Maiatzaren 12an Madrilgo Buitrago de Lozoya herrian II. Ecotrimad proba jokatu zen, Espainiako distantzia er-



ARGAZKIA: SENPER

Alejo Sarobe eta Bixente Igartzabal Madrilgo proba bukatu ondotik.

tain eta luzeko Triatloi txapelketarako sailkatzeko eta estatuko rankingerako puntuagarria zen proba. Han parte hartu zuten lesakarrekin.

Distantzia ertaineko formatuan (1,9 kilometro igerian, 75 kilome-

tro bizikletan eta 21 kilometro lasterka) ia mila triatletek hartu zuten parte. Horien artean, CN Sabadell taldeko Miquel Blanchart izan zen garaile gizonetzkoen artean (03:54:42) eta Salto-ki Trikideak taldeko Es-

tefania Gomez emakumezkoen artean (04:26:06). Lesakarre dagokienez, Bixente Igartzabalek 56. postua eskuratu zuen (04:41:56) eta Alejo Sarobe 311. izan zen (05:37:56).



HERRI KIROLAK → ZAZPI MODALITATETAN LEHIAN

# Eskualdeko hainbat kirolarik parte hartuko dute Iparraldeko Joko Torneoan

Hiru jardunaldi jokatu dira liga sistema erabiliz

## TTIPI-TTAPA

Txokor biltzea, ingude altxatzea, txingak, harrijasotzea, lasto-altxatzea, orga jokoa eta zakulariak. Emakumezko eta gizonezkoetan, zazpi modalitate horietan ariko dira Iparraldeko Joko Torneoan parte hartuko dutenak.

Hiru jardunaldi jokatu dira: ekainaren 16ean Iruñeko zezenplazan (12:00etan), ekainaren 24an Uharteko



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Andoni Lasagarekin batera –argazkian–, Iñaki Telletxea, Patxi Irtzoki, Unai Iantzi eta Fernando Etxegarai ariko dira txokorrek.

plazan (13:00etan) eta uztailaren 1eko eguerdian, Burgin.

## PARTEHARTZEA

Eskualdeko hainbat kirolarik parte hartuko

dute txapelketa honetan eta lerro hauek idazterakoan izena

emateko epea oraindik zabalik bazegoen ere, txokor biltzen, Iñaki Telletxea (Elizondo), Patxi Irtzoki (Igantz), Andoni Lasaga (Bera), Unai Iantzi (Aniz) eta Fernando Etxegaraik (Bera) behintzat izena emana zuten. Txingekin aritzeko, lerro hauek idazterakoan izena emandakoak Migel Angel Sukuntza eta Josetxo Urrutia leitzarrak ziren. Harri altxatzen Josetxo Urrutia leitzarrak eta Xabier Ariztegi *Santxin* etxalartarrak emana zuten lerro hauek idazterakoan izena. Lasto altxatzen, azkenik, igantziarrik ariko dira.

AIZKORA → BANAKAKO TXAPELKETA

# Ekainaren 10ean jokatu dira Banakako Aizkolari Txapelketako finalak Azpeitian

19 eta 23 urtez azpikoenak eta Urrezko Mailako izanen dira

## TTIPI-TTAPA

Eusko Label Banakako Aizkolarien Txapelketako finalak jokatu dira ekainaren 10ean, igandearekin, Azpeitian. Hiru kategorietako finalak izanen dira: 19 urtez azpikoena, 23 urtez azpikoena eta Urrezko Mailakoa. Oraindik finalerdi guztiak jokatu gabeak dira

eta beraz, lerro hauek idazterakoan ezin izan dugu jakin zein izanen diren finalista guztiak.

**19 urtez azpikoen** finalerdi, joan den igandean, maiatzak 27, jokatuko zen Lagranen Iker Vicente eta Julen Larrea II.aren artean. Horien artean irabazleak finala Eneko Otaño eta Eneko Saralegirekin jokatuko du.

**23 urtez azpikoetan**, asteburu honetan jokatu dira finalistak erabakitzeko kanporaketak. Alde batetik, Jon

Rodriguez II.a eta Aratz Mugertza III.a ariko dira; bertetik, Ander Erasun eta Aritz Irazabal eta azkenik, Mikel Larrañaga eta Oihan Larretxea. Finala hiru saio horietako irabazleek jokatuko dute.

**Urrezko Mailan** dagoeneko erabakia dago zein diren finalistak, baina lerro hauek idazterakoan Floren Nazabal zen baieztatutako izen bakarra. Bertze bi finalistak Lagranen jokatutako bi kanporaketetako irabazleak dira.



ARGAZKIA: GERARDO BENGOA

16 urterekin, Joxean Etxeberria zigarra txapelketan parte hartu duen eskualdeko gazteena da.

## ESKUALDEKO AIZKOLARIK

Ez dira gutti izan banakako txapelketa honetan parte hartu duten eskualdeko aizkolariak eta guztiek merezi duten aipamena: Joxean Etxeberria II.a (Ziga), Ru-

ben Saralegi (Leitza), Oihan Larretxea (Bera), Ander Erasun (Aurtitz), Eneko Saralegi (Leitza), Xabier Mindegia (Beintza-Labaien), Jon Rondo (Leitza) eta Donato Larretxea (Aran-tza).

## maiatzak 31-ekainak 13

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Bertsokak



ELIZONDO | 2012.06.09

**Bongo Botrako taldeak Lur dantzalekuan joko du**

Bongo Botrako taldea Lur aretoan izanen da, gauerditik aitzinera. Sarrerak aitzinetik salgai daude 10 eurotan eta egunean berean 12 eurotan.

## Bestak



ALMANDOZ | 2012.06.06-10

**Bestaberi bestak ospatuko dituzte**

Herritarren arteko kirol saioak, patata tortilla lehiaketa, mus eta partxis txapelketa, jaunartzeak mariatxiak, dantzaldiak. Bortz eguneko egitarau zabala.

## Ospakizunak



ETXALAR | 2012.06.03

**Hogeigarren edizioa beteko du Gasna Feriak**

Urteurren borobila beteko du Altxatak antolatutako ekitaldiak. Gasnak ez ezik, artisauen lanak, herriko trikitalariak, dantzariak eta bazkaria izanen dira.

tu du Altxatak. Xehetasunak 14. orrian.

## NARBARTE

**Bertizarana Eguna**

**Ekainaren 2an** Bertizarana Eguna. Xehetasunak 26. orrian.

## DONEZTEBE

**Errekaren Eguna**

**Ekainaren 8-9an** Erreka elkartaren eguna. Xehetasunak 18. or.

## GOIZUETA

**UEMA Eguna**

**Ekainaren 9an** eginen da. Xehetasunak 4. orrian.

## ERRATZU

**Kantu Musika afaria**

**Ekainaren 9an** eginen da Erratzuko Elkartean.

**Bestak**

## ALMANDOZ

**Bestaberi bestak**

**Ekainaren 6tik 10era** Bestaberi bestak. Xehetasunak 39. orrian.

**Solasaldiak**

## ELIZONDO

**Bertsogintzan aritzeko gakoak**

**Ekainaren 1ean** Bertsogintzan aritzeko zentzua gako: *etxean lantzekoak* solasaldia eskainiko du Karlos Aizpuruak 20:00etan Arizkunenean.

## BAZTAN

**Aste Internazionalista**

**Ekainaren 3an** Mendebaldeko Sahara: *gaur egungo egoera lurralde okupatuan* solasaldia eskainiko dute Askapenako brigadistek 19:00etan Erratzuko Elkartean, Hassana Aalia gonbidatuarekin. **Ekainaren 5an** Palestina: *normaltasuna herri artean* solasaldia es-

**Erakusketak**

## ELIZONDO

**Palestina: Okupazioa eta erresistentzia**

**Ekainaren 1etik 18ra** *Palestina: Okupazioa eta erresistentzia* erakusketa antolatu du Sodepaz elkarteak Arizkunenean. 18:00etatik 20:00etara.

**J. Ansoainen margo erakusketa**

**Ekainaren 8tik 28ra** J. Ansoainen margoak Arizkunenean.

**Kontzertuak**

## AMAIUR

**Elizondoko Abesbatza Txikia elizan**

**Ekainaren 3an** ahots kontzertua Elizondoko Abesbatza Txikiarekin 19:30ean elizan.

## ELIZONDO

**Elizondoko Abesbatza Txikia Zahar Etxean**

**Ekainaren 6an** ahots kontzertua emanen du Elizondoko Abesbatza Txikiak 19:15ean Fco. Joaquin Iriarte Zahar Etxean.

**Musika Eskolako ikasleen kalejira**

**Ekainaren 12an** kalejira eginen dute Baztan

Musika Eskolako ikasleek, 17:00etan hasita.

**Bongo Botrako taldea Lur aretoan**

**Ekainaren 9an** Bongo Botrako taldea izanen da Lurren, gauerditik aitzinera. Sarrerak: 10 euro aurretik eta 12 euro bertan.

## BERA

**Abesbatza tikiak Kultur Etxean**

**Ekainaren 10ean** Giltzarri txiki, Elizondo eta Bortzirietako Abesbatza tikiak emanaldia

eskainiko dute Kultur Etxean, 18:00etan.

**Ospakizunak**

## BERA

**Abesbatzaren Eguna**

**Ekainaren 3an** ospatuko da Berako Abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko eguna. Xehetasunak 10. orrian.

## ELIZONDO

**Nafarroako Bertso Eskolen Eguna**

**Ekainaren 2an**, 12:00etatik aitzinera.

## LESAKA

**Beti Gazteren Eguna**

**Ekainaren 2an** Beti Gazte elkartaren eguna. Xehetasunak 12. or.

## ITUREN

**Trinitate Eguna**

**Ekainaren 3an** Mendaurra joanen dira hainbat herrietatik eta Iturenen bestak segituko du arratsaldean.

## ETXALAR

**XX. Gasna Feria**

**Ekainaren 3an** antola-

## PROPOSAMENA

## BAZTAN

**Aste Internazionalista ekainaren 3tik 7ra**

Askapenak eta Erratzuko Kultur Elkartek nazioarteko gaiei tartea eskainiko dien Aste Internazionalista antolatu dute ekainaren 3tik 7ra. Sahara eta Palestinari buruzko solasaldiak izanen dira Erratzun eta *Internazionalismoa Euskal Herrian* solasaldia Elizondoko Arizkunenean. Leku berean Palestinari buruzko erakusketa antolatu du Sodepazek.





kainiko dute Xabier Torres eta Amaia Saldiasek 19:00etan Erratzuko Elkartearen.

**Ekainaren 7an** *Internazionalismoa Euskal Herrian* solasaldia eskainiko du Askapenak Elizondoko Arizkunean 19:00etan.

#### ERRATZU

#### Txirriindularitzari buruz

**Ekainaren 3an** txirriindularitzari buruzko solasaldia eskainiko du Joseba Beloki txirriindulari ohiak 17:00etan Kastanean.

### Zinema

#### ETXALAR

#### Bertsolari filma ikusgai

**Ekainaren 2an** *Bertsolari* filma Kultur Etxean 20:00etan.

### Mendi ateraldiak

#### BAZTAN

#### Baztango Mendigoizaleak

**Ekainaren 3an** Artikutzara ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak. (07:00)

**Ekainaren 10ean** Baztan herriz herri ibilbidea egingen dute Baztango Mendigoizaleak, Almandoztik abiatuta. Almandozera linoako autobusean.

#### SUNBILLA

#### Ulibeltzak Mendi Taldea

**Ekainaren 2an** Peña Collaradan eski trabezia egingen du Ulibeltzak taldeak (06:00).

#### BERA


#### Larun Ttiki taldea

**Ekainaren 10ean** Sarioarat aterako dira la-moteneatik eta ondotik bazkaria (09:00).

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua



Larunbatean Bukowskin

JOHN ANDUEZA

Elkar, 2012

Larunbatean, Donostiako Bilintx institutuan ikasturte berria hasi da. Urtero legez, tribu ezberdinak nahastuko dira bertan: modernoak, frikiak, punkiak, hip-hoperoak eta apatxe bakartiak. Nerabe horien unibertso propioan murgilduko gara. Gazteen arteko harremanak konplikatuak, teknologia berriak, sexua, drogak... rokan rola! Eta halako batean, institutuan norbaitek kamera txiki bat ezkutatu du nesken aldagelako azken dutxan... John Andueza (Oregon, AEB, 1966). Telebista eta zinearen saltsa-maltsan nahasia ibili da luzaroan. Orain bere lehenengo nobela argitaratzeko fortuna izan du, 13 urtetik goitikoei zuzendutako Elkar argitaletxearen Taupadak bilduman. Hamabortz urteko neska-mutik kuadrilla baten kronika martxosoa aukeratu du debuta egiteko.

### Musika



Tximinotan

THE USKI'S

Bagu-Bigu musika ideiak, 2012

The Uski's talde bizkaitarraren *Tximinotan* diskoa euren laugarren lana da. Abiadurari dago-kionez, bi alde ditu diskoak: ziztu bizian doazen rock and roll abestiak eta, bertzaldetik, doinu motelek hartzen duten balada kutsua. Dantza soltean egiteko rock and roll abestiak, gorputza mugitzeko aproposak dira eta abiadura osoan doaz. Bikotean guztiz elkarturik dantza egiteko balada erakargarriek hasierako tximista sortak gelditu egingen ditu. Rock and rolla bero dabil, baladei kea darie. Diskoa beroa da bere osotasunean. Dantza azkarretan hauspoaren goritasuna, dantza geldoetan bihotzaren sugarra. The Uski's taldearen doinueta bestaren bi aldeak bat datozkigu: martxa eta abiadura nahiz lasai uneak eta baretasuna. The Uski's taldearen musika garai bateko rock and rollaren indarrez gainezka doa poparen irriñoekin, bluesaren aztarnekin, funkyaren zipriztinekin, baladen erasoekin, countryaren ferekekin.

### Internet



Zero Zabor Bloga Argiaren eskutik

[ARGIA.COM/ZERO-ZABOR](http://ARGIA.COM/ZERO-ZABOR)

Hondakinen inguruan Euskal Herrian eta munduan sortzen diren informazio, dokumentu eta iritzien agertoki izan nahi du Zero Zabor kanalak. Luzaz gizarte industrializatuek begietatik urrutiratu eta ezkutatuak, XX. mende bukaeratik gaur nagusien artean daude gaur. Hondakineta azaleratzen dira XXI. mendean Lurra planetan bizi garen jendeon arazo eta erronka nagusiak: garapenak bere kutsadurekin eragindako kalteak (gizakien osasunetik klimaren aldaketara), munduko aberastasunen eta kutsaduren banaketa injustoak dakartzan gatazkak, naturako baliabideen zahuketa... Hitz bitan, 1972an Erromako Klubak "Hazkundearen mugak" izendatu zuen egia dagoenezko mamitzen ari da denon begien aurrean. Kanal honetan bilduko dituzte Argiak berak sortutakoez gain inguruko hedabideek hondakinez plazaratzen dituzten albiste, irudi, bideo eta gainerako agiri eta erreferentziak.

## Nire aukera



Antton MAIZ

Arantzako pilotari ohi

### «Ez zait gustatzen kanpora ateratzea barkaziotan, etxean bezala inon ez!»

Pilotalekuetatik erretiratu eta Petrisenekoborda inguruan «gustora» bizi dela aipatu digu Antton Maizek. «Beti baserria izan dut eta behiak kendu genituen, baina behor ttiki horietako batzuk izaten ditut, korte bat kentzen diot belarrari idortzeko eta gainerakoan berai-ek jaten dute». Baserri-kanpo, «mendian ibiltzea eta ehizia» gustatzen zaizkio. Bizkarrerako ona dela eta «Lesakako piszinarako joaten naiz, txorro azpian jartzera». Musean ere aritzen da, «jarrita egoteko ongi gaudezi oraindik!», dio Maizek. Barkaziotan kanpora ateratzeko, aldiz, ez du baxtereratik. «Ez naiz sekula izandu, ez zait gustatu, pilotari garaian aunitz ibili naiz eta badut munduaren berri, baina orain etxe inguruan baino hobe ez nago inon». Pilota ikustera ere ez da frontoietara joaten, «nola telebisatzen dituzten, denak etxean ikusten ditut». Orain lan berria ere badu, «ilobak zaintzea, nere umeekin gutti egon nintzen, baina bilobekin gustora!».

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**ELIZONDO.** Maurizio eta Felix plazan Babes Ofizialeko Etxebizitza salgai edo errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela, trastelekua eta garaje plaza ditu. Eguzkitsua eta mobleztatua. Salmentako prezioa 21.500.000 pezeta. (129.217 euro) eta errentarako prezioa 350 euro. ☎616 510624 edo 948 580683.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuak bere lurra-  
rekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581 459  
anzabal@anzabal.com

**ORONAZ-MUGAIRI.** 2 bizitza salgai, mobleztatua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta baxerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

**DONEZTEBE.** Herri erdian pisua berritua salgai. Sukaldia, 2 logela, egongela eta bainugela. Berogailuarekin eta 15m<sup>2</sup>ko trastelekua. ☎630 160353.

**ELIZONDO.** Santiago karrikan 83 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldia eta balkoia. Mobleztatua. 96.000 euro. ☎638 231385.

**ORONAZ-MUGAIRI.** 100m<sup>2</sup>ko etxebizitza sal-

**MERKATU TTIKIA**

**948 63 54 58**

info@ttipi.net edo www.ttipi.net


SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

gai, mobleztatua, 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, jaki-gordailua eta kanpora ematen duen trastelekua, oso argitsua, moskitera leiho guztietan, biomasa berogailua, urbanizazio pribatua, lorategi haundiarekin, aparkalekuak guztientzako eremuan. 205.000 euro. ☎620 679145.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

**DONEZTEBE.** 92-94m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun,

egongela eta sukaldia haundiak. Gela guztiek kanpora ematen dute, eguzkitsua. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎699 798207.

**IGANTZI.** Pisu berria errentan emateko 400 eurotan edo salgai 180.000 eurotan, 2 logela, egongela, bainugela, berogailua, trastelekua (pisua saltzen bada) eta marra garajea. Oso argitsua. ☎670 218613. (Oharra: eta orain, pisua erosten duenarentzat, 12.000 euro arteko kotxe bat opari, zuk aukeratu kotxea eta nik ordainduko dut).

**BERA.** Estreinatua gabeko pisua errentan emateko. 2 logela, komuna dutzarekin, egongela, sukaldia eta horiez gain, 20 m<sup>2</sup>ko terraza. Dena altzari berriekin. Herri sarreran dago, gasolindegitik 100 metrotara eta Behobiatik 10 minutura.

☎650 603871/ 650 064912.

**DONEZTEBE.** Herri erdian 110m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela eta trastelekua. Mobleztatua eta berogailuarekin. Oso egoera onean. ☎618 628263.

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitu

**IRUÑEA.** Zaragoza etorbidean pisua osatzeko jendea (ikasleak) behar dira. ☎605 723094.

**LANA**  
eskariak

**BERA.** Ile-apaindegi batean makilatzen laguntzeko neska bat behar da. ☎661 432630.

**BERA.** Neska gazte eskalduna haurrak zaintze-

ko prest uztailean. ☎676 389481.

**LANA**

eskaintzak

Etxalar Hotelean **sukaldaria** behar da udako sa-soirako. ☎948 635000.

**Telekomunikazioko multinazional** bat jende bila dabil. Zu bezalako jendea. Etorbizuneko irtenbideak interesgarriak. ☎626 981768.

Iruñeko **kirol arropadenda** batean neska bat behar da. Interesa duenak bidali zuen curriculum argazki batekin, ondorengo helbidera. *Olatzpi, Baiona etorbidea 34, 31011 Iruñea.* ☎600 316934.

Frantses pixka bat dabilen mutil edo neska bat behar da udan **Larungo benta batean** lan egiteko. ☎948 631100/607 566022.

**MOTORRAK**  
salgai

**Ford Fiesta 1.4** gasolia salgai, 80 CV. Oso egoera onean. ☎686 998360.

**Toyota Landcruiser 7** urtekoa, VX modeloa, modernoa, 150.000 kilometro, 163 CV, 3 atekoa, egoera onean salgai edo 5 ateko Toyota batengatik aldatzeko. ☎943 622860.

**Opel Monterey** autoa salgai. Egoera onean. 2.000 euro. ☎607 853208.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(maiatzaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 43,00 € (-2,00)

**Zerri gizena**  
1,294 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,590€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. **Kanal Extra** 4,25 (-0,06)  
**1.koa** 3,95 (-0,06)  
**2.koa** 3,71 (-0,06)  
**Urruxak:** €/kg. **Kanal Extra** 4,31 (-0,06)  
**1.koa** 4,03 (-0,06)  
**2.koa** 3,93 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 100,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 110,00 (=)  
idixkoak 120,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,94/3,04  
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 6,90/7,000  
8-10 kilokoak: 5,30/5,70



**Citroen Xsara** egoera ezin hobean salgai. 178.000 KM. Salmentaren arrazoa gutti erabiltzen dela. Prezioa: 3.000 euro salmentaren gas-tuak barne. ☎660 029573.

**Rover 25 1.6 autoa** salgai, 129.000 kilometro, grisa kolorekoa, gasolina, 2002.urtekoa, ongi zaindua. 3.000 eurotan. ☎665 712697.

**Seat Cordoba GT TDI**, 110 CV salgai. 163.000 kilometro. 2.000 eurotan. ☎679 829446.



**Suzuki Santana** kotxea eta literak salgai. ☎948 450216.

**ANIMALIAK**  
oparitu

**Zakurkumeak** oparitzeko, bi ar eta eme bat. Atta spanier arrazakoa eta ama setterra. ☎678 024636.

**Zakurkumeak** oparitzeko, hiru eme eta 2 ar. 35 egun inguruakoak. ☎626 605304/616 665191.

**ANIMALIAK**  
salgai

**Border collie** arrazako zakurkumeak salgai. Atta eta ama hagitz onak. ☎661 767027.

**ZUGARRAMURDI**. Behi gorriak beraien aretzeekin salgai. ☎948 599068.

**3 asto** salgai. Oso merke. ☎948 514056 (Ximon).

**DENETARIK**  
salerosketak

**DONEZTEBE**. 12 aulki rustiko salgai. Torneatuak. Gaztain zurrarekin eginak. Telletxea altzari-dendan ikusgai, nahiz eta partikularrak izan. ☎646 799828.

**ORONOZ**. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



**Urari indarra emateko bonba** salgai. Indar handikoa. Hagitz gutti erabili. ☎606 681291.



**Bazkaren autokargadorea** (autocargador de fo-

rraje) salgai. Juscafresa. A/J15. 2.800 euro. ☎943 622860.

**Ostalaritzarako altzariak** salgai: eguneko 80 kilo izotz-zati (kubitoak) egiten dituen makina, ba-

soen garbigailua ostaturako, ardo beltzarendako armairu-bodega eta hainbat neurritako botilategiak. ☎639 103305 (Jose Mari).


# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez




Donamariako XUMAI JORAJURIA MINDEGIAK ekainaren 4an urtea beteko du. Txokolate goxo prestatuko diogu gure bihurriari. Zorionak familiarren partetik!



MIRARI arantzarrak urteak beteko ditu ekainaren 10ean. Auniz urtez lagunen partetik eta muxu bat Saioa eta Anderren partetik!




Amatri MARGARIK urteak beteko ditu ekainaren 17an. Auniz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Lesakako ANARTZ ARSUAGA TAPI gure tikiak urtea beteko du ekainaren 10ean. Zorionak kukuku Asteasu eta Lesakako familiarren partetik. Paaa!




OLATZ ARAKUES MIKELAJUREGI lesakarrak 9 urte beteko ditu ekainaren 2an. Auniz urtez ondoko familiarren eta bereziki Jareren partetik.



Leitzako AMETS eta UNAI GUEREÑO GARCIAK maiatzaren 29an urtea bete dute. Zorionak maitiak eta mila esker ematen diguzuen pozagatik.




Leitzako UNAX ZABALETA GARTZIAK 4 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat gure gizontxoantzat aitaxo, amatxo eta bereziki bere arreba Yueren partetik.



Erratzuko MARIAN ETXEBERRIA BIKONDO eta NAROA BIKONDO JAURENAK 20 eta 7 urte bete dituzte maiatzaren 11 eta 29an. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Enaitzen partetik. Musuak.



Erratzuko MARIAN ETXEBERRIA BIKONDO eta NAROA BIKONDO JAURENAK 20 eta 7 urte bete dituzte maiatzaren 11 eta 29an. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Enaitzen partetik. Musuak.



Erratzuko MARIAN ETXEBERRIA BIKONDO eta NAROA BIKONDO JAURENAK 20 eta 7 urte bete dituzte maiatzaren 11 eta 29an. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Enaitzen partetik. Musuak.



Erratzuko MARIAN ETXEBERRIA BIKONDO eta NAROA BIKONDO JAURENAK 20 eta 7 urte bete dituzte maiatzaren 11 eta 29an. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Enaitzen partetik. Musuak.




AINGERU SALABERRIA ZABALA goizuettarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 24an. Muxu bat! Aita, ama eta bereziki anai-arreba Mikel, Aingeru eta Yeraren partetik.



AINGERU SALABERRIA ZABALA goizuettarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 24an. Muxu bat! Aita, ama eta bereziki anai-arreba Mikel, Aingeru eta Yeraren partetik.




UNAI ALZUGARA ARANBILLET beratarak 8 urte beteko ditu ekainaren 4an. Zorionak Almandozko familiarren partetik.



Zubietako JONE INDAKOTXEA ZUBIALDEK 7 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak Lander eta amaxoren partetik, egun on-ona pasa eta berendu goxoa prestatu. Muxu potolo bat eta izan zoriontsu!




Zubietako JONE INDAKOTXEA ZUBIALDEK 7 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak zure urtebetetzean, zorionak ta urte askotarako, zorionak belarritik tiratzean, zorionak ta muxu bat, zuretzako! Mila kilo zorion eta muxu erraldoia Xune, Mirari, Unai eta Aimarren partetik, baita amatxi, attona eta osaba-izeben partetik ere.



Zubietako JONE INDAKOTXEA ZUBIALDEK 7 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak zure urtebetetzean, zorionak ta urte askotarako, zorionak belarritik tiratzean, zorionak ta muxu bat, zuretzako! Mila kilo zorion eta muxu erraldoia Xune, Mirari, Unai eta Aimarren partetik, baita amatxi, attona eta osaba-izeben partetik ere.



AUZAKO ZELAI SARRATEA ALDAZEK ekainaren 2an 4 urte beteko ditu eta IKER SARRATEA ALDAZEK 2 urte bete ditu maiatzaren 22an. Muxu haundi bat gure printzesitari eta gure kaskagorriari aitexi, amatxi eta osaba Angel M<sup>ren</sup> partetik Oronoz-Mugairtik.



AUZAKO ZELAI SARRATEA ALDAZEK ekainaren 2an 4 urte beteko ditu eta IKER SARRATEA ALDAZEK 2 urte bete ditu maiatzaren 22an. Muxu haundi bat gure printzesitari eta gure kaskagorriari aitexi, amatxi eta osaba Angel M<sup>ren</sup> partetik Oronoz-Mugairtik.



AUZAKO ZELAI SARRATEA ALDAZEK ekainaren 2an 4 urte beteko ditu eta IKER SARRATEA ALDAZEK 2 urte bete ditu maiatzaren 22an. Muxu haundi bat gure printzesitari eta gure kaskagorriari aitexi, amatxi eta osaba Angel M<sup>ren</sup> partetik Oronoz-Mugairtik.



ASUNZION OLAGARAI urdazubiarrak 91 urte bete ditu maiatzaren 19an. Auniz urtez eta muxuak argazkian zurekin dauden ilobak, Joxe Angel eta Pablo anaien partetik.




ASUNZION OLAGARAI urdazubiarrak 91 urte bete ditu maiatzaren 19an. Auniz urtez eta muxuak argazkian zurekin dauden ilobak, Joxe Angel eta Pablo anaien partetik.



EKIÑE GOÑI OSKOTZ arantzarrak 3 urte beteko ditu maiatzaren 31n. Zorionak etxeko printzesari eta Arantzeta eta Oizko familiarren partetik muxutuak.



ORONOZKO MAIALEN BARAIBAR GORTARIK 8 urte bete ditu maiatzaren 27an. Zorionak etxeko gure printzesari, bereziki Aitorren partetik.




ORONOZKO AIITOR BARAIBAR GORTARIK 8 urte bete ditu maiatzaren 27an. Zorionak etxeko gure printzesari, bereziki Aitorren partetik.



ORONOZKO MAIALEN eta AIITOR BARAIBAR GORTARIK urteak beteko dituzte maiatzaren 27an eta ekainaren 8an. Muxu haundi bat gure bikote urdinari familiarren partetik, bereziki Olaia, Eider eta Lorearen partetik.




LESAKAKO BEKAROTAKO AMAIUR eta AINITEZ MARTINEZ OLAZABALEK 4 urte beteko dituzte ekainaren 16an. Lau, lau, lau, sardina bakalau! Muxu pila Igantziako eta Lesakako familiarren partetik. Segi hain goxak eta ximpatikak izaten! (eta bihurriak ere bai).



ITURENGO INAKI BAZTERRIKA ILARREGIK ekainaren 4an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat attatxo eta amaxoren partetik.




ITURENGO INAKI BAZTERRIKA ILARREGIK ekainaren 4an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat attatxo eta amaxoren partetik.



ITURENGO INAKI BAZTERRIKA ILARREGIK ekainaren 4an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat attatxo eta amaxoren partetik.




KONSUELO IRIARTE IBARRA sunbildarrak ekainaren 2an urteak beteko ditu. Auniz urtez eta eguna ongi ongi pasa familia guztiaren partetik eta bereziki iloba tikiaren partetik. Muxuak izeba koko/o.



KONSUELO IRIARTE IBARRA sunbildarrak ekainaren 2an urteak beteko ditu. Auniz urtez eta eguna ongi ongi pasa familia guztiaren partetik eta bereziki iloba tikiaren partetik. Muxuak izeba koko/o.



Zorionak UNAX PERURENARI maiatzaren 24an 5 urte bete dituelako. Iturengo amatxi, aita-lirune, osaba-izeba eta arreba Naroaren partetik besarkada haundi-haundi bat, baita Aizoango osaba-izeba eta lehen-gusinak diren Janire eta Iraiaren partetik ere. Muxu potolo bat.



ITURENGO INAKI BAZTERRIKA ILARREGIK ekainaren 4an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta besarkada haundi bat Ametziko birramatxi, atautxi-amatxi eta osaba-izebaren partetik. Muxu potolo-potolo bat gure etxeko mutiko tikiari.



Leitzako UNAI eta AMETS GEREÑO GARCIAK urtea bete dute maiatzaren 29an. Zorionak aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partetik



IRUNGO UNAI ZUBIALDE SUSPERREGIK 7 urte bete ditu maiatzaren 29an. Gure UNAIxorentzat, Xune, Mirari, Jone, Aimar, Lander, izeba-osabak, amatxi-attona eta gurasoen partetik zorionak! Ongi pasa eguna eta goxoki zai geldituko gara. Muxu handi bat tanborjole!



## Mundu guztiak ikusteko!

Kulturkariak / Herria / Baitatik / Txapelketa / Kultura / Herria / Baitatik / Txapelketa / Kultura / Herria / Baitatik

**100 KARTEL 93€**  
(A3 kolorean)

**250 KARTEL 110€**  
(A3 kolorean)

**t tipi-ttapa**  
Anduettza, 12 ETXALAR  
Tel.: 948 635 458  
kulturkari@ttipi.net  
www.kulturkari.com

\* BEZ gabe (%18)  
Fotografiak sartzea dogo berriztatze inguruetan eta gero  
Eguzi 30 egun  
Prezio baxuak bota dira 2012ko abuztuaren 20era arte



# freskату goxату INFORMATU



## liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiten duen CIESek  
Nafarroa Garaiko mendialdean  
hainbat (11) udalerrian eremuak erdi

mila esker ttipi-ttapa  
irakurlearen duaren gaitzen!



### Adinaren arabera

14-24 URTE	%09,50
25-34 URTE	%18,90
35-44 URTE	%26,40
45-54 URTE	%15,50
55-64 URTE	%20,70
+ 64 URTE	%09,10

### Ikasketa mailaren arabera

IKASKETARIK GABE	%04,70
LEHEN IKASKETAK	%11,60
LANBIDE HEZIKETA	%42,20
BATXILERGOA	%16,10
UNIBERTSITATEA	%25,50

### Sexuaren arabera

GIZONAK	%45,40
EMAKUMEAK	%54,60

*ERREGAI ONENAZ gain, orain*

**-6** **10**  
pezeta  
zentimo €

*Deskontu ZUZENA litroko Berako gure gasolindegietan.*

